


anaitasuna

1982.eko MARTXOA - 418. alea - 100 PEZETA

EUSKAL LITERATURA

- Federico Krutwig
- Maripi Solbes
- Bernardo Atxaga
- Alfontso Irigoien
- Jon Kortazar
- Gotzon Garate
- Joxe Azurmendi


HILEKO DOSSIERRA



XAVIER VIÑADER:
Korbata eta kubalibre kazetaritzaren
aurkako ikertzaile.



Elkarrikuska:
BALENDIN ENBEITArekin.



egizu publizitatea
 zure
 gure
 aldizkarian
 Telf. 94/411 66 20

anaitasuna

3.or: *Aurkibidea*

4.or: **Liburuak:** Leteren "urrats desbideratuak", Koldo Izagirrerren "Euskal Lokuzioak", "Susa-4", Jose Maria Sanchez Carrion "txetepx"-aren "El Espacio Bilingüe", "Antología de la poesía surrealista", "Maiatz", Federico Krutwiren "Separata".



6.or: **Hileko Dokumentua:** Bartzelonaratz hur-



bildu da oraingoan ANAITASUNA hango kazetari batekin mintzatzeko: Xavier Viñader, faszisten atentatuen aurka gogor jo duena eta epaiketa itxaroten ari da gaurregun.

Euskal Herria



10.or: Askatasunaren Arranoaren urtehurrena.

11.or: **EUSKARA MAILAKA:** Metodologia berri honen aurkezpena egin digute egileek, Saieko Euskal Idazleen Elkarte horretakoek.



12.or: Euskara Bilboko Herri Irratian. Xabier Kintanaren artikulua Bilboko Herri Irratian erabiltzen den Euskara aztertuz eta bideren bat proposatuz.



Elkar Ikusta

13.or: Balentin Enbeitarekin izandako elkarriketaren lehen zatia aurkezten dugu ale honetan bigarrena hurrengoan joango delarik.



Editoriala

18.or: Orain arte ez dugu editorialik jarri, baina bada ekintza harrigarri eta interesgarri bat gure giroan: **HABE** eta poliziak, eta hortik hasita horra hor hiru lau ideia.

Dosierra

19.or: Euskal Literaturari eskeinitako dossierra duzue hau. Krutwing, Atxaga, Maripi Solbes, Alfonso Irigoien, Gotzon Garate, Joxe Azurmendi eta Jon Kortazar ditugu dossierraren partaideak.



31.or: Ekonomia: Langa-beziaren izaera.

32.or: Komikia

34.or: Bertso Paperak.

36.or: Gramatika. Jose Ramon Etxebarriaren saila, orain Siglak eta Euskara.

37.or: Gaur Idatzia: Eguzki ari zaigu idazleei eskeinitako orrialdetik.

38.or: Fedea eta Kultura.

39.or: Sadikoaren atexka



40.or: Musika Kritika.

Gaiak

42.or: Prontxioren lanak hartzen du hitza berriz.

44.or: Organizazioa. Harrotza.

46.or: "Maria Goiri" Mingetia: Euskal Herriko Ahozko Literatura Tradizionala Ikertzen Ari.

XABIER LETE - "Urrats desbideratuak" - Colección premios literarios ciudad de Irún.



Gipuzkoako Aurrezki kutxa probintzialak eman du argitara Xabier Leteren hirugarren poema liburu hau, 1980.eko Irún Hiria Literatura Saiaketaren irabazlea, hain zuzen.

Letek berak "aitzin solas ohi delakoaren gisan idatzitako oharrean, bere lan hau argitaratzea gaitz txikiena legez onartuz aurkezten du. Konforme. Bertan maila ezberdinetako poemak topa ditzakezu. Liburu baterako baino kantatzeko diruditenak, klasizismoz beterikakoak... orotara erritmo eta errimaz arduratu eta burututako poemak. Aski zehaztutako lengoia aurkitu eta plazerrez irakurri ditugu Xabier Leteren poema hauk "poematatik gehienek emoziorik sorrerazten ez digutenean".

KOLDO IZAGIRRE - "Euskal lokuzioak" - *Hordago*



Propaganda zehaztasunetatik aparte Koldo Izagirrek benetako lan baliagarria burutu duela uste dugu. Liburu honek laguntza handia eskeini ahal dio euskaraz baliatu behar duenari. Aho hizkeran bizi diren lokuzioak bildu gabe gelditu badira ere pausu inportante bat eman delakoan liburu hau gomen-dagarria iduritzen zaigu, benetan. Dirurik ez badaukazu liburutegian bilatu eta Koldoren hitzaurrea ez ahaztu.

SUSA 4


"Susa" Donostiako literatura aldizkariaren laugarren zenbakia jaso berria dugu.

Hirugarrentik formatoz "jetsi" egin da, baina ez indarrez edo ofizioz: elkarrizketa bat Joxe Azurmendirekin itzulpenak, ipuinak, poemak, etab....

Egileen artean jadanik ezagun diren izen batzuk eta, dudarik gabe, talde dinamiko bat. Hauxe eskuratu eta hurrengoaren zai gelditu!



JOSE MARIA SANCHEZ CARRION "Txepetx". "El espacio bilingüe" *Eusko Ikaskuntza*



Hizkuntzalaritzaren alorrean dabilenak Sanchez Carrionen lana ongi ezaugu beharko luke. Liburu hau argitaratu ditu orain arte: "El estado actual del vascuence en Navarra, Factores de regresión. Relaciones de bilingüismo (1970)"; "Bilingüismo, diglosia, contacto de lenguas" (1974)"; "Lengua y pueblo (1980)"; "El marco sociológico y especial de una situación bilingüe (1980)".

Andaluziatik etorria; Euskaldunberria den autore honek harritu egin gaitu liburu honekin. Obra sakon eta zehatza, eta pentsa daitekenaren kontra, ez bakarrik hizkuntzaren ikasle edo ikertzaileentzat baizik eta "euskararen problematikaz edo expresio-problematikaz arduratuta dabilen edonorentzat.

Liburuak bi atal ditu. Bigarrena "Txepetx-en" lizentziatura-tesia izan zen Salamancako Unibertsitatean eta gehiago lotzen da hizkuntzalaritzaren arlo berezira. Lehenengoak aldiz mila zehaztasun eta iradokizun eskeiniko dizkio irakurle interesadunari.

ANTOLOGIA DE LA POESIA SURREALISTA

"Antología de la poesía surrealista" liburuak gizonaren alde huts-hutsean lan egin nahi zuen mogimenduaren ikuspegi orokorra eman nahi digu; hau da, gizon berezi eta bakunaz ari zenarenari buruzkoa; gizon horren benetako naturalezak erakutsi nahi izan duenaren mogi-

mentuarena (batzutan bere militanterik asko galduz). Gizon konkretoaren helburu eta jomuga deuseztuz, gizartea anpuoski, bai orain eta lehen, zaintzea gura izan duten guztiak salatzea ongi jakin izan du liburuak. Lan horretarako arma bat erabili zuen, gaur egun horren indarra ezagutzen ez duguna: POESIA.



Liburu honek ez ditu besarkatzen militanteak soilik, baizik eta, horiez gain, helburu eta jarrerarekin bat datozen guztiak, nahiz eta mogimendutik at haien burujabetasuna mantendu nahi izan. Louis Aragon, A. Artaud, A. Breton eta T. Tzararekin batera bestelarik agertzen zaigu: Giorno de Chirico, Maurice Blanchard, Julien Graqu...

LITERATURAZKO ALDIZKARI BERRIA

MAIATZ titulupean literaturazko aldizkari berri bat kaleratu da ipar aldean. Aldizkari honen eratzaileren helburua ipar aldeko idazleei plataforma bat eskeintzea da. Aldizkariaren izenak ba du bere esannahia, lanak maiatz inguruan hasi ziren biltzen eta horregatixe datorkio izen hau.

Aldizkariaren helburua argi dago: euskaraz argitaratzea ipar aldeko literatura, ipar aldeko hitza ematea. Eratzailerek dioskutenez "ipar aldean euskaldun asko dago, euskaraz idazteko gai direnak eta horiei eskeini nahi diegu aldizkari hau. Horrela hasi gara biltzen eta pixkana-pixkana ba gabiltza zerbait egiten. Lanak hartu eta geuk pasatzen ditugu makinaz geuk ere enmaketatu eta sartu dugu inprentan lehen zenbakia. Jadanik kalean izando duzue"

Mami edo eduki aldetik textoaren erdia poesiak betetzen du eta beste erdia prosaz edo hitz lauz dago idatzita. Lanen artean batzu bakarrik aipatuko ditugu: Etien Salaberriren textu bat. Euskararen egoera aztertzen duen Beltzaren lana. Gero elkarrizketa bat dator Pierre Laffitte idazlearekin, gaur zahartua baina euskarari buruz lan asko egin duena. Elkarrizketan idazle honek bere bizitzaren berri ematen digu.

Aldizkaria beste lan batzukin osotzen da, Eñaut Etxamenti, Itxaro Borda, Manex Pagolak eta beste idatzitako lanekin. Itzulpenen bat ere ba dago, Jacques Brel kantariaren olerki bat eta

Bretaniako poeta batenak. Beste lan orijinalik ere ba dago Davantenak edo Txomin Peilenenak esaterako.

"Gure asmoa ipar aldeari zabaltzea eta hego aldea ahal den neurrian ukitzea da. Harrera ona izan dugu. Aldizkaria ateratzeaz ipar aldean ba dugula idazlerik demonstratu dugu eta euskararen onerako begi onez ikusten dugu ipar eta hego aldekoen artean harremanak sakontzea.

Beraz ba dakizue MAIATZ aldizkariaren lehen zenbakia kalean dago, ez da bakarria izango gainera. "Gure proiektua segitzea da, hiru hilabete barru beste bat aterako dugu. Gure asmoa ipar aldeko idazle guztiei hitza eskeintzea da, idaz dezaten euskaraz, balio du, interesgarria da eta merezi du".

"Liburuak ateratzera ere lagundu diegu, ipar aldean euskaraz publikatzen den bakarria ELKAR da, Donostia eta Baionakoa eta bere politika hego aldeari mugatzen da gehien batez, euskarak errentabilitaterik ematen ez duela koan edo. Guk idazleei lanak, liburuak zabaltzen lagundu nahi diegu.

FEDERICO KRUTWIG SAGREDO.-
"Euskal Akademiaren literatur Batzordea". *Euskera-Separata*.

Federico Krutwig Jaunak buruturiko separataz ari gatzaizkizue. "Euskera" aldizkarian bere barruan 81. urteari

dagokio eta bigarren aletzat argitara eman du Federicoren lana.



Lanaren helburua "Kultur Demurgoren saila" azaltzea da, baina berarekin batera, Federicok hainbat helburu eta ideia biltzen du bai Kulturaz, bai Euskaraz, Euskal Herriaz eta hiruron superbibentziatz.

Lana nolabait, azaltzearen, hona egilearen bi asmo. Lehenak liburuak subentzionatzea eta zaintzea ditu helburutzat, honelaxe:

- 1.- Subentzionatzeotan, 150.000 karakter baino gehiago duen idazlan izan behar, hau da, liburu izatea, lan unitario azken finean.
- 2.- Ez da subentzionatuko gramatikarik euskara ikasteko, ez erdaraz ezta euskaraz idatziak.
- 3.- Subentzionatuko den lanak, euskaraz egon behar izango du osorik.
- 4.- Ez da irakaskuntza mailakorik subentzionatuko, baizik literatur maila-

koa.

5.- Argitaralpenak 1500 edo 2000 ale izango gutxienez.

6.- Ez da luozko argitaralpenetan ateratako libururik subentzionatuko, baizik eta "paper-bag" delako mota horretan agerturiko liburuak.

7.- Ez da liburutzat hartuko, prentsa artikulua bilduma besterik ez dena, ezta literatur gutxiko lana edo txaskarrikoa.

8.- Ez da lan arrotzen itzulpenik subentzionatuko.

Bestalde, Lietratur Txapelketa guztiak kentzearen alde agertzen da Federico Krutwig Separata honetan, Euskal Herrian dagoen behe kultur maila aurreko asmoaren aitzakitatzat hartuz.

Badira lan honetan beste lau aipamen interesgarri:

1.- Euskaraz agertuko diren argitalpenak zenbakiturik joango dira, Italian egiten den bezalaxe, editoreek autoreen kalterako egin dezaketeen fraudea deusezteko.

2.- Autoreak liburuaren salmentaren o/o10a hartuko du gutxienez. Suedian, kasureko 16,6 o/o hartzen dute.

3.- Autoreak, bestalde, Gobernuak erosiko dizkion 500 aleetatik o/o45a hartuko du: salmentaren o/o10a eta libreroek hartzen duten o/o35a.

4.- Autoreak beregain izango du autore eskubideak oro, bai gainerako argitaralpenenez bai itzulpenenez.

Lurburu

ANAITASUNA

Erredakzio Kontseilua

I. Antiguiedad
J. I. Basterretxea
J. R. Bilbao
J. R. Egiluz
J. R. Etxebarria
J. M. Pastor
I. Saez

Idazle eta Lankideak

Esteban Agirre, Paulo Agirrebaltzategi, Iñaki Alvarez, J. L. Davant, Harotza, Miren Izagirre, Julen Kalzada, Karmelo Landa, Jesus Maria Larea, Xabier Portugal, Karlos Santiesteban, Bit-tor Uruga, Xabier Zorro-tza.

Abonamendu Txartela

Izena

Lanbidea

Adina

Tfona:

Helbidea

Herria

Probintzia

Aurrezki kutxa
edo Bankua

Sukurtsala

Kontu edo libretaren
zenbakia

ANAITASUNA

Zabalbide 68
Posta-Kutxa 495
Bilbo-6. Tfnoa.:
(94) 411 66 20

XABIER VIÑADER: IKER ETA SALU KAZETARITZAN MILITANTE

Kazetaritzaren munduan kazetari izateko aukera zabala dagoela errez ikus dezakegu gure inguruari so eginez gero. Badira komunikabide oportunistak, ofizialistak, independenteak eta faszistak munduan zehar. Bada ere, nahiz eta gutxien entzuten dena izan, iker eta salu kazetaritza, zeinek arazoak, bizimoduak eta egoera ezberdinak argitu nahi bait lituzke. Horretan dugu partaide Xabier Viñader katalar kazetari. Famatu agin zaigu oraintsu talde parapolizial eta faszistek Espainiako polizia politikarekin dituzten hartuemanak salatuz, baina aurretik bere lana agina du arlo horretan eta beste zenbaitetan. Hortik abiatzen gara artikuluxka honetan.





Xabier Viñader-i, gaztetatik dator kion lana da kazetaritza. Berak dioskunez, hamasei urte inguru zituelarik hasi zen lan honetan. Dena dep, ugariak izan dira ordutik hona emandako urratsak eta zehazteko hona beraren hitzak: "Praka laburretan hasi nuen kazetariarena egiten. Hamasei urte nituelarik Sabadell-eko "Radio Juventud" horretan sartu nintzen. Orduko programa, musikari buruzkoa zen".

"Gent com nosaltres" zen aipatutako programaren izenburua, erabat kulturala, "nova canço catalana"-ri eskeintzen genion lekurik handiena irratsaio kultural honetan. Raimon eta abar sartuz pixkat debekaturik zeuden kantariak irratitik indartzen genituen. Euskaldunek ere bazuten tokirik plataforma haretan. Oraindik gogoratzen naiz izen batzuetaz: Lurdes Iriondo, Xabier Lete eta abar." - dio.

Irratsaio honen ostean beste bat etorri zen Sabadell-eko irrati honetan. Che-Gevara-ri eskeinitako abesti batek zabalzten zuen programa eta batera metraileta errafaga bat entzuten zen.

Horrela aritu zen urte bitan zehar, poliziak irratsaio hura entzun artean eta hasieraz jabetu artean.

"Bitartean - dio Xabierrek zehaztasunak eman guraz -, kazetaritza ikastera joan nintzen eta "Gazeta Universitaria"-n hartzen dut parte. OPUSekoa zen kazeta hura baina gorriteria osoa sartu zen; aldizkariak beste ifar bat hartuz joan zen ordutik aurrera. Sarri sartzen genituen poliziak jendeari jotzen ari zelarik egindako argazkiak eta abar. Hala eta guztiz ere, denbora gutxi berru hamabost espediente sartu zizkiguten." Hauxe da Viñader-ek kazetaritza konprometatuarekin duen lehen hartuemana. 69an atzerrira bidaltzen dute, orduko leader unibertsitarioekin zenbait elkarrizketa egiteko asmotan. Handik aurrera, Tele-Expres, La Vanguardia, Europa Press, Diario de Sabadell eta beste zenbait egunkari eta aldizkari hartu zuen parte.

Mundo Diario-n eman zituen beste urte bi, 74 eta 75 hain zuzen. "Nire lana lanaren saila zen egunkari hartan. Aldi honetan eman ziren azken hauteskunde sindikalak, Puy Antich-en ejekuzioa eta berari egin zioten gerra-kontseilua".

Mundo Diario honetan hasi zen, bestalde, faszisten ekintzez jabetzen eta haietaz zerbait idazten. Beharbada orain Viñader gehien ezagutzen dugun arloa izango da aipaturiko gai hori: "Mundo Diarion idatzi nuen lehenbizikoz faszistek buruz. Sarri ematen ziren erreketak arraroak eta palizak langile borrokalarietara, baina ekintzen erantzuleak ez ziren inoiz agertzen, poliziak ez zituen aurkitzen. Hori zela eta, Sabadell eta Vallés inguruan "Guardia de Franco"-tarrek egindako hainbat astinaldiri buruzko erreportai bat idatzi nuen".

Lan horretatik etorri zitzaion espezializazioa Xabier Viñader-i: "Hortik aurrera egunkariak bidaltzen ninduen hainbat tokitara hortaz zerbati argitzeko. Portugalen, Apirilaren 25eko iraultza ematen denean, ni hantxe nago Mundok aurkeztuta. Matxinada egin ondoren neu izan nintzen PIDE (Polaria Politika) horren artxibo izkutueta lehenengoz sartu zen kazetaria. Nahi nuen bezain beste begiratu eta arakatu egin ahal izan nuen handik eta hainbat materiale lortu Europako Faszismoaz;

— "Ros-ek emandako informazio guztia biltzen joan nintzen eta zenbait artikulutan agertzeko nintzen, baina haietariko lehena baizik ezin ahal izan da argitaratu: Infiltratu baten deklarazioak "izenekoa."

— "Artikulu famatu haretan talde parapoliziak horiek zuten hainbat asmo eta plan agertu nuen, kasurako Telesforo Monzon hiltzeko zutena eta abar."



eta Espainiakoak gainerako herrialdeetan ematen denekin zituen erlazioei buruz ere zenbait, INTERPOL buruzkoak ere agertu ziren artxiboetan."

Portugalen izan ondoren, 3 hilabeterako bidaltzen dute egunkarikoek Italiara. Erroman PCiren artxiboak arakatzeko dituzte eta il Guda Nagusitik hona Komunistek Faszistek buruz lortu duten materiale osoa, bere esku izan zuen Internazional Beltzari buruz hainbat dokumentu lortuz.

"Arren izeneko aldizkaria sortzen da Catalunya-n "Cambio 16"-en antzeko zerbati egiteko, baina katalanera eta ezkertiar ikuspegi batetik zuzendua. Asmo horrek oso bizitza laburra du: urtebete edo urte eta erdi gutxi gora behera. Asmo horretatik "Primera Plana" izenekora joaten naiz lanera. Gerorako "Entreviu" k Primera Plana erosten du eta ni haren lan-plantilara pasatu nintzen."

Entreviu-n sar berri zenean serratatu zen "El Papus" kasua (lehergailu bat jarriz hango atezaina hil zuten faszistek). "Poliziek ez zuten deus egiten eta beste lankideak eta ni lanean hasi ginen ekintzaren erantzuleak aurkitzeko. Geuk atera genituen arantzuleen



— “Poliziek ez zuten deus egiten eta beste lankideek eta ni lanean hasi ginen EL PAPUS-i egin zioten atentatua argitzeko. Geuk atera genituen erantzuleen izenak poliziak ezer jakin aurretik. Hori zela eta polizia lan egitera bultzatu genuen”.

izenak poliziak ezer jakin aurretik. Hori zela eta polizia lan egitera bultzatu genuen.”

Baina Ros-en deklarazioak izan ziren Viñader gehien famatu dituztenak. “Primera Plana”ren aldian Euskal Herrira etorria zen Xabier burruka armatuari buruzko artikulua eta ikerkuntzak burutzeko. Hori zela eta bere etxe berrikoek, Interviu-koek hain zuzen, Euskal Herrira bidali zuten hortaz arduratzeko. Hona etorri ondoren Ros izeneko poliziarekin hasi zen harremanetan, eta harreman horietatik zazpi urtetako gartzela eta hogeit mila milioitako indemnitazioak atera zaizkio Viñader-i, eta, exilioa Poliziohiari.

Ros-en kasua nahiko harrigarri gertatu zen. Berez, faszista ezik errebisionista omen zen Ros eta beraren asmoa polizi elkarte barrutik konpontzea zen; baina han sartu ondoren, beste bide batzutatik abiatzera bultzatu zuten. Makina gauza arraro ezagutu zuen poliziaren barruan, Viñader-i kontaktatu zizkionak eta argitaratzean tiro batzua hartzera lagundu ziotenak.

Ros, hona etorri eta gero, bertoko neska batekin maitemintzen delarik,

— “Nova Canço catalana-ri ematen genion lekuri handiena irratsaio kultural honetan Raimon eta abat sartuz, pixkat debekaturik zeuden kantariak irratitik indartzen genituen.”

lehengo arazoetan sartu zen. Kapitainak ez baitzuen onartzen horrelakorik bere konpainian. Neskak ere arazo latzak izan zituen eta etxea utzi beharrik Ros-ekin joan zen apartamendu batetara, elkarrekin bizitzera. Ros-en kapitainak sarri bidali zion etxera psikologo bat, neska urduri jartzeko eta Ros abandonatzea. Baina, arazoa ez zen horrela konpondu eta biek seme bat izatea erabaki zuten, nahiz eta ezkondu egon ez. Kapitaina gogorrago jarri zen eta Ros lehertu egin zen polizian baja eskatuz; eta prentsari (uler Xabier-i) polizia eta faszisten artean zegoen hainbat konexio aipatu zizkion.

“Hona deitu zuenean - dio Viñader-ek -, ez zuen dirurik eskatu informazioa ematearen truke, baizik eta beste lan bat poliziarrena abandonatzen baitzuen. Deitu zigunean, Euskal Herrian ematen ziren buruhilketa arraro batzuri buruzko informazioa zuela esan zuen. Berehala jarri ginen harremanetan eta eskuin muturrekoei buruzko datuak jaso genituen. Interviu-k kazetari bidaltzen ditu, baina hauek ez dute ezer egiten bildurtzen baitira eta hanka egiten dute Euskal Herriak. Hori ikusirik neu

bidaltzeko naute informazio hori jasotzeko. Ros-ekin hizketan hasi ondoren, egun batetan bahitzen dute eta Artxandan tiro bat ematen diote faszistek”. hori jasotzeko. Ros-ekin hizketan hasi ondoren, egun batetan bahitzen dute eta Artxandan tiro bat ematen diote faszistek.”

Tiroen arazoia sinplea zen, azken batzarretara, faszistek eta poliziak elkarrekin egiten zituzten batzarretara hain zuzen, kaxeta txiki eta argazki makina batekin joan zen han bilduriko guztia Viñader-i azalduz eta honek argitara emanez, bai argazkiak eta bai hainbat izen propio. Informazio hori argitara eman ondoren jaso zituen tiroak Ros-ek Hasieran prentsak ETakoak izan zirela esan zuen, baina egia esan, Ros-en lagunok izan ziren Artxandara eraman zutenak.

“Ros-ek emandako informazio guztia biltzen joan nintzen eta zenbait artikulutan agertzeko nintzen, baina haierariko lehena baizik ezin ahal izan da argitaratu: “Infiltratu baten deklarazioak” izenekoa. Artikulu horretan talde parapolizial horiek zuten hainbat asmo eta plan agertu nuen, kasurako Telesforo Monzon hiltzeko zutena eta abar. “ Deklarazio hauek guztiz mingarri zitezkeelakotan, notari batengan eraman zuen Ros eta grabaturiko zinta eta beste materialearen jabe eta erantzule gisa aurkeztu zuen Ros notariaren aurrean, Ros-ek dena onartzen zuelarik. “Berak, Ros-ek, dena onartzen zuen, polizia garbitzea edo nahi omen zuen” - dio Xabier-ek.

Deklarazio horiek agertu eta aste baten barru kazetariak argitaratutako norbait hila gelditzen da atentatu baten ondorioaz. “Hau eman zenean, enpresa beldurtu egin zen eta Afganistanera bidaltzen naute hiru hilebetetan Kabulgo egoera aztertzeko”. Enpresak errege egunean bidali zuen Viñader Kabul-a, bezperan lehen atentatua izan zen; Jesús Garcia-ri egin zioten. Hortik hasita beste zenbait atentatu izan ziren faszisten aurka. Hau honela, Interviu ren aurkako kanpaina gertatzen da. Aldizkaria bera erruduntzat hartuz.

Hau guztiau gertatzen zen bitartean, Viñader Afganistan-en zegoen eta ez zuen berririk hartu. Bartzelonarantz abiatzen zela, Erroman aurkitzen zelarrik, Interviu-ra deitu eta jazotako guztia berri jaso zuen. Ezin zuen egoera horretan Estatura bihurtu eta urte batzuek European zehar mugitu zen, enpresak beste lan batzutura dedikatu baitzuen. “Erroma, Paris, Londres eta Suedian zehar aritu nintzen artikulua handik bidaliz eta ezinez izenpetuz. Bitartean, Ros auzitegira aurkeztu zen eta sei hilabetetan Carabanchel-a sartu zu-

ten. Zortzirehun mila pezetako fidantza ordaindu ondoren kaleratu zen 1980. urteko udaberrian. "Baina gauzak ez ziren horrela baretu, zeren fatxek nire etxea asaltatzen baitute eta nik nuen hainbat materiale osten didate, nahiz eta berek nahi zutena aurkitu ez. Kazetari-materialearekin batera etxeako tehebista eta zenbait haltzari eman zituzten."

Udaldi horretan justizi ministroa aldatzen da Madrilen eta, ministro berriak, Madrilen agertzeko esaten dio, gauzak zuzendu nahi baitzuen. "80. aren abenduan sartu nintzen ilegalki Espainian eta Audientzian azaltzen dut neure burua komisaldegitik agertu gabe, nik bainekian komisaldegietan suertatzen ziren akzidenteetat zenbait gauza."

Horren ondoren gartzelaratzen dute Viñader eta sei egun Carabanchelen eman ondoren, Interviuk miloi eta erdiko saria ordainduz kazetaria kalera-tzen du. Askatasun probisionalean gelditu zen Viñader epaiketa eguna agertu arte.

"Honekin batera - dio Xabierrek - poliziek Barakaldon ETA(m)eko komandoaren batzu arrapatzen ditu eta nirekin erlaziorik izan dutela esatera bultzatzen dute jendea.

Puntu honetara helduz galdera bat botatzen diogu Viñader-i: Baina, prentsa zerbitzu publiko izanik, zergatik erre-presio hau zure aurka? "Zerbitzu publiko izango da, baina zerbait beti duzu debekaturik, kasurako, Estatu-Terrorismoa azaltzea nahi baldin baduzu arazo gorriak dituzu beti. Niri etorri zitzaidan kondena, Estatu-Terrorismoa aipatzeagatik izan da. Konstituzioan aipatzen da adierazpen-askatasunari buruzko zerbait, baina benetako ordua datorrenean, atzera botatzen dute eta sudur azpitik pasatuz, kolpeak zabaltzen hasten dira."

Interviuko, kazetariaren gainean, lehen aipa bezalaxe, zazpi urteko gartzelaldia eta hogeitaz mila isuna dau-de. Baina hau, berak dioskunez, aidean dago zeren zigorra, egoera politikoaren arabera izango baita: Madrildo Gobernuak eskuinerago jotzen baldin badu, akabo, gureak egin du; baina gauzak baretu edo estabilizatzen baldin badira, posibleago izango da arazo honi irtenbide ematea.

Viñader-en akusazioan aldaketak eman dira denbora pasatuala.

Lehenengo kargua: "Nik, egia esan, gai hau aipatu nuenean, ez zen horrelakorik egiteko baizik eta denuntzia bat zelako, hau da, FOPEko morroi batek bere burua argitzea nahi zuelako eta gugana agertu zelako.

Nik, Barakaldora joan nintzenean,



gauza bat ikusi nuen argi, zera: handik jenderik gehienak bazekitela taberna ba-koitza norena zen, faszistak non batzen ziren eta non ez, nik emandako datuak ez dira nik asmatuikoak edo neuk bakarrik ditudanak, herriaren kontzientzian daudenak baino."

Arazoak horrela, Viñader-en ustez, berak egindako lana, hots, inestigazio eta denuntzia-kazetaritza, guztiz positibo dela ikusten da: "Nik uste, horrelako datuak zure eskuetara heltzen direnean, frogatu egin behar dituzu eta benetakoak badira argitaratzea da zure lana. Baina gertatzen dena, zera da: zuk argitarakoak ez duela ezertarako balio zeren legetik at aurkitu dituzue-nentzat izan beharrean, eta egoera konpondu nahi beharrean, zigorra zuregana erortzen baita, hau da, salatuaren gainean baino salatzailearen gainean. Nire, egia esan, kazetaritza - mota hau sano nean baino salatzailearen gainean. Niri, elkarrizketak. Nire lana opzio politiko nean baino salatzailearen gainean. Niri, egia esan, kazetaritza - mota hau sano gustatzen zait, bestela Lola Flores eta beraren modukoei egingo nezaiozkeen elkarrizketak. Nire lana opzio politiko baten antzera da; nik ez dut nahi mahai-kazetaritza, etxean gelditzekoa eta kubalibreekin edo korbatarekin egiten den kazetaritza, nik mota hau nahi dut eta hortxe nago."

Elkarrizketa aurrera doa eta beste zenbait puntu gelditzen da gure karteran. Euskal Herria bera dugu orain mintzagai. "Nirentzako izugarritzako nahaste-borrastea da. Nire ustez Gobernu Zentralak ez du benetako gogorik arazoa

aztertzeko eta irtenbiderik proposatzeko. Borroka armatuak Euskal Herrian polizial ez den beste irtenbideren bat behar du".

Viñader-ek ez lituzke zaku berean ezarriko ETako gudariak eta Faszisten aldeko batailoetakoak, baina hala eta guztiz ere "...bai Gobernuak da burrukamota horren erantzule bakarra. Arazoak irtenbide politikoa behar du eta ez militarra".

Amaitzeko berriz bihurtzen gara bere egoerarentz, bera baita azken finean elkarrizketaren helburua. "Begira ni in-munizaturik aurkitzen naiz dagoeneko. Makina bat anonimo eta dei hartu dut nere etxean eta ez naiz horregatik bel-durtzen. Nahiko ongi ezagutzen ditut eskuindarrak." Aurrera jarraituz bere lankideei eskerrak ematen dizkie: "Ni gaur kanpoan baldin banago, kazetari-erakutsi duten elkartasunagatik izan da, baina onena zera da: taxi bat hartzen duzunean edo egunkaria erostera hurbil-tzen zarenean, langileek esaten dizutena da: "zurekin gaituzu" esaten didate-nean nik egindako lanak zerbaiterako balio izan duela ikusten dut".

Dagoenekoz bukatzen dugu elkar-ritzeta baina aurretik kazetaritza-fakul-tateetan ematen den arazo bat gogor-tzen digu: "Toki hauetan ikasleek ez dute deus ere ikasten, ematen dizkieten gaiak ez dute ia zerkusirik benetako kazetaritza, kanpoan egin behar den kazetaritza. Eta, handik ateratzen dire-nean, inork ez du ikaslerik kontratatzen.

Idazkuntza
J.I. Basterretxea

ASKATASUN ARRANOAREN URTEHURRENEAN

"Ez dugu beldurrik, ez dugu lotsarik, nor geran, zer geran aitortzeko". Zoritxarrez hau ez da egia gure Euskal Herri zaharreen. Batzuk bildurrez gaude zer geran eta nor geran argi ta garbi azaltzeko besteen aurrean. Denborak aldatu dira, edo aldatu erazi ditugu. Baina batzuetan hala ere zure abestiak airean entzuten dira bere gutuna zabaltzen.


"Hi gudari, herriko zaindari, Gernikako sua begietan argi". - Urruti dago Gernikako sua euskaldun askorentzat, beren sustraiak, beren odola saldu duten euskaldunentzako. Otsoa pozik dago ardiak sakabanatuak ikusten. Eta zer gehiago nahi du?

"Euskaldunak banan banan hiltzea, otso beltzak ez du beste nahirik". - Ez, ederki esan zenuen bezala, ez du beste nahirik, eta euskaldunak ari gera bere nahia errezten, gure heriotza aurrertzen, artalde utsiz eta bakoitzak bere bidea hartuz.

"Ez gaituk lapurrak, ez eta zakurrak kataiaz loturik ibiltzeko; Gizonak bagera jo zagun aurrera gure herriaren jabe egin arte; Askatasunaren hegala azpian kabia egiten ohituak gare; Aspal-di ibiltzen ikasia dugu otsoa eskutik hartu gabe". - Ai ene!, zenbat kate eta zenbat odol daukagu gaurko Euskal Herriari. Ez, ez gera lapurrak, ezta ere txakurrak, baina danok daukagu kate bat zintzilik. Puerton, Sorian, Carabanchelen, Nanclaresen, daudenak (presoak Espainian), eta Euskal Herriko etxe, kale, taberna eta eskoletan ibiltzen garen euskaldunok ere.

Ez dakit oso gizonak garen gure etsaiek ematen dizkiguten apurrak hartzeko belaunikoak jartzen garenean; Ez dakit oso euskaldunak geran erdaldunek gure ama euskerari egiten dizkioten isoka eta mezpresuak ikustean, begiak izten ditugunean; Ez dakit zainetan odolarik degun gure anai-arrebak, gure seme-alabak, gure gurasoak, gure neska-mutilak... erahilak, zaurituak, espetxeratuak, herbesteratuak, bortxatuak, zigortuak, jarraituak, makurituak, odolatuak... sumatzen ez ditugunean.

Hala ere noizbait gure herriaren jabeak izango gerala sinisten dut, sinistu egin nahi dut. Eta oso urruti ez dagoen egun zoriotsu batetan aska-



tasunaren irrintzia mendiz mendi, ibarraz ibarra, herriz herri, ahoz aho entzungo da. Gure herriari bere orduan iritsiko zaio ere. Zergatik ez?

"Borrokari luza zaidak eskua, huna hemen nerea zabalik". - Bai borrokarietako, gudarietako, zure eskua zabalik egon da beti, gure herriaren borrokari ez diozu sekula ezetz esan; Eta hauxe da batzuek inoiz barkatu ez dizutena.

Zu izan zinen euskaldun gizaldi baten izarra, bere norabidea, bere abertzaletasunaren ikurrina.

Zu izan zera, baserrietako gure aitona-amonen moduan, gure herriko ipuinak eta eginkizunak kontatu dizkiguzuna. Gure sustraietara eramane gaituzuna.

Eta orain gure artean ez zaudenik, nahiz eta zure oroimen bizi bizirik egon, suaren ondoan, ipuin eder eta atsegin bat kontatuz, dagoen aitona bezela gogoratzen zaitut.

- Joan da gure herriko arrano zaharra, joan da gure aitona maitia, euskaldun sutsua, abertzale amorratua, euskalzale aspergabea, gizona zintzoa, baina arranoaren itzala oso zabala da, zabalegia, Euskal Herriaren etsaiak sinis-

ten dutena baino askoz haundiagoak, eta edozein egunean zoriontasuna itzuliko da betiko. "nola dantzatuko denok belaunikaturik" egun zoriotsu hortan.

"Gerokoak geroko utzi, uan herriak zio nahi diat bizi". - Bai gure herriak bizi behar du, bizi erazi degu. Gerokoan bideak biderkatuko dira, baina gaur "abertzale izan ezker, gauden denok anai" Hori da bide bakarra.

Gure batasunaren egaliz, burujabetasuna lortuko dugu, gure hizkuntza nazionala dagokion lekua jarriko dugu, eta aberriatik bidaliko dugu otsoa betiko.

Egun haundi hortan, altare bat eraikiko dizugu Gernikako Arbolaren azpian, eta zure izena nahastu dadin. Eta txalapartaren doinua entzungo da bazter urrunetan, gure mendi gailurretan berpizkundearen sua pizten doinua entzungo da bazter urrunetan, gure mendi gailurretan berpizkundearen sua pizten degun bitartean. Eta egun zoriotsu hortan ere, malko eta negarren artean, baso bat txanpaina edango dut zure oroimenez.

Agur Monzon! Garaipena arte!

Karlos Barrenetsoro

EUSKARA MAILAKA:

Eskola eta gaueskoletarako euskalduntze metodologia

Egileek eskola eta instituetarako buruturik egin arren beste zenbait aplikazio baduela esan digu metodoaren egileetarik bat den Joxe Eizerbengoak. Orain arte agertu den materialea hauxe dugu: Liburutan zero mailatik laugarren mailaraino, hau da, eskolako lehen ziklotik hasi eta BUPeko bigarrenaraino. Kazeta eta diapositibatan, aurreko testuei lagundu guraz; aurten agertuko dira hirugarren mailaraino. Dena den, COUra arte jarraitu nahi da pedagogia honetan.

Euskara Mailaka metodologiak proposatzen duen programakuntza logikoa eta ez gehiegi suertatzen da, baina punturik nabarmenena den dena praktikan frogatu eta erreparatu dela da. Ez da, egia esan, programakuntza ambiziozuegia, pausuak nahiko ziklikoak dira eta egoerarik sailena, azken arazoa finean, mintzetzen noiz hasi behar luketeen finkatzea litzateke, noski. Egileen iritziz O.H.O.ko mailak bukatu ondoren $0/25-30$ ek mintzatzeko ahalmena lukete.

Euskararen kasuan, Latinarekin jazo jazo ez dakigun, klase sailkaturik doa eta mementu ezberdinak daude aldi horretan, uneetariko batetan, ikasleak mintzatu beharra aurkitzen du.

Lehen zikloan (OHO 1-5) egunero 45 minututako klasea hartu behar dute klase ikasleek. Bigarren zikloan (OHO 6-8) lau ordu beteko dituzte astean, dena den, Joxeren usten, azken ziklo honetan nahiko gutxi gertatzen da ikastaldi hau. Irtenbidea, "Euskara Mailaka" euskalduntzegintza taldekoen ustez, lehen urteetan asignatura izatetik, gero, gaiak euskaraz ematera pasatzea litzateke, hots, euskara asignatura izatetik elebitasun zikloetara bultzatuz joan behar da.

Hasieran esan bezala, haurrentzat egina baldin badago ere, programakuntza honek nagusientzako baliagarri gerta daitekeela esan behar da. Hiztegiaren aldetik zenbait adaptazio egin behar, baina baliagarriak suerta daitekeela esaten digute egileek.


Eskola hasi hasieratik eta COUrainoko programakuntza eskuratu nahi lukeen honek aurretik aipa materialetik at, testu liburu, ariketa liburu, zinta eta

EUSKARA MAILAKA

4

Metodologia

Salleko euskal idazleen elkarte (seie)



filminetatik kando. 30 liburuxka argitaratu nahi dituzte metodologiak izango dituen bost maileri laguntzeko. Testuok irakurgaiak, alegiak eta ipuinak dira, metodoarekin batera doazelak, alegia. Metodoak ematen dituen pauso berberak eman ditu liburugintzak eta honela sailkaturik daude testuok: "Euskara Mailaka 0" honi laguntzeko, eskolako lehen bi urteetarako hain zuzen, lau liburuxka dira. Beste mailetan Euskara Mailaka maila bakoitzari sei dagozkio, maila hauek ere bi urterik urte supera behar direnak dira. Beste zenbait ere izango dira, baina hauek ez diote hain estu oratuko Euskara Mailakaren progra-

makuntzari. Besteak, hauek izan ezin, metodoko edukiekin batera doaz.

Banatu hiru banatzailek banatzen dute materiale hau: Mensajerok, Elkarreke eta EdiNortek. 49 ikastetxek erabiltzen omen dute metodologia hau, gehienak toki pribatu eta erlijiosoak baldin badira ere zenbait akademia eta eskola publikoetan aurki daiteke Euskara Mailaka programakuntza hau.

Pozik izan daitezke haurrak euskalduntze lanean ari diren irakasleak metodologi oso hau plazan aurki dezake teenean.

J. Begiristain

BILBOKO HERRI IRRATIA ETA EUSKARA


Duela astebete, egunkarietan berri pozgarri bat irakur genezakeen: Euskal Gobernuak, bere Kultur Sailaren bidez, irratiei halako diru-laguntza oparoa eskaintzen ziela, horrela beren euskarazko irratsaioak gehi zitzaizen.

Euskal Telebistarik ezean, egia esan, ba genuen euskaldunok irratizko euskal ekitaldien beharrezanik eta eskertu eta txalotzekoa da, zalantzarik gabe, gure kultur arduradunen pausoa. Ene ustez, aspaldion lan ederra egiten dihardu Labayenek bere ekipoekin.

Hala eta guztiz ere, gogoeta batzu egin nahi nituzke laguntasun horren gainean. Hasteko, begien aurrean eduki behar dugu emandako dirua diru publikoa dela eta horren erabileraz ere, jakina, kontu publikoak eman beharra dagoela. Irrati bati euskarazko saioak gehitzeko laguntasuna ematea bidezkoa da, noski, baina iruditzen zaidanez, emate horrek aurretik zenbait gutxienezko baldintza eta atzetik beroriek zintzoki bete ote diren aztertzea zehaztu behar-ko lituzke.

Irrati bakoitzak bere jokabide ideologiko berezia duela kontutan harturik, ez litzateke egoki, jakina, Euskal Gobernuak irratiei beren euskarazko programetan **zer esan** beharko luketen eskatzea. Bai ordea, **orain arte eman ez direnak** finantziatzeko denez gero, **zer eratako** saioak (musika, kultura, kirolazkoak, berriematekoak etab.) eta **no-lako profesionalz moldatuak** beharko liratekeen seinalatzea. Zeren dirua euskara eta beronen bidezko komunikabidea bultzatzearen ematen baldin bada, ba dirudi euskaraz mintzatzeko eta euskal programa horiek idazteko ardura dutenek nolabaiteko garantia eduki beharko luketela, guztion poltsikotiko dirua edozeini mosu-truk erregalatzen zaiola pentsa dezagun nahi ez bada behintzat.

Irakaskuntzaren alorrean, esaterako, bai euskara eta bai euskaraz eskolak emateko, irakasleoi ez zaigu aspaldidanik borondate onik eskatzen, euskaraz ongi dakigulako examina, titulu edo agiri egokia baizik, horrek ez bestek garantiza baitezake, soilki, horretarako gaitasuna. Hori gabe ez da inoren eskuetan uzten euskal asignaturen ardura.



Irratien erantzunkizuna

Gauza jakina da irakaskuntzarekin batera komunikabideek (eta administrazioak) hizkuntzaren finkapenean zer nolako garrantzia duten. Askoren aburuz, gainera, gaur egun, komunikabideek arlo horretan irakaskuntzari aurea hartuko liokete, haurrek hizkuntza hobeki ikasten baitute telebistaz eskolaz baino. Guk ez dugu oraindik - noiz arte! - telebistarik, baina irratia bai, eta beronen eragina ez da, ez eta hurrik eman ere, hain txikia.

Eta zer garantia dugu gure irratietan ari direnak, euskarari doakionean, pertsona egokiak direla? Eskola-ikastolako irakasleei bezala euskara ongi dakitelako agiririk inork eskatu al die inoiz? Kazetaritza-estudiorik egin al du te gehienek? Eta horretara ez bada, no-la eskain dakieke lagun horien eskuetan dauden irratiei halako laguntasunik txeketuritan gainera?

Bilboko Herri Irratiaren eskandalua

Kezka guztiok ez dira ene burutik halako beroaldiren batetan edo sortuak. Ondoei dakit, eta zilegi bekit horrela aitortzea, Gipuzkoako irratietan ba dela profesional talde ederra, urte askotan zehar beren euskal eta kazetal merituak ongi frogaturik dauzkana. Ez naiz horiez ari.

Bizkaian, ordea, ba dugu - ba dago, hobeki esan - irradi bat, Elizarena, Bilbo (H)erri Irratia deritzona (nola idatz ongi ez baitakit!), askoren ustez **Baseri Irratia** izena egokiroago lerramakeena. Eta irradi konkretu eta guztiz erreal horren aurrean, beraren euskarazko programen nolakotasun exkax eta baldresa, alde guztietatik darion baseritarkeri kutsua, euskara hiperbizkaitarra, joera antibatua eta hizlari batzuren mintzatzeko desegokitasun eta tonu harrigarria - Eguzkitza jauna honetan txapel-dun - kontutan harturik, ez dugu uste, zinez esanik, hor Euskal Gobernuak, hain asmo onean, diru publikoa sartzeko aski garantia daukanik.

Ba dira irradi horretan zenbait lagun, profesional ona izateaz batera euskaraz ere ongi dakien eta dagienik, baina irradi horren euskal programazioaren arduradun nagusia den Ander Manterola jaunak - eta aspaldiko partez, gu baino zaharragoek exenplu emanik, ez dirudi bekatuaz batera bekataria bera ere salatzea hain barkaezina denik - hor diraien artean, ez du antzirik ematen gauzak zuzenduko direnik. Zeren, dakigunez, eta jakin ongi dakigu, Manterola jaunak - ez dakigu ordea berez ala apezpikuaren goragotiko aginduz, bere Irratian euskara batuan mintzatzeko galerazia baitu (omen gabe) eta horrexetarako, agindu hori zintzoki bete dadin, hain zuzen ere, Derioko Eskola, Deustuko Escuela Oficial de Idiomas, Euskerazaleak, Euskerazaintza eta giro hiperbizkaitarrista horren inguruko lagunak bildu ditu bertan, morroi leialak ez baitira soilki Donosti aldetik estimatzen.

Egoera konkretu honen aurrean, berriro galdetzen dut, irradi horretan diru publikoa, hileko 1.300.000 pta inguru, emateak zer garantia du? Dakienak erantzun diezat.

Xabier Kintanak



Bizkaiko bertsolarien aitarengana jo dugu oraingoan, Bizkaiko bertsolaritzaren bizkar-hezurra den familia honetako patriarkarengana.

Bertsolarien iloba; bertsolarien semea; bertsolaria; bertsolarien aita: Abel, Joseba Andoni, Moises, Jon, Libe; bertsolarien aitita seguruenetik. Gure historiaren zati bizia, gure nortasun atxekigaitz honen atal mitikoa. Hau guztiau den gizona, beste edonon eskuraezina, handigurea, hanpurutsua,... goratua, erabilia, lausengatua... izango litzateke. Hemen ez. Hemen, politikan erabiltzeko balio badu bai, bestela, hiltzen denean agian, orduan ere ez seguru.

Zorionez, ba dirudi, batekoagatik behintzat ez dela horrela gertatuko, eta Bilboko Arenalean AEK-k hiriko udalaren diru-laguntzaz antolatzen dituen bertsolari-saioretan toki bat izango duela Balendinek eta ondo merezia duen omenaldia egingo zaiola.

Hau dela eta, beregan jo dugu eta elkarrizketa luzea izan. Luzeegi gertatzen zela ikusiz, pena eman digu parte batzu argitaratu gabe uzteak eta zati bitan banatu dugu. Oraingo lehen parte honetan; Enbeitarren dinastiari dagokiona dakarkizugu eta hurrengorako, bertsolaritzari lotuak dauden zenbait gairi buruzko (lehengo-gaurko bertsolaritzaz, Bizkaia-Gipuzkoa, jaio-egin, txapelketak, bertso idatziak, eta abar) Balendinen eritziak utzi ditugu.

Grabatutakoaren transkripzioa egiterakoan zalantza gogor bat izan dugu: nolako euskara erabili. ANAITASUNA, Imanol Berriatuaren borondatez, eta, idazle eta irakurleen oneritziz Euskara Batuaren bidetik abiatu zen orain dela urte asko; gure elkarrizketa bizkaieraz egina dago.

Lehen parte honen amaieran frogatu izango duzunez, Balendinen aldetik ez dago bat ere eragozpenik Euskara Batuan jartzeko, baina guri, pena ematen zigun hain euskara bizia, normalean idazterakoan erabiltzen dugun "kortse" barruan sartzea. Uste dugu, batekoagatik behintzat, ANAITASUNAren irakurleorrek, parkatuko diguzula transgresioa. Eta beste barik, has gaitezen Enbeitatarren familiarekin.

BALENDIN ENBEITA: URRETXINDOR KUMEA (1)



ENBEITARRAK: JOSE ANTONIO
"TXOTXOJEURI" (1848 - 1928)

ANAIT.- Nondik etorkon zure aitti-
tteri "Txotxojeuri" ezizena

Balendin.- Hamazazpi urtekin ezkondu
zan, eta ezkontza ondoan elizpera ur-
ten-ebanean bere mutiko gazte- lagunak
desafio bota pelotan gura badau jokatu,
eta han joan zan eta partidua irabazi.
Orduan, aitagarrebak esan: *ai txotxo,*
txotxo, andrea hartu dok ezkonduaz
eta hemen itzita txotxo-mutikoakin pe-
lotan joaz?. Hi beti izango haz txotxo.
Eta hil artean, "Txotxojeuri" izan zan
ha.

Omenaldi hau eratua zan txindor ku-
mearentzako baina larregi erizten dau-
tsat txori txiki batentzako.

Baina aittitte historia handietako
morroia da. Hamazortzi urtegaz alargun-
du egin zan, gero hemeretzi urte aurre-
tik Catalaunya-ra joan eta han bost urte
egon, handin etorri eta gero gure amoma
Maria Renteria ezkondu, biak Muxi-
karrak eta hogetabost urtekoak.

Herrian sei urtetan alkate izandakoa
be ba da, gero karlistadan sargento pri-
mero... eskolea neuk baino gehiago eu-
kan, bere aitak Gernikara ibiltzen ebal-
ko lezino partikularrara, erderaz nik
baino hobeto ekian eta catalan be bai.
Aittitte nik neure nortasunagaz ezagu-
tu nebanean 70 bat urte eukiko ebazan,
eta nik 22 neukazala hil, 80 urtekin.
Taberna-gizona zan eta bertsolari ona.
Nik beragaz ikasi naben ikasi nabena.

MANUEL ENBEITA "GARBI-NAI"
(1884 - 1946)

ANAIT.- Zure aittitte izan zan familiako lehenengo bertsolaria ala bere aita be bertsolaria zan?

Balendin.- Bere aita *testularia* zan. Ba dakizu zer dan hori?

ANAIT.- Bai. Eta zure aittittek zenbat seme-alaba euki ebazan?

Balendin.- Zazpi, bi bertsolariak: nire aitte eta osaba Manuel.

Hau, aitte bera baizen bertsolari ona izan zan; lau puntukoetan aitte bera baino hobea baina ez eukan abestuteko abotsik bape eta belarria be txarra. Idazten fina, EUZKADI izparringiko etuskal ataleko idazkari-zuzendari moduan egon zan, CORAZON DE MARIA-n be idatzi eban, JAUNGOIKO-ZALE-n be bai... EUZKO-OLERKIAK aldizkarian ere *Euzkotar olerkariya* agertu zan 1930ean. Ikasia zan bera. Argentinan hamalau urte egin ebazan LAURAK-BAT alkartean eta handin etorrita gero be ikusi neban aittegaz etxean bertsotan. Aittek, aurrerago beragaz plaza ibiltzen zala esaten eban, baina abo-

KEPA ENBEITA
URRETXINDORRA" (1978 - 1942)

Muxikan jaioa, Usparitxa baserrian. Gure ustez, Enbeitatarren bertsolari-katearen mailarik ederrena, nolabait esateko. Bere bertsoak erraz heltzen ziren Herriaren bihotzera. Esan genezake, Bizkaiak eman duen bertsolaririk gorena izan dela. Eskolara oso gutxi joandakoa, Ariatza maisu barik gelditu bait zen, eta joan zenean ere denbora laburrerako, jasan-ezina bait zen beretzat ume euskaldunek hartzen zuten tratua: diotenatik, maisuak euskaraz egiten zuten umei ematen zien "eraztun" famatua eskolako teilatura bota eta amaitu zuela bere eskola-denbora. 1903an ezkondu zan Ibarruriko Mañasi Goiria-gaz eta osasuna zela eta urtero joaten zen Basteri-ra (Laguardia-Araba), Españaiko gerrak ere hantxe harrapatu zuen eta 1937 arte ezin izan zuen itzuli baserri-rra. Heriok, 1942.eko abenduaren 11n egin zion deia, bere sorleku maitean: Usparitxa baserrian

ANAIT.- Zure aitte zelakoa zan bertsotan?



Kepa Enbeita "Urretxindorra":
Euskerea eta Herria zan bere asmoa

papelak be asko idazten ebana. Baina hogetabost urte eukazala sariketa bat egon zen Algortan, giputzak eta bizkaitarren artean, Txirrita, Aizarna, eta beste batzuk, eta gure aittek atara eban lehenengo saria. Ordutik aurrera hasi izan plazan. Partiduak hartu eban beragaz, abertzale alderdiak, eta mitinetan ibiltzen zan. Euskerea eta Herria zan bere asmoa. Zera esaten eban: *zer balio dau eskoi zein ezkerra izan, gizon eta abertzale ez bada*; lehenengo gizon eta gero abertzale izan behar dauala euzkotar ona gura izatea gura dabenak.

ANAIT.- Eskuan daukot gaurko egutegiko orria eta, kasualidadez, zure aitten bertso ospetsu bat dator bertan. Zelan eta non kantatu eban bertso hau?

Balendin.- Oñatin. Mitin bi egozan, abertzaleen eta karlisten mitinak, ehun metroren diferentzian, eta, karlisten alderditik abade gazte bi etorri ziran abertzaleen mitina egoan lekura eta *Viva España* didarka hasi ziran. Gure aitte eta Etxaun (aittegaz sarri ibiltzen zan gipuzkoako bertsolari bat) egozan bertsolari moduan eta *itxaron, honeri neuk erantzungo deutset eta esanaz Etxaunerri, dio hau:*

tsik ez... Gure aittek eukan abotsagaz, tenor-liriko edo esaten jakonagaz ez eban altabozik behar izaten.

Balendin.- Hogetabost urterarte herrirako eta tabernarako bertsolaria, erreztasun eta zaletasun ikaragarrikkoa, bertso-



le, y decidieron regalarle por suscripción el caserío en que vivió"

Balendin.- Ez eutsen emon. Emon gura izan eutsen baina horren ugazabak (naparra zan, Iturria, 364 propiedade eukazana) ez eban gura saldu ezer, heurentzako deskreditua zala-ta. Se-meak, PNV-tik Elizondo-ko alkatea zanak, gura izan eban baina amak agintzen eban lez... Buenos Aires-en, gaur be, gure aitteri erregala egin eutsela ipintzen dau, baina ez, dirua emon eutsen, 10.000 pezeta, orduan diru handia. Anaia bizi gaur han, errentadore moduan. Baserri hori lehenago torrea izan zan, baina jausi egin zan orain dala 350 urte eta etxea Enbeitatarrek egin eben; ordutik hona ez da Enbeitatarren abizenik aldatu.

ANAIT.- Bertsolaritzaren historiari buruzko liburuetan sarri aitatzen da, atalen artean URRETXINDORRA — TXIRRITA denbora, baina zuen aitte eta Txirrita berdinak ziran bertso-egikeran?

Balnedin.- Ez, oso diferenteak. Txirrita ona zan, ez dot uste gaur Gipuzkoan

zan, herriagaitik, aberriagaitik, euske-reagaitik, alkartasunagaitik egiten eban, beti garbira jotzen. Bertsoa tabernatik plazara atara eta arda-usaina kendu eutsona gure aitte izan zan, eta hurrengo Baserri. Behin, Baserrigaz bertsoetan egin eta zera esan eustan *Zarautzen gazte bat ikusi dot eta harexek uste dot bertsoetan ondo egingo dauala*. Gure aittek emon eutsola bidea bertsoa tabernatik plazara atarateko esaten dau Basarrik.

ANAIT.- Olerkaria be ba zan, ez da?

Balendin.- Bai, olerki-sariketak lau lekutan atara eban, GURE HERRIA-n, Durangon, Baztanen... Gure aitek Don Juan Arrospeide-ri zor eutson asko. Honek, 50 urte egin ebazan Muxikan osalari. Sabin-en laguna zan eta alkarregaz jarri eben lehengoz ikurriña Sukarrietan.

Gure aitten bertsolari-klaserik ez dot euki neuk ikusi. Gaurregun bertsolariak ba dagoz, aitte zan besteko bertsolariak ba dagoz Bizkaian bertson (Gipuzkoan baino hobek gaurregun), Lopategi, semea (Jon), Amuriza... baina aittek eukan ha...

VIVA ESPAÑA diarka dagoz neuk bere VIVA dirausat gorrotorikan ez daualako nigandik España-rentzat. Katolikuak jakin dagigun zer dinon goiko Juezak: besteen gauzak bakean itzita zaindu berea bakotxak. Haugaitik VIVA dinot berriz be izan bedi España-rentzat, baita be dinot GORA EUZKADI geurea da-ta geuretzat.

Honetan aittek txispa ikaragarria eukan eta egikera berezia, horregaitik urretxindorraren ezizena: esan leike hegaz egin behar ebala. Azkana egitean hatzamarra jasoten eban eta bertsoa amaitu orduko hasten jakon herria txaloka.

ANAIT.- Zuen aitten datuen bila nabilela zera irakurri dot: "el centro Laurak-Bat tomó la iniciativa de rendir un homenaje a Embeita, a quien los habitantes de su pueblo habían hecho objeto de merecida glorificación cívica. El centro Laurak-Bat y otras asociaciones adheridas a la iniciativa tuvieron en consideración la humildad de Enbeita, su oficio de Labrador y su numerosa pro-



Ni ez nago H-ren kontra ez euskera batuaren kontra

BALENDIN ENBEITA

dagozen bertsolarietan haren hainakorik dagonik. Herrikoa zan, tabernakoa, sagardategikoa, esaten dan romantiko horretarikoa. Gure aitten jokera beste bat

Hona hemen gure protagonista. Noizbait hasi behar ginen beragaz eta hau da bere txanda. Elkarrizketa luzeegia geratzeko hau emateko aukera galdu

nahi; azkenean, irakurtzen ari zaren horrek esango duzu merezi zuenentz... ni behintzat, baietzean nago.

Balendin be, Usparitxan jaioa dogu, 1906an. Hauexek izan dira bere ikasketak:

Balendin.- Eskolara sei urtegaz hasi nintzan, Oka-ra, Pedro Ojanguren abadearen Euzko-Eskolan, gehiena euskeraz izaten zan. Urte bi egin eta gero etxera. Etxean, aitagaz, hortik eta hemetik... 16 urtekin ebanisteria batean hasi nintzan lanean eta gero Bilbora; han, lanetik urtetarakoan *Artes y Oficios*-etara joaten nintzan eta han ikasi naben eskola apur bat. Bertsotan? Aittittegaz ikasi naben. Esan duetsutan moduan, gure aittitte taberna-gizona zan, eta han hasi nintzen abestuten 13-14 urtegaz. Tabernatik aparte nire lehenengo urtealdia Eibarren izan zan, 18 urtegaz, gero, aitegaz eta Esteban Uriarte Arratiarragaz hor ibiltzen ginan, mitinetan eta, musika luzean, zazpi, zortzi, bederatzia puntuatzen. 23 urte neukazala sariketa bat egon zan Mungian, Bizkaiko Txapelketa lez: Uriarte, Gondra, Kastrejana, Algortako "Mario Lanza", Bartolo, Mungiako bat, eta lehenengo saria neuk atara naben. Hurrengo urtean, Algortan, beste sariketa bat egon zan eta orduan be neuk atara naben lehenengoa. Baina gero gerrak, espetxeak, hau eta besteak etorri ziran eta ia 40 urtean ixilik. Ondoren, txapelketak sortu baino lehenago Arantzazun hasi ginan (han ezagutu naben Mikel Zarate). Handik behingoa, R.M.Azkue-n omenaldia izan zan Bilbon, Coliseo Alban, eta Alfonso Irigoien-ek (Bizkaiko bertsolariak asko zor deutsoe Alfonso-ri; hau eta Nazario Oleaga hasi ziran hemen) eta horrek eroan nenduen horra. Hiru bertso abestu nebazan eta batean holan amaitu naben: *euskera behar bagendu ogi zuria jateko, handi ta txiki, zahar eta gazte, danak leukee ikasiko*, eta danari jausi jaken grazian. Hori 1955ean izan zan, eta A. Irigoien-ek *txapelketa bat sortu behar dogu* esan eban, eta 1958an egin zan Bilboko Arenalean Bizkaiko Lehenengo Txapelketea. 1959an barriz egin zan eta han be, aurreragoko urtean lez, neu gelditu nintzan lehenengo.

Idatzi ere, asko idatzitakoa da Balendin. Bere bertsoak euskal aldizkari gehienetan zehar aurki daitezke: EUZKADI, JAUNGOIKO-ZALE, JESUS-EN BIOTZAREN DEYA, ZERUKO ARGIA, ARANTZAZU, KARMENGO AMAREN EGUTEGIA, ARANTZAZUKO EGUTEGIA, GOIZ ARGI, KARMEL, EUSKERA, OLERTI, TXISTULARI, PRINCIPE DE VIANA. ANAITASUNA-n ere bai. Gure aldiz-

kari asko aldatu dela dio eta orain ere irakurtzen duela, harpideduna bait da. Ez du artikulorik idatzi, beti bertsoak. Behin, antzerki-lan bat ere egin zuen JESUS'EN BIZITZA izenekoa...

Balendin.- Hori bertsotan hasi baino lehenagokoa da. Muxika-n Gorozika-n, Mendata-n, Berritu-n, Ibarruri-n eta emon genduun. Bertsoz da dana.

Bertso-papelak be egin nituan, bi, solteru nintzala. Orduan, hemen, Aste-larre-ko misiolari batzuk egozan, eta dantza agarruan egitea pekatu zala, ezin leitekela egin... hortik urten eta erromeria, mutilak dantzarako neskai oratu eta neskak iges, baina handik hiru-lau aste barru atzera lehen lez. Nik honen gainean atara nituan kanta-papelak, baina gure aitte katolikotasunean eta erlijioan gogorra zan, ikaragarria, eta apurtu egin eustazan.

ANAIT.- Kantanten dozu orain?

Balendin.- Bai, oraindino ibiltzen gara.

ANAIT.- Gogoz?

Balendin.- Gogorik ez bagenuke ez gintzakez joango. Oraintsurengo Gipuzkoara joaten gara. Mattin-en hiletan be

BERTSOLARI-ESKOLA

Balendin-engaino, Enbeitarren bertsolari-katearen mailak bana-banaka datoz, baina hemen biderkatu egiten da lau, bost, sei edo batek daki zenbat adarretan, eta hau, Balendinek sortutako beste ekintza baten bitartez: Bertsolari-Eskola

Balendin.- Bizkaiko Bigarren Txapelketea egin zanean 1959an neu bakarrik nintzan Ariatzan bertsolari, besterik ez zan ikusten. Abestuten eta antxinako bertso zaharrak bai, horretarako berezko zaletasun ikaragarria egon da beti. Zapatu guztietan biltzen ginan eta hurrengorako gai bat jarri, eta bakotxak lau bertso atara. Gero alkarregaz bertsotan, temak ipinita. Idazkari eta guzti ibiltzen ginan: Pedro Mari Aldana, du nek, behar bada, gordeta eukiko dau hori dana. Ariatzako Fuenterrabia tabernan izaten zan, eta honexek etorten ginanak: neure seme Abel eta Jon, Deunoro Sardui, Pedro Ortuzar "Iturri", Jon Lopategi, Lumo-ko Basabe, Ireneo Ajuria, J.M. Sardui eta ni.

Gaurregun, Sarduitarrak eta Enbeitarak batzen gara, astero, Lamikiz-en.



Katea ez da apurtu

egon gara, Xalbadorenetan be bai. Iparraldera hainbat joan-etorri egin dogu, gero, bertako bertsolariak be eza-gunak doguz, gazteak Alkat, Mendiburu eta... nahiko onak dira, batez be Lapurdiko Xanpun, datorren urtean omenaldia izango dana. Jatorra da Xanpun.

JON ENBEITA

ANAIT.- Jon, eskola horren ondorioa da?

Balendin.- Bai, Jon hor hasi zan eta 9 urtegaz Zarautz-eko frontoian, Baserri, Uztapide eta nigaz abestu eban.

ANAIT.- Azken txapelketan bigarren urtetea sorpresa izan zan gehienentzat. Zuentzat?

Balendin.- Bertsolarien artean keja asko egon zan. Goiko bertsolariak ez eben gura txapelketarik, horregaitik ez ziran joan asko. Batzuk beti ebizen hegaletan. Guk ba genkien Jon-ek zelan egiten eban bertsoan. J.M.Iriondo-k txapelketara neu gura izan naben eroan, baina nik urte asko daukotazala orain eta parkatzeko esan neutson eta nire lekuan zergaitik ez eban ipintzen neure semea. Iriondok eta beste bertsolariak be ba ekien zelan egiten eban bertsoan Jon-ek, Mallabi-n eta Añorga-n lehenengo saria atara ebalako.

Orduan, Lamikiz-en, jo ta jo ta jo ta ibiltzen ginan bariku guztietan. Ez gendun uste bigarren geratuko zanik baina papel ona egingo ebala bai. Arrasate-n ondo egon zan eta Gernika-n gora urten eban, batez be lau oinak emonda hori abestu ebanean:

Mitinetan ba dabil
hamaika berri
usterik Herri dana
dagoela itsu.
Konturatu daitez
hau nere abisu:
Herria bera dela
Herriaren maisu.

Ez semea delako, baina, lau oinak jarrita horrerri irabaztekorik gitxi dago.

ANAIT.- Bigarrena izateari ondo deritzazu?

Balendin.- Alde handirik ez egoan baina ondo egon zan. Amuriza-k merezi eban. Nik danak ikusi nebazan eta Amuriza lehenengotik azkaneraino zelan joan zan, astiro eta seguru; gainera jakin be asko dakien morroia da bertso-arazoan.

ANAIT.- Zuen aittitte Juan Antonio-tik Jon-eraino, bertsolari-katea bat dago, danok zaree Enbeitatarak, baina bertsoak egiteko tankera berbera da?

Balendin.- Antzekoa. Niri aitten bertso-jokerakoa nazala esaten deustee, baina seme gazteena, Jon, nik uste dot arrazoiak emoten bere aittitten tankera berdinekoa dala, esakun zaharrak bertsoan botaten eta horretara.

EUSKERA

ANAIT.- Balendin, zuek Enbeitatarrok garbizaleen fama dozue. Zer deritzazu gaurko euskereari?

Balendin.- Hara, lehenengo egunean Bilbon egon nintzan batzuekin eta esan neutson, begitu: ni ez nago H-ren kontra ez euskera batuaren kontra. Euskera herrikoia bakotxaren herriko euskera ez da sekula galduko, Arratian Arratiakoa eta Muxikan Muxikakoa, baina guk, bien bitar-

tean egin behar doguna zera da, herri osoak adituteko eran idatzi, Euskal Herri osoak aditu daiala zer idatzen dan, ze, Zuberotar batek heuren erara idazten badau gu ulertu ezinik gagoz hemen. Euskera batua, errez adituteko eran egin behar da.

Nik, ANAITASUNA, ZERUKO ARGIA, KARMEK, PRINCIPE DE VIANA eta... hartzen dotaz. Beste bat be bai, erdera hutsean, Sakramentinoak bidaltzen deustena; lehenengo egon nintzan heurenkin, elizara eroan nenduen bertsoan Balendin Berriotxoan egunean, eta esan neutson: zuek niri botaten deustazuen aldizkari hori dana dago erderaz, euskeraz ezin doze egin ala?, orain zatozee niri bertsoak eskatzen, hau eta besteak, bertsoak entzun, txaloak jo eta gero zera egiteko...

Nik be, idazterakoan, herri eta oiherri eta gogoratzen jatazanak H-gaz imintzen dotaz.

Ikusten dugunez, Balendin euskera-kontutan intransigentea da baina erdaraz egiten dutenekin, ez beste inorekin.

Hau idatzen gauden momentuan ez dakigu oraindik noiz izango den omenaldia, baina Maiatza aipatzen da hilabete egoki bezala. Hala balitz, elkarriketaren bigarren zatia argitaratu baino lehen izango litzateke seguruenetik. Hori dela eta, aurre-omenaldi moduan, Balendinek, Donostiako Astoria teatroan 1974. eko Otsailaren 3an egin zioten omenaldian botatako agurragaz amaituko dugu:

I

Bertsolarien garaitza dala dirudi gaurko batzarrak halan dinoe heldu jakuzan telegramaren izparrak gaur Donostian ikusten ditut haraitzen zazpi adarrak bertso-kantuan pozez jolasten bere orri ta ezkurak. Bidasoz handik Benaparrakin Zubero Lapurditarak urez hemendik Bizkai Gipuzko Arabar eta Naparrak bertsolari bat omendu guran heldu diran euzkotarrak hainbestekorik ez zun merezi kantuna dagon txindorrek guzti haugatik anai t'arreboi danoi bihotzez eskarrak.

II

Udaberriak berbizten ditu mendi baso ta zelaik zoragarrizko txirolerotan kantari jarri txoriak bertsolariak alaitzen dituz egizko euskaldun guztiak nagirik bage abestu daigun haundiak eta txikiak gaztetxoari emon eskua baztertu handikeriak beste gauzarik ez du eskatzen euskera maitagarriak lur maite honek emon daiazan biharko frutu barriak erein daiguzan gure garaitzan hartuko duten haziak geroan ere abestu daian euskaldun bertsolariak.

III

Omenaldi hau eratu zan txindor kumearentzako baina larregi eritzen dautsat txori txiki batentzako herri batentzak jai gerala bagenduke sinistuko neure eritzian omenaldirik ez genduke eskatuko goiko ta bēko jai bagera herri baten onerako hori eginaz eginbehar bat baino ez dogu beteko omenaldi hau izango al da danon batasunerako euskera zabalduko bertsolariak gehitzeko mikpkeriak kentzeko hori eginaz Euskal Herriak asko du irabaziko gehiago gabe agur danori berriz be eskerrik asko.

J.R. Bilbao

EDITORIALA

EUSKARA IKASTEKO ESKUBIDEA?

Azken bolada honetako eztabaida politiko garrantzizko bat euskararen inguruan ibili da. Eskubideen arazo bat balitz legez planteatu da, galdera honen bidez: "Espainiako poliziek ba ote dute euskara ikasteko eskubiderik?"

Galdera gaizki eginda dagoelakoan gaude, problema horrela ez baitzen agertu. Izatez, konbibentzia arazo bat agertu zen, egun osoan zehar poliziekin batera hizkuntza bat ikastearena.

Zeren ez baitugu ahortzi behar, herri honetan jende asko polizien beldur dela, arrazoi askorengatik. Eta pertsona batzu beldur direnean, zerbaitegatik izango da, agian.

Baina Espainiako prentsa ez da horretaz arduratu. Datu hori soziologikoki aztertu beharrean, euskaldunok arrazista eta faszista gara la berresateko aukera, pozik erabili du. Ezin dezakete ezer onik aipatu Euskal Herriari buruz, edo zehatzago esateko, beti modu txarrean aipatu behar dute Herri hau.

Oso analisi merkea egin dute ordea. Ikasleen jarrera garbiaren aurrean ez dute minutu bat ere galdu, jarrera horren zergatikoa ulertzeko. Soziologoek bestela pentsatzen dutelakoan gaude.

Eta alderdi politikoen jarreraz, zer esan. Hauk ere, sakonera joan ordez itxurak egitean pasatu dute denbora: poliziak langile diskriminatuak direla, gure eskubide berberak dituztela, eta abar. Burutik ere ez zaie pasatu egin, ikasleengana joatea eta zergatik egiten duten hori ulertzen zaiatzea. Jakin bezate, ikusi nahi ez duena bainoitsu handiagorik ez dagoela. Ezkerreko alderdi abertzale batzu baino ez dira ikasleen jarreraz jabetu.

Eta ikasleen jarrera zein izan da. Nola analisatu dute arazoa?

Hara! Ikasleek probokaziotzat hartu dute polizien jarrera. Eta lagunak aukeratzeko eskubidea defenditu dute. Ez bide dira polizien lagunak. Eta, dirudienez, Euskal Herriko jende askok ez du polizien lagun izan nahi. Arrazoi onak edukiko dituzte, seguruen.

Gure eritziz, euskararen indartzea euskara herri-burrukaren atal bat den neurritik eta bidetik etorriko da. Ez da ahortzi behar, bestalde, bestelako herri-burruka erreibindikati- boetan dauden berberak direla euskararen alde gogorren dihardutenak.

Hori ere beste datu soziologiko bat da, HABEko agintariek kontutan hartu beharko luketena, beren egintzaren iparra galdu nahi ez badute behintzat.

Eta HABE aipatu dugularik, on litzateke AEK herri-mugimenduari egiten dion konpetentziari buruzko gogoeta egitea, bide batez Eusko Gobernuari galdera orokor hau egiten diogularik: Zein da Gobernuaren asmoa, orain arte Euskal Herriko nortasunaren eta hizkuntzaren alde lan egin duten herri-mogimenduak indartzea eta horiei azpiegitura egokia ematen laguntzea ala Gobernuan dagoen Alderdiak kontrolatzen ez dituen mogimenduhorik itotzea, ondoren ongi kontrolaturik dituzten antzeko erakundeak (herri-mugimenduak, ote?) sortzeko?. Galdera hor dago airean aspaldidanik. Ikastoletan, AEK erakundean, euskal aldizkarietan, ... behin baino gehiagotan entzuna dugu. Erantzun argirik eman ez diguna, Gobernu bera da.

Erredakzioa

Bernardo Atxaga,
Federiko Krutwig,
Maripi Solbes, Alfontso
Irigoien, Joxe Azurmendi,
Jon Kortazar eta Gotzon
Garate ditugu ale
honetako dossierrean
partaide eta ikaskide.
Izenak irakurrita gaia ere
susma daitekeelakotan
gaude: "Euskal
Literatura", noski, baina
ikuspegi ezberdinak
erakarri ditugu
ANAITASUNAra.

Lehenengo laurak:
Bernardo Atxaga,
Federiko Krutwig, Maripi
Solbes eta Alfonso
Irigoien mahai inguruan
baturik dira eta "Euskal
Literatura" izan zuten
mintzagai Eibarko
batzaldian.

Euskal Idazlearen
konpromezuaz aritu izan
da Joxe Azurmendi
Euskal Idazleen dogmak,
mugak eta ilusioak
artikulu mardul horretan
besarkatuz.

Lauaxeta du aztergai Jon
Kortazar Mundakar
ikerzaleak.

"Garbizaletasunetik
Sinbolismora" jarri dio
izenpuru bere
artikuluxkari. "Arrots-
beran", "Bide Barrijak",
sinbolismorako bideak,
"Romancero Gitano"
horrekin Lauaxetaren
lanak, metrika eta abar
atertzen ditu Jonek.

Gotzon Garaten gaia
"Jon Andoni Irazusta eta
Euskalerriko Elaberri
Errealista" duzue.

Errealismoaren
kontzeptua azalduz,
Errealismoaren
ezaugarriak, Euskal
errealismoaren
atzerapena eta abar
erakusten digu bere
monografian zehar.

J.I. Basterretxea

"EUSKAL LITERATURA"-RI BURUZKO MAHAI-INGURUA

BERNARDO ATXAGA, FEDERIKO KRUTWIG,
MARIPI SOLBES ETA ALFONTSO IRIGOIEN

Eibarren, herriko Euskal Eskolak burutu izan duen "Kultura Hila"ren zehar, besteak beste, "EUSKAL LITERATURA" izenburu zeraman hitzaldi bat ospatu zen, B. Atxaga, Federico Krutwig, Maripi Solbes, eta Alfontso Irigoien tartean zirelarik. Eibarko AEK-k, euskal kulturarekiko desioa, nahia burukomina edo irtera gabeko tristezia asetzeko hitzaldi honen xede gisa planteiatu zuena zera izan zen: Euskal Literaturarik badago? Non? Zer da?.

Hizlariak, orri hauetan zehar azaltzen diren "Konfesio-eritziak" azaldu zituzten. Eta tristezia dirau...

"Gose zaudena: nork asetuko?
bidea diote erakutsiko."

"Bakarka ezin da, fusilak ala kateak." (B. Brecht)

Bejondeizuela!

* * *

Moderatzailea: Federiko, Euskal Literaturaren laburpen xamur bat egin ezazu. Zein bide jarraitu izan du Euskal Literatura diotsogun honek?

F. Krutwig: Europa guzian burjesiak sortzen zuen erreformaren bidez, herri guzietan Bibliaren itzulpena egin izan da, batez ere Testamendu Berriarena; Euskal Herrian badugu Testamendu Berriaren itzulpen on bat, Leizarragak egina. Beste herrietan ere, literatur hizkuntza Bibliaren itzulpenaz bultzatu izan da, Alemanian bezela, protestante batek itzuli zuenean. Beraz, bere hastapenetan hain gaizki ez zegoen literatur bat pikutara joan zen, eta pikutara joan zen zeren eta momentu batean etortzen baita kontrarreforma, eta zuek dakizuen bezala kontrarreformak hemen, Euskal Herrian, eragin handia eduki zuen. Beraz, orduan, euskal apezek, euskal Literaturaren izpiritua zabaldu zuten protestanteen kontra, eta hor datoz Aranburu, Arginarats eta azkenik Axular. Ikusten duzuen bezela ez naiz ongi mintzatzen euskal kontrarreformista hoiien alde. Hala ere, euskal kontrarreformista hоек gauza bat egin zuten ona: euskara hizkuntza literario bat prestatu zuten, eta Euskal Herrian badugu orain beraz, literatur prosa bat, haren irakurketa masokista izan behar delarik ere askotan, baina hizkuntza ikasteko eta bertze gauza batzutarra gauzatzeko prestatu zuten Hizkuntza eratu egin zuten. Eta hemen Axular dugu.

Bitartean, hegoaldean, hemen jesuitak nagusi baitziren, ez zen ezer gertatu; garai honetan Euskal Literatura Lapurdiko hizkuntza izan da. Azkenik, gipuzkoarrak etortzen dira hemen, (Kardaberaz, Mendiburu). Baina European zehar, Erromantizismoaren eraginez herriko hizkuntzak pizten dihoazen bitartean, hemen ez zen gauza handirik gertatu.

Momentu honetan, posible da Euskal Herrian "elite" batetaz mintzatzea, batzuentzat hau oso txarra da, baina neretzat zerbait estudiatzen duen pertsona "elite" da, bertzei zerbait erraiteko baitu. Egiazko idazle bat izateko, "eliteko" izpiritua eduki behar baitu. Nik beti, "kultura herriaren mailaraino jeitsi behar dela herria gorzateko" diotenean, zera aipatu izan dut: Kultura herriaren goratzekotz dela, ez herriaren mailaraino jeisteko.

Gerorago, euskal abertzaleak datoz. Hauek ere dudarik gabe "aberchaleak" ziren, ez baitzekiten euskara, eta honela orduan teoria razista bat egin zuten, erraiten Euskal Herria arrazaren bitartez determinatzen zela, eta denok dakigu nola nazionalismoak kultur taldeak direla.

EUSKAL IDAZLEAREN KONPROMEZUAZ GAUR

Tesi moduan esango dut: 1.- Idazleak sozialki konprometua izan behar du; 2.- Bere konpromezu sozialak euskal idazleari gaur, paradoxalki, despolitizatze eskatzen dio.

Berehala agertuko da tesion esangura.

Dogma anbiguo bat

Postuladu orokor bat da idazleak konprometua izan behar duela, **engagé**. Kasik dogma arrunt bat. Baina zer da idazle **engagé** izatea?

Metafisikoak bihurtu nahi ez badugu, gauza desberdina da lekutik lekura eta aldiari aldiari. Horregatik nik, hasieratik, gaia gehiago mugatu beharko genukeela uste dut: euskal idazleari buruz ez dago seguruenik erdaraz idazten duenari buruz bezalaxe planteatzerik. Eta, euskaraz idazten dutenei buruz ere ez denentzat berdin-berdin. Eta orain, 82an, uste dut ez zaigula orain bospasei urte bezala planteatzen.

Muga apalak

Idazlearen konprometatu izatea, edo konprometaturik egotea, konstatazio bat da lehen-lehenik. Ez bokazio bat, esijentzia bat.

Giro batetan sortua delako, eskola-modu bat izan duelako, irakurleria bat zor zaiolako, zaletasun edo asmo batzu badituena bere-bereak, etab. idazlea beti dago **engagé** inguru jakin batetan (klase, milieu, edo nahi den modura izenda beza bakoitzak inguru hori). Hori, idazleak berak hau ala hori nahi izatearen aurretik dago. Nahi badu eta ez, hortxe dago. Nahi izateak gero datoz, batzutan eginkor, alferrik bestetan. Eta, ilusioak aparte, bere eragintza ahaltasunak ere hortxe mugatzen dira.

Homero, jauntxo edo noble gudarien munduan zegoen sustraituta. Hesiodo nekazarienean. Bakoitza bere mundutik mintzatu zaigu. Eta beraiek holakorik asko uste ez bazuten ere biak oso **engagé** dira.

Izan ere, gaur gehienetan zentzu ia ebanjeliko eta apostoliko batetan ulertzen dugu idazlearen konpromezu edo **engagement** delakoa: mundua zentzuren batetan misionatzeko balego bezala idazle (edo intelektuala, edo artista, etab.). Orduan batentzat "arrazoizkotasuna" predikatu behar du, bestearentzat iraultza. Bata zein bestea, ordea, bai arrazoizkotasuna delako hori eta bai iraultza delakoa, idazlearen (intelektualen, artisten) parte handirik gabe egiten eta desegiten dira mundu honetan. Horretara sartzen den idazlea (eta zenbait kasutan sartu beharrean egongo da) gehienetan laguntzaile eta morroin lanetan ari da. Oso erraz iristen da, ordea, indioarena egitera.

Utzi alde bat ilusioak

Lehen-lehenengo, idazlearen konpromezuaz ihardun nahi badugu, egon non dagoen argitu behar dugu. Objektiboki non dagoen. Ze, subjektiboki, idazle bat egon daiteke bera pertsonalki HBren edo PNVren hurbil, adibidez. Baina, objektiboki, euskal idazlea, idazle gisa batik-bat eta euskaraz idazten duen aldetik

bereberki, galduago eta bakarrago dabil munduan gaur, nire ustez, frankismoan bertan baino. Hori da bere egiazko egoera: naufrago bat da, beste denek (noizean behin protestaren batetako zerrendan zintzeko ez bada) ahaztuta daukaten naufragoa.

Oso, oso gutxitan ematen dio historiak idazleari, zuzen-zuzenean bere baitaik eta bere eginkizunaren arazoiez iraultzari edo "arrazoizkotasunari" eragiten aritzeko aukerarik. Une historiko txit berezietan bakarrik. Bestela, ia beti, prozesu sozialei gehienez ere nahiko urrundik lotzen zaie eta urrundik lagun diezaleke. Hori ez dago idazlearen gogotik edo asmoetatik: gauzak diren bezala dira eta idazlea generalean bela-untzi bat da, ez itsaso eta ez haizea.

Ez dut nik gehiago egin nahi lukeen eta egin dezakeen inor desanimatu nahi. Baina dei bat egin bai, egin nahi nuke, gehiago egin nahita itxuraz, engana ez gaitezen, eta egitea daukaguna utz ez dezagun egin gabe.

Momentu negatiboa

Gaur, euskal idazleok egin genezakeena ez da asko, baina, nire ustez, ez dugu egiten egin genezakeen eta egin beharko genukeen apurtxo hori ere. Hautsita gaude nolabaiteko ilusioen edo ambizioen eta desanimaren artean.

Azken urteotako gurdia, itsumustuan zetorrela, gainetik pasa zaiola euskal idazleari (konkretuago: euskal prentsari, literaturari), zapalduta utzi duela, denok ikusten dugu. Hegoak hautsita bide bazterrean geratu da txori gaisoa.

Ez da hori bakarrik. Lehen bazirudien euskal literaturak gutxion borrokari bere aportazio nahiko positiboa egiten ziola. Orain euskal literaturaren alde daudenak berak ere, beste arazoirekin batzuzengatik daude alde (Aitorren hizkuntza zahar hori, etab.), ez hark borrokari dion aportazioagatik. Alderantziz, "borrokariei" euskara, euskal literatura, karga bat bihurtu zaie azken aldiari.

Euskal idazlearen galdutasuna

Alderdi honetatik, nik, euskal literatura, arrisku handian ikusten dut, batzuek errekarra botako dutela, alfer-alferrikakoa zaielako, eta besteek, errukitsuenean, onenean ere toleratu egingo dutela penaz eta kupidaz, halei ere alferrikakoa iruditu arren. Balio, inori ez dio balioko. Eta ez dugu jakingo harekin zer egin.

Zergatik hori dena? Lehen denok bat baldin baginen nolabait, interesak partikularizatu egin dira Euskal Herrian. Partikularizapen horiek izen konkretuak dituzte: PNV, ETA, HB, EE, etab. Eta, edo nahi ez zuelako, edo zein zuelako, euskal literaturak ez dio jarraitu prozesu horri.

Nahi izatea ere ez bait da aski. Opzio baten arabera jokatu nahi izanik ere, orain datu-modu diferentarekin operatu behar da. Beste azterketa molde bat exijitzen da, ezer positiborik aporteratuko bada. Eta euskal idazlea, "osotasun" kasik etiko baten izen garbian iharduna, ez zegoen prestatu lako "zikinetan" igeri egiteko. Orokorki, behintzat, euskal idazleak bere utilitate gutxia galdu egin du. Inorentzako ez da tresna baliagarria. Inor ez da, beraz, hartaz interesatzen, noizean behin haren firma eskatzeko ez bada.

Balioa "galdu" esaten dut, baina agian ez du ezer galdu, irabazi baino. Egoera berriari fruitu ateratzen asmatzen badu behintzat.

Ez han, ez hemen

Edo ez ur eta ez ardo. Politikaren aldean horrela ikusten ditut euskal idazle gehienak. Eta niretzat ez da negatiboa.

Batzuk - pentsaeragatik, lanbideagatik - PNV aldera joan badira, gehienetan ez dute harekin berdindu nahi izaten halere. Eta besteek berdintsu, HB edo EE aldera jo dutenek. Beren jarrera pertsonaletan zeharo berdintzeraino iritsi direnak ere, apenas dabilzan egoera askoz hobean: politikoarena edo propagandistarena egitea, inoren bozgorailu bihurtzea, ez bait da idazlearen aportazio propioa. Hau bai, negatibo samarra iruditzen zait. Bestearen baratza lantzen dute eta ez dakite nola berena landu.

Berria dateke problema hau, baina funtsean zaharrak ditu sustraiak. Zaharra da, esaterako, Txillardegia "politikoaren" eta "idazlearen" artean dagoen etena, haustura. Askok nahastu egiten dituzte idazlea eta politikoa. Ez dakite idazle izateak bere autonomia daukala, bere dinamika berezia desarrolatzen duela (euskaraz idazteak hainbat bereziagoa). Askok, egia esan, ezagutu ere politikoa bakarrik ezagutzen dute; idazleaz ez dakite idazle omen dela besterik, baina sekula ez dute sakondu (**Huntaz eta Hartaz**-ko heriotzaren meditazioak, nobeletako mundu filosofikoa). Nahiko zaharra, baita, Andu Lertxundiren obran somatzen den eboluzioa. Leterenean ez gutxiago. Joseba Sarrionaindiaren kasua berriki, etab.


Gauza hauek denek merezi dute gogoeta bat, denon artean eta boz altuan.

Nora jo?

Inportantea dela, uste dut, laster ohart gaitezen non gauden. Zer nahi dugun erabaki aurretik, non gauden jakin behar dugu. Eta egon, zoko bazterrean gaude.

Gero bi aukera ikusten dut gure aurrean. Bat, klasikoki **engagé** kontzeptua ulertu izan denaren bidetik: uste dut gure egoerari, borrokari, oraindik ez diogula sortu bere egiazko nobelarik, poesiarik, etab. Eta posibilitate haundiak dauzkagula bide honetatik. Hori egin liteke idazlea borrokaren barru-barruan situatuz (idazle gisa!). Distantziatik ere egin liteke. Uste dut idazle **engagé** bat, zentzu klasikoan, egiazko posibilitatea dela gure artean. Oso aberasgarria izango genuke. Bakarrik, situa dadila mundu horretan idazle bezala. Egin diezagula idazlearen aportazio bat.. Idazle **engagé**: hau da, lehenengo idazle eta gero **engagé**. Politikoez hamar aldiz eta hobeto aurretik esana hamaikagarren aldiz errepikatzen digun idazleak oso gutxi laguntzen digu.

Beste bidea "espazio libreen" birkonkista litzateke. Momentu honetan polo politiko batzuren inguruan eratu dira espazio denak: sozialak, kulturalak, azkenean etikoak eta artistikoak berak. Politikaren beste eremu oro absorbitze izugarria egon da. Bilbon kiskalitako ipuin liburua, edo ontzat (**ad casum**, txartzat) ematen den lehergailu-etzanda, ez dira anekdota extremoak besterik. Euskal idazleak ez dauka Jainko gorenaren begi ori-ikuslerik, goitik behera dena begirada batetan begiztatzeko; baina zinez bere esperentziatik badihardu, bere ikuspegi partikularizatua nekez izango da politikoaren berdina. Ez da derrigor politikoarena baino hobea, "osoagoa", "unibertsalagoa", etab. izango. Bestelakoa bai. Eta ederra diferentzietatik sortzen omen denez (eta askatasuna ere bai) diferentzian beharrean gara. Alegia, diferentziak berak ere ez daitezela beti eta soil-soil politikoak izan. Eta hemen ere euskal idazleek zer aportaturik badutela, esango nuke, geure buruon higiene pizka bategatik eta izpirituon ekologiagatik, besterik ez bada.



Elkarrizketa bat hasi

Hauxe zenuteke "idazlearen konpromezua" gai proposamenak aurrenik eta bat-batean bururazten didana: gaurko galdutasun honetatik (nik halakotzat bait daukat) irtenbiderik aurkitzekotan, lehenengo eta behin errealismo guztiarekin ezagutu egin behar dugu euskal idazlearen egiazko egoera momentu honetan. Egon horrela baldin bagoaude, es digu ezer laguntzen paperak truka-teeak: politikoarenak edo ez garen profetarenak egin nahi izateak alegia. Egin beza bakoitzak berea eta guk geurea.

Adibide bat jarriko dut. Ezaguna da euskal prentsak ekarri duen paraderoa: **Argia, Anaitasuna, Goiz Argi**, etab., garai batetan geure informaziorako ere beharrezkoak genituen. Erdarazko organoetatik ez bezalako gauzak ikasten genituen haietatik. Gaur, ez informazio orokorrerako eta ez PNVk, HBk edo EEk zer pentsatzen duten jakiteko; daukagu horietara jotzerik. Hori lehenengo. Gero, egon den desbandadarekin, aldizkari horien erredakzioak hustu egin dira eta jende berriz bete. Jende berri hori gehienetan ez da periodista. Idazlea da, idazle gaztea, literatoa. Bere mundua dakar. Orduan planteamenduak ere ezin egin litezke periodistiko arruntak. Beste fenomeno bat dira eta beste atentzio bat merezi dute. Beharbada periodistikoki galdu duguna literarioki eta kulturalki irabaz genezake, gauzak ondo planteatzen baditugu.

Ezin esan nezake, neuk ere ideiak oso garbi ditudanik. Gauzak aski aldatu zaizkigula, ikusten dut. Ez dut hain ongi ikusten nondik nora jo. Elkarrizketa ireki bat eskatuko nuke.

Hasieratik hasteko, arazo-hauetaz elkarrizketa zabal bat hasi beharko genuke. Guk nola ikusten dugun baino, interesgarriagoa da seguru asko, idazle gazteek beren konpromezuaren arazoa nola ikusten duten momentu honetan. Hor ikusten ditugu ekintzan, borrokan, egurra ematen batzutan eta eramaten gehiagotan. Baina ez gara inoiz geratu, beren planteamenduak nolakoak diren entzuten. Eta lehenbailehen hasi genuke gorabehera guztiotaz garbi hitzegiten.

Joxe Azurmendi

LAUAXETA: GARBIZALETASUNIK SINBOLISMORA

Lauaxeta, Villasanteren Historia de la Literatura Vasca-ren bitartez ezagutu genuenok, ahalegin berezia egin behar izango dugu olerkari bikain hau berezko duen postu garrantzitsuan jartzeko, Lauaxeta ulertezina zelakoaren aitzakiz txarto ulertua izan delakoaren susmoa bait dugu. Urteetan zehar eraiki dugun Lauaxetaren irudia konpontzeko eta txukuntzeko garaia heldu behar zuen eta, Arostegik sarrera luze xamar de-xentea egin zien bere olerki liburuei. Geroztik, Euskal Literaturaren aipamenak eta artikulu solteren bat aldizkarietan. Eta kitu idazlea!, jakina; politikoei izango du ospea eta omenaldia.

Ezaguna denez, Lauaxeta olerki liburu pareta argitaratu zuen: **Bide Barriak** (1931) eta **Arrats Beran** (1935). Hitz lau **Euzkadi egunkarian egunero argitaratutako** kazetari lanak hor daude, laster-edo egingo zaien berrargitarazioaren zain.

Lauaxetaren lan poetiko Sinbolismoaren barnean kokatu behar dugu. Benetako Sinbolismoan, ez Alegoris-moan. Lauaxeta ez ditu, Lizardik egiten duen bezala, sinboloei bere esanahi erre-ala bilatuz, azken aldean bere olerkiak azaltzen, hori bait da alegoria. Ez, poemok azaldu ezin den errealtateaz azaldu nahi digute sinboloen bitartez, eta irakurleak bere irakurketa askea egingo du. Lan poetikoaren bitartez heriotzari aurre eman eta irauntzea sinbolismoaren ardura nagusia izan arren ere, hiru dira mogjmenu literario horren ezaugarriak: **zeharkako komunikazioaren zahazgabetasuna**: sentipena ez da zuzena azaltzen, sinboloz zeharka baino, eta prozedurak irakurketa pluraltasuna sortzen du; **musikaren zaletasuna**: bai hotsen bitartez, zein poemak sinfoniak bezala konposatuz, edo musika gai bezala tratatuz; **dekadentzia**: heriotza osteko norberaren izaeragatik ardua.

Hori guzti hori honela adierazten du Lauaxetak: "Ludi onen bestaldez loratzen diran landaraen usañak goxalde bakotzak dakarkidaz". **Beste alde** dagoena azaldu behar du; ez mundu hau, **bestea** baino.

Esaldi horrek, eta **Arats beran**-go hitzaurre labur osoak Lauaxeta Sinbolistatzat jotzen dute.

Baina, hau ez da nahiko Lauaxetaren kontzeptzio poetikoa azaltzeko. Osotasunez ikusteko, beste aipamen hau kontuan hartzekoa da: 1935. urtean,

Bilboko Eusko Gaztedin poesiari buruzko hitzaldi bat eman zuen Lauaxetak. Hitzaldia ez da ezagutzen baina garaiko aldizkariak batzen duten bezala, haxe izan omen zen tesis nagusia: euskal poesia berria egiteko, beharrezkotzat jotzen du euskal ahozko poesia eta Europako olerkigintza batzea. Argi zituen, bai horixe, zeintzuk ziren Europako mogimendu poetikoak.

Horrexegatik, lehenengo liburuan Modernismo eta J.R. Jimenez eta Valéry-ren aztarnak nabaritzen ditugu. Ahozko literaturaren eragina ez zuen gorpuztu (arinago dizdirak egon arren) bigarren libururarte, Lorcaen **Romancero Gitano Arrats beran** liburuaren iturri dugularik.

Bide barriak liburu anbiziotsua da, lehenengo liburuak izaten diren bezalatsu: asko dago esateko eta dena esan behar. Liburuak bietatik ahulena dela esaten da. Baina ahula baino gehiago, araroa da: aldakorra, iturri askoren ur, teknika ugarien seme.

Gai aldetik liburu bikoitza eskeini digu Lauaxetak: Maitasuna eta gai filosofikoak (irauntasuna: ezhilkortasuna, gune dela). Gai aldetiko bereizketak beste arlo guztiena erakarri du. Maitasun poemak, txikerrak, bigunak dira. Maitasunaren mingoztasuna erakutsi nahi dute, baino ez diote tentsiorik sortzen irakurleari. Ez dabiltz melodramatismoatik urrun, eta paradoxa ekin-tzen irtenbide bezala askotan erabili arren, teknika aldetik paralelismoan oinarritzen da, kontrajarpena, eta honen tentsio indarra, uxatuz.

Gai filosofikoak darabilen poemak, ostera, oso desberdinak dira. Forma aldetik luzeagoak, kontrajarpena ugariago erabilia, eta azkenean, sinesgarriagoak. Lauaxetaren barnekotasuna agirian uzten bait digute.

Poemotan datza, gorago aipatutako dekadentzia: Lauaxetak heriotzagatik duen larritasuna.

Baina, orohar, eta batez ere **Arrats beran** liburuarekin konparatu ezker, lehenengoak ba du "anplificatio"-rako joera: sentimentuak behar ez den luzetasun eta patxadaz azaltzeko joera, hain zuzen.

Onartu behar, baina, bigarrenik ez ba lego, hobe baloratu gurekela, agian. Baina **Bide barriak** bigarren liburuarentzat saio bihurtzen da, eta honetan agertzen diren balio poetikoak lehe-



nengoak ere, kumetuta baino, ba dakarzena.

Arostegik ondo ikusi zuenez, lehenengo liburuaren sentipena "estutu" egin zuen bigarrenean Lauaxetak. Askoz ere poesia sendoagoa da bigarren honetakoa.

Elipsisa eta kontrastearen erabilera jo du Lauaxetak. Ez dino honetan larregi: juxtuena, eta nahiko, eskeintzen dio irakurleari. Honek, bere aldetik, zuhurtasun eta adimen guztia jarri beharrean aurkituko da olerkia ulertzeko: denbora, toki etenak huts hutsean aipatu egingo dio Lauaxetak, jautzien berri zehatz, zinemaren antzera, inoiz eman gabe.

Beste aldearen bila gogor joko du Lauaxetak: erromantzea du eredu. Narratibotasunez osotuko dira, baina bortiza delarik: pertsonaien heriotzarekin bukatzen da. Sentimentu zabalari muga bi jarri dizkio oraingotan: **metrika aldetiko simetria** joerak, inoiz arkitektura deitu duguna: poemok zenbakiz ere neurtuak dira, leloa leku estrategiko eta jakinetan errepikatzen dela, Lauaxetaren estiloaren ezaugarri nabari bihurtzen direlarik; bigarrenez, **dramatikotasuna**: poemok txarto bukatzen dira (ala ez dira bukatzen) tragedia lurrina zabalduz. Beraz Lauaxetaren samintasuna neurrikera metrikoaren barnean sartzen du, herstutzen du, eta sentimen-

tua neurritz azaltzea kontradikzio hutsa da. Tentsioa.

Begira dezagun orain, sinbolisten bigarren ezaugarria: musikaltasuna. **Bide Berriak** liburuan poemen gaia zen musika: **Lied** deitutakoan, adibidez. Hemen, musika olerkiarekin batu da. Aliterazioez, soinuen soinua indartuz, poemak esaldien musika izango du; leloa errepikatuz, olerkiak konposizio musikalaren egituraren antza bilatzen du: gaia eta bariazioak sortuaz. Biak daukate eragina Lauaxetaren olerkigintzan: lehenengoak sensibilitatea liluratzeko du, bigarrenak adimena eta entzumenaren zirikatuko ditu.

Musikaz hitz egiten dugularik, ez ditugu ahaztu behar sinestesiak (sentsazioen munduak) lan honetan daukan tokia. Entzumenezkoak aipatu ditugu, usainezko eta kolorezko elementuak ez daude atzerago. Sentsazioen aipamenez, deigarri egiten den poesia idazten du Lauaxetak.

Heriotzak garrantzi handia izango du, lehen esan bezala. **Bide berriak**-en orrialdeetan heriotza azaldu egin zigun Lauaxetak, orain erakutsi egiten digu. **Heriotzaren, frustrazioaren aurrean gaude**, Lauaxeta eta denok.

Hizkuntza dugu azken autugai. Lauaxeta idazle zaila da; baina ez da zaila garbizalea delako, nahiz eta sarri baino sarriago egoera bien artean lotura herstua eraiki kritikak. Nik uste, beste ikuspegiaren bat behar dugu: Lauaxetak **beste aldeko** mundua azaldu nahi digu, eta hori ezina da **beste aldeko** hizkuntza gabe, argiago, hizkuntza poetiko (bere?, berri?, berezi?) gabe. Beraz, ez da legezkoa Lauaxetaren garbizalekeriaz (ahulduago bigarren liburu honetan) hitz egitea, bere hizkuntza poetikoa alde batera uzten dela. Eskuhar, hizkera poetiko horren parte dira: garbizaletasuna, hitz zaharren agerpena, lapurterako hiztegia, lokalismoak, eta aditz soila. Baina helburua ez da hizkuntza arraroa edonola egitea. Helburu argia da: argitasunez beteriko hizkuntza poetiko bat sortzea: berritasuna eta harridura sortzen duen hizkuntza poetikoa, estilo bat sortu arte: Lauaxetaren estiloa, kontzeptzio sinbolistarekin oso lotua dagon idaztinkerak.

Zailtasuna, baina, ez da hiztegiaren arazoa bakarrik. Narratibotasunean erabili diren (esango ote dut?) teknika zinematografikoak, zeharkako komunikazioaren eta sinboloaren interpretazio bideen kakoa ere ba da.

Jon Kortazar

1) AROSTEGI: "Lauaxetaren poesia gunetarantz" in LAUAXETA Olerkiak. Etor.

JON ANDONI IRAZUSTA ETA EUSKALERRIKO ELEBERRI ERREALISTA

Idazlan honetaz zera gogoratu nahi nuke: Euskalerriko elaberri errealista Irazusta Jon Andonik 1946. urtean idatzi zuen **Joañixio**-rekin hasi zela (1).

Foroga honek hiru alderdi du: 1) elaberri errealista zer den jakitea. 2) 1946. era arte idatzi ziren elaberriak ez direla errealistak ikustea. 3) **Joañixio**-n Europa-Ifarrameriketako kritikak elaberri errealistari erantzen dizkion ezaugarriak aurkitzea.

Goazen, bada, urratsez urrats hiru alderdiok ikertzera.

Errealismoaren kontzeptua literaturan

"Literatura-kritikaren hizkeran, guti dira 'errealismo' hitza bezain zehazgabe, lainotsu eta arriskutsu", esaten digu Jeremy T. Medinak. (2).

Eta lehentxeago Ortegak hitz berdintsuak erabili zituen: "Realismo. ¡Terrible, incómoda palabra!" (3)

Oso zail da errealismoaren definizioa ematen. Gure lanerako ordea, baliagarri izango zaigu zehar-itzulinguruko argibidez errealismoaren kontzeptua osatzea.

Errealismoa erromantizismoaren aurkako mugimendua dela esan ohi da. Ba du uste honek egiaren zatia, batzutan bi mugimenduak batera gertatu baziren ere. Gogoan har, esatebaterako, Balzac (1799-1850) eta Victor Hugo (1802-1885) adin direla.

Baina bai, errealismoa fantasia, sentimentukeria eta idealismoa zokoratzen zatorren. Abentura harrigarrien eta toki fantastikoen ordez, eguneroko bizitza eta gertalekurik arruntenak ispiatzea nahi zuen.

Izenak berak dionez, errealismoak errealitatea plasmatea nahi zuen. Jakin, nahikunde horretan bertan zegoen kokoa. Alde batetik errealitatea zer den. Eta bestetik errealismoa ez dela imitazio hutsa. Erretratoa bere izatez ez da arte, artistak bere subjektibitatearen indarrez errealitatea arte mailara jasotzen ez badu.

"Errealismorik amorratuenak" ere (honelaxe definitu du naturalismoa zenbait kritikalarik, Euskalerrian gertatu ez den mugimendua, hain zuzen ere) errealitateari eremu berezi bat aukeratu behar du eta gero nolabait ere eraiki, estrukturatu, errealitateari bere ikuspegi berezia erantsiz.

deskribapenak deskribapen egite aldera egiten ditu, folklorismoaren jantzietan dabil, maiz topikoz estekatzen da, gizarte aurreiriztatua eskeini edo bortxatu nahi digu, pertsonaia utopikoak edo topikoak sortzen ditu (tipikorik sekula ez), oso bakan agertzen da bizitzaren trajedia, mundua elkarrezinezko bi taldetan banaturik ikusten du (zintzoak eta gaiztoak). Hitz batez esateko, ohiturazko elaberria, errealitatearekin ez da ezkontzen.

Euskalerriko ohiturazko elaberriari gutxigorabehera, **La gaviota-ri** (1849) egin zaion kritikaren antzekoren bat egin beharko genioke: sentimentukeriaz, melodramaz eta erlijio-idealismoz kutsaturik eta moralizazio erromantiarrez beterik dagoela. Errealismoarekin zenbait alderdi berdintsu izanagatik ere, ezin uztarri berean jarri: **Usauri** eta **Donostia** berriz, **Gaviotaren** akatsetan erortzen ez badira ere, erabat folklorista eta irriegile dira.

Etxeita-ren eta Lertxundi-ren elaberriak: gertakari harrigarri melodramatikoez bustirik daude. Oroit **Polli** eta **Pello bi euskaldun bikain da zintzoen kondaira**-n "Txala"-ren gertakaria eta **Etxeita**-ren pirata eta lapurren pasadizoak.

Ardi galdua-k ba du errealismoaren ikutua. Bestalde euskal literaturan eskutitzen teknika lehenengo aldiz erabiltzen da. Asmo didaktikoak baina, ohitura deskribapenek eta parre egiteko pasarteek errealismoaren hildotik ateratzen dute. Hori nahikoa ez balitz, euskara dotoreegi, laborategi usainezkoa du. Hain zuzen ere "hizkera arruntaren kalitate usainezkoa da errealismoaren ezagugarrietan bat. (13)

Gudu zibila eta euskal elaberri errealista

Maiz esan ohi da egiazko elaberri errealista burjeseriaren agertze eta gailentzearekin batera sortu zela. Georg Lukács-ek, Lucien Goldmann-ek eta bere jarraitzaileek (Ferras-ek eta abarrek) aspertzeke esaten dute hori (14)

Hona hemen Montesinos-en hitzak: "La historia nos dice que apenas ha habido novela digna de este nombre hasta el advenimiento de la burguesía al rango de clase directora" (15)

Teorigilek ez ezik, idazleek berek ere horixe esaten digute. Galdosek, Espainiako elaberri errealistaren aitak: "... la clase media, la más olvidada por nuestros novelistas, es el gran modelo, la fuente inagotable... La novela moderna de costumbres ha de ser la expresión de cuanto bueno y malo existe en el fondo de esa clase..." (16).

Gure kasuan, ordea, hori ukatu gabe, beste zera aitortu behar dugu. Euskalerrian guduaren ondoko giroak eragin handia izan zuela elaberri errealistaren sorreran. Bestalde, Euskalerriko lehenbiziko bi elaberri errealistek, **Joañixio** eta **Ekaitzpean** ez dute harreman zuzenik erdiko klasearekin. (17)

Behin eta berriz esan ohi da (eta ba du arrazoiren puska handia) 1868. eko Espainiako iraultzak elaberri errealistaren giroa sortzen lagundu zuela. Berdintsuki esan dezakegu Euskalerrian gudu zibilarekin. Gertakari hauek ez dira Espainiakoak bakarrik. Alemanian, adibidez, 1870ko gertaerek etena egin zuten ordurarteko eta geroko errealismo mugimenduan (18)

Guduzibilak pikutara bidali zituen euskaldun askoren amets erromantiarak. Euskalerraren askatasuna, gizarte jatorra osatzeko itxaropenak, euskal kultura goiko mailetara jasotzeko usteak ustel atera ziren. Tristura, pesimismoa, buru makurtu beharra nagusitu ziren nonnahi. Egiari aurpegi egiteko garaia zen, ez amets utopikoetan iharduteko. Giro lainotsua etorkizuna beltza.

Giro horretan sortzen da elaberri errealista. Pesimismo hori, ordea, poesian ere nabari daiteke. Hor dira lekuko, adibidez, Monzonen olerkiak, gerra aurrekoekin alderatuz gero.

JOAÑIXIO

Irazusta Jon Andoni (1882-1952) Deustun eta Madrilen egin zituen legeikasketak, 1936. ean Gipuzkoako aldun aukeratu izan zen eta gerra ondoren Panaman, Colombian, Puerto Ricon eta Perun bizi izan zen.

Joañixio-ren gaia nahiko ximplea, korapilorik gabea da:



Joañixio, Amezketako baserri batetako seme gazteena Argentina-ra lekutu da, bere gogoz baino gehiago gurasoen esan betetzeagatik. Bere bizitzako urterik hoberenak han bota ondoren, 55 edo dituelarik, atzera etxera itzuli eta Maitexa, bera baino 30 urte gazteago den ilobarekin ezkondu zen. Adinarentzat, ordea, sendelarririk ez. Luzaro gabe hasi zaizkio ajeak eta behazun minak. Bi haur ere izan ditu baina maxkal samarrak. Artean hazteko dardela hil da Joañixio.

Ezin digu berdindu elaberri hau aurreko elaberri goxoekin. Garraztasun sarkorra dario, halabehararen kutsua ere bai. Joañixio Ameriketara joan beharra, han eraman behar duen bizimodua latza, Maitexaren bere osaba ezkondu beharrekiko dudamudak, ezkonduz gerotzikako ajeak, den dena mingostasunez bustirik dago. Eta azken atalean, Irazustak, elaberriari trajediaren ikutu indartsua eman dio.

Elaberri egiazko, bizia, koplekeria gabekoa. Ez dugu hemen baserriaren eta hiriaren arteko dikotomia ximplea aurkituko, **Garoan** eta **Uztaron** bezala. Ameriketatik etorri eta Joañixio berak garbi ikusten du baserrian ezingo duela etsi. Tolosara kalera ezkontzen da. Joañixio ausartki aurre egiten die bizitzaren alderdi gozagaitez. Aurreko elaberrietan ikusten den moralismoa bakantxo agertzen da hemen.

Elkarrizketak eta tokien deskribapenak indarrez pintaturik daude. Fernan Caballeroren esana zen: "La novela no se inventa, se observa". Irazustak bai **Joañixio** bai **Bizia garratza** da-n, ba daki Euskalerrin—Ameriketara gauzak ikusten eta ikusitakoa papelean jartzen. Puntu honetan, adibidez, **Ekaitzpean** aurkitzen ez dugun maisutasuna erakusten digu.

Joañixio ez dugu erideiten **Uztaron**ren euskara dotorea. Irazusta ez da deskribapen eta konparaketa bikainak egiten jartzen. Panpako bizikera gogor, astuna, askoz hobeki uztartzen da Irazustak darabilen Tolosako euskara aberats, bizi, eguneroko, kementsuarekin, bere deklinabidezko, aditzezko eta laburpenezko akats guztiak gorabehera.


Panpa, berriz, Joañixioren begietan azaltzen den bezala pintatzen digu Irazustak: dirua egiteko tokia maitasunik ez dion ikuspegitik ikusita, alegia.

Bestalde, ez dut uste oker nagoenik esatean, Joañixio dela 1946. era arte agertu ziren elaberrietan pertsonaiarik osoena, egiazkoena eta borobilena.

Irazustak ez digu esaten Joañixio nolakoa den. Ekintzan ikusten dugu, bizirik. Ameriketara doa, etxean bizimodurik ez duela eta gurasoek esaten diotelako. Ez da inongo heroerik, **Garoan**ren Joanes heroe utopikoaren antzera. Joanesen baitan ezarri nahi izan ditu Agirrek "egiazko" euskaldunen bertuteak. Joañixio antiheroe dela esango genuke. Edozein jokatu arren, azkenean porrot egiten duena. 55 urterekin itzuli da Euskalerrira, bere biziaren hondamena aitortzeko. Alfonso Sastre-ren "realismo como desmixtificación" kontzeptua egoki da Joañixioren kasurako. (19)

Joañixioren ondoan beste bi pertsonaia nabarmenak dira. Teexa bere arreba eta Maitexa bere iloba. Teexaren aiurria oso ongi jarririk dago. Teexa Joañixioren arreba kutuna da. Panpara lekutu arren, nebarekin harremanetan gelditzen dena, etxe berriak noiz behinka bidaltzen dizkiona. Eginkizun berezia hartu du, gainera. Osaba-ilobak elkarrekin ezkontzeko bidea leuntzea.

Maitexaren izatea ere egoki eta errealismoaz agertzen zaigu.



Osabarekin ezkontzeko diren eragozpenak garbi ikusten ditu. Haseratik zalantzan dabil, osabaren aurrean lotsatu eta adinaren aldea astun egiten zaiolarik. Borroka latza dabil eta halere osabarekin ezkontzea erabakitzen du. Ezkonduz gero zintzo jokatatu ere bai. Nafarroan holako ilobarik bat baino gehiago ezagutzeko aukera izan dugu.

Beraz, pertsonaien aldetik ere, **Joañixio** elaberririk onenetakoen artean jarri behar da.

Honek zera esan nahi du: ez dagoela errealismo "bat bakarrra" Flauberten eta Joyceren errealismoa oso ezberdinak dira (4).

Areago: errealismoa asmamenaren eta fantasiaren mugetatik bereiztea ez da horren erraz. Hor ditugu errealismoaren eta irudimenaren planoak nahasiak Cortázar eta beste egoamerikar batzuen "aztizko errealismoan" (5).

"Litaraturazko artelanak, subjetoaren eta objektuaren arteko, nitasunaren eta errealitatearen arteko harremanetan osatzen direnez gero, esperientzia indibidualaren expresio dira" (6)

Halaxe dio Bosch-ek ere: "Yo estoy de acuerdo con Maurice Nadeau cuando dice que la novela actual es, antes que ninguna otra cosa, el reflejo de la manera particular que tiene un hombre, el novelista, de padecer el mundo y de influir sobre él." (7)

Errealismoaren ezaugarriak

Nortasun eta ikuskera oso ezberdinak izan arren, idazle errealista guzietan zenbait ezaugarri orokor aurkitzen dugu, halere. Fielding, Defoe, Flaubert, Balzac, Stendhal, Tostoi-ren elaberrietan zenbait idazkera, ikuspuntu eta teknika berdin ikus daitezke.

Oharpenari, obserbazioari, toki nagusia ematen zaio elaberrirerrealistetan; erromantizismoan idazleari irudimenaren atea zabaliak uzten zitzaizkion. Idazle errealistak bizia bera du pintagai.

Errealismoan heroea indibiduala da, eguneroko bizitzatik aterea, indibiduo topiko edo orokorra baino. Eta eguneroko heroe hori aurkezteko eguneroko hizketa erabiltzen da. Alderdi hau bakarrik gogoan edukitzea nahiko izango litzateke **Uztaroa** elaberria errealismo alorrean ez sartzeko. **Uztaroren** hizkera (eta **Joan**ak-joanena ere bai, alde handiz euskara arruntetik oso urruti dago, biziaren larria zinez adierazteko apainegia da.

Bestaldetik, elbaerri errealistan "neutralitatea" aurkitzen da edo aurkitu nahi luke irakurleak. **Garoa**, **Kresala**, **Uztaro** eta beste ohiturazko elaberrietan, idazleari barkatu egiten zaio, idazterakoan gizarte eredu bat begien aurrean duelako. Gogortxoago adieraziz, pertsonaiak eta ekintza, aurreiritziz jantziriko gizarte ideia baten menpean jartzea ez dugu kontutan hartzen.

Elaberrirerrealistan, ostera, bizia bera ikusi nahi genuke, bere garrastasunean, bere alderdi on eta txarrekin; "ametsaren eta errealitatearen arteko tirabiran" bizi den pertsonaiak idoro nahi genituzke. (8)

Euskal elaberrirerrealistaren atzerapena

Aurreko kontzeptuak bilduz, eta Irazustak euskal elaberrirerrealistari hasera eman ziola entzunez gero, lehendabiziko galdera hau da: 1946. eko lanaz hasten al da errealismoa Euskalerrian? Oso berandu!. Bai: Euskal errealismoa - eta ez euskal elaberrirerrealista bakarrik - oso atzeratua datorkigu Espainiako elaberrirerrealistarekin alderatuz gero.

Jakina, "atzerapen" hitz honetaz ez dugu eritzi ezezko edo

baiezkorrik jaulkitzen. Izan ere, hemen ez dago "aurrerapen" eta "atzerapen" zentzu artistiko edo eskatologikoan erabiltzerik. Ezin atzerapen eta kaltegarri bat egin.

Honatz zer dioten Lukács-ek Tolstoiz: "Tolstoiren idazlana, munduzabalezko neurritan hartuz gero, errealismo haundiaren gainbeherapen eta suntsitzearen kontrako zorionezko jokabidea da" (9).

Gu, atzerapenez ari garenean, denborari, kronologiari begira bakarrik ari gara. Eta horretan bai, euskal elaberria Espainiako elaberriaren oso atzetik datorkigu. Eta kontutan eduki Espainiako elaberrirerrealista modernoa, bera ere, Europakoaren aldean berantkor dela.

Espainiako elaberrirerrealista modernoz mintzo gara. Jakina, errealismorearen aztarnak aspalditik suma daitezke. Zuzen dabil Hernandez Ortiz aztarna horiek **Libro de buen amor**-ean ikustean (10). Lazarillo de Tormes-ean ere eta gero pikaresken etengabeko errealismo zertzeladak irakurriko ditugu.

Hemeretzigarren mendean, baina, Espainian errealismoa hasten denean, hilak edo hiltzear daude European literatura mugimendu horren errepresentante nagusiak: Balzac (1850), Tachkera (1863), Dickens (1870), Flaubert (1880). Europako errealismoa 1847-1871 aldian jartzen da. Handik aurrera (1890. era arte) naturalismoa dator, gerotxoago (1890-1914) sinbolismoari lekua uzteko (11). Espainian Galdosen **La fontana de oro** (1870) jarri ohi da elaberrirerrealistaren hastapen.

Irazustaren **Joañixio**, beraz, 76 urteko atzerapenez heldu zitzaigun.

1946. era arteko elaberrigintza

Askok galdetuko du ea lehenago ez ote zen elaberrirerrealistari idatzi. Ez. Hori ikusteko, 1946. arteko elaberriak gaingoroki arakatzea aski da.

Piarres Adame eta **Bein da betiko** farre eragiteko elaberri txoak dira, batik bat. **Añamendiko lorea** eta **Yolanda** "eskualdeko (regional) historia elaberria" sailean sartuko genituzke. **Yolanda** askoz errealistago bada ere, moralismoz, aurreiritziz eta idealismoz kutsaturik dago. Pertsonaiak bi taldetan banatzeak berak (euskaldunak onak, atzerritarrik gaiztoak) errealismoaren usaina kentzen dio elaberriari.

"Ohiturazko elaberriarekin" (kostunbristarekin) egongo litzateke dudaxoren bat: **Kresala**, **Garoa**, **Piarres**, **Usauri Donostia**, **Uztaro**-ekin, alegia. Duda hori laster ezabatzen da, ordea. Ohiturazko elaberria eta elaberrirerrealista oso ezberdin dira.

Ni ez naiz hemen sartuko aspaldiko eta jakineko eztabaida hartan. Elaberrirerrealista ohiturazko elaberrietik sortu denentz (biguntxoago jarriz, ohiturazko elaberriak bidea ireki ote dion elaberrirerrealistari) edo aitzitik, ohiturazko elaberria galga eta oztoparri izan ote zaion elaberre errealistari. Hor daude denen gustuko eritziak. (12). Une honetan ez zaigu axola.

Guretzat nahikoa da esatea, ohiturazko elaberria eta elaberrirerrealista zenbait puntutan elkarren antza izan arren, funtsean bide oso bananduetatik doazela.

Ohiturazko elaberria: erromantizismoz kutsaturik dago, **Formari buruzko argibideak**

Irazustak berezkoa zuen elaberrigintzarako dohaina. Gauzak nola prestatu eta nola esan ba daki. Aski da lehendabiziko atala aztertzea. Ertate baserriko deskribapenarekin hasten zaigu. Zertzelada labor eta begien biziz aurrean zernolako baserri den jartzen digu: "Ertate!... Ez zan biziro egoki. Alaia bai. Malkar batean; zelai gutxi; basoak urruti; sorotako lurra urtero lepaketan jaso bear. Nola edo ala, bost beieko baserria." (20)

Deskribapen fisikoaren ondoren antropologikoa dator. Ertate baserrian ze familia bizi den esaten digu. Gero aitak seme zaharrenarekin duen hizketaldia azaltzen du laborri. Elkarrizketa utzi eta baserrian bizitza nola igarotzen den aztertzen du. Berrirerrealistarekin elkarriketa luzetxoa dator eta azkenean Joañixiok egu-

nean zehar egingo dituen lanekin bukatzen du atala.

Ez digu Irazustak pertsonaien zehaztasun fisiko haundirik ematen, ez orain ez eta geroago, oso gainezka gizaseme ederra edo emakumezko bikain dela esateko ez bada, inongo idealizazioz gabe.

Elkarrizketa da elaberri honetan teknikabiderik egokienetako bat. Ia elaberriaren erdia osatzen du. Hain zuzen ere ezagun da elkarrizketa erabiltzen duela bereziki elaberri errealistak, biziaren egitasuna adierazteko esamolde guztietatik horixe baita da subjektibitate hutsatik gehien hastantzen dena. (21)

Eguneroko bizitzan egiten denaren antzekoa da, euskara bizi eta arruntez egina, inongo apainketarik gabe, baina mardul, aberats, egokiz. Mintzaileak hika ari dira sarri, kontaketa egitasuna eta arintasuna emanez.

Euskal elaberrigintzan beste inon ikusi ez duguna Teexak eta Maitexak Joañoixiori idazten dioten **eskutitz** batean, tarteak tarteka bion arteko elkarrizketa azaltzen da, eskutitzari aparteko errealismoa emanez. Joañoixiok berak, eskutiz idazten hasi eta ekinaldi baten ezin duelako bukatu, tarteka tarteka ekiten dio, birtatean zer gertatu den kontatzen duelarik. Honetan ere Irazustak berezko idazle sena erakusten du.

Elaberri errealistatik gehienetan bezala **kontalaria** hirugarren pertsona guztiz jakituna da. Baina aurreko elaberriekin alderaturik, puntu jakingarria ikusten dugu honetan: idazleak ia ez duela bere burua kontakizunean sartzen.

Irazusta ez da horren sarri irakurlearekin hizketan hasten, ordurarteko idazleek egiten zuten bezala. Areago, pertsonaiek buruzko eritzirik ere ez digu ia inoiz ematen.

Jakina, kontalaria guztiz jakitun denez gero, pertsonaien kontzientzia sartzen da, baina nahiko zeharka eta antzetsu. Kontzientzia azterketa hau Maitexa eta Joañoixioren arteko harreman aztertzerakoan erabili behar izan du, batez ere. Hain zuzen ere Maitexak bere baitan igarotzen dituen larriuneak oso ongi jarrita daude eta liburuaren zatirik egokienetakoak dira.

Irazustak esaldi oso laburrak erabiltzen ditu. **Estilo bizia du, elkarrizketan ez ezik, bai eta kontaketa eta deskribaketan ere.** Oso gutxitan aurkitzen dugu bi lerroz goitiko esaldirik. Elaberriaren igidura bizkortu egiten du horrela. Ba dakigu, gainera, esaldi laburra askoz egokiago moldatzen dela kontakizun objetiboarekin. Gauzak bipilki, zehatz, zuzen, egiazki aurkesten zaizkigu.

Panpako egonaldia eta hango gorabeherak pintatzerakoan, ba zen geldoegi ibiltzeko arriskua. Irazustak, baina, gertakariak ikusteko eta kontatzeko duen zorrotasunari eta bere idazkera biziari esker, ongi gaintzen du arrisku hori.

Naturalezaren **deskribapen** luzerik ezin liburu honetan aurkitu. **Uztarotik** urrun gaude. Agirrek maisuki egiten dituen deskribapenak, esaldi luzeak erabiliz, panpako laztasunarekin ez lirateke ongi josiko. Panpari darion odola askoz hobeki pintatzen da idazkera labur, bizi honekin. Agirre Toma eguraldiaren aldaketak, goizearen ederra edo ekaitzaren orro bortitzak guri begitaratzen artista da. Alferrik **Joañoixion** horrelako zehazketaren bila ihardutea. Panpak betikotasunaren latza hartu duela dirudi.

Azken oharrak

Irazustak ebakitako bidetik joan zen geroago Eizagirre **Ekaitzpean** elaberriarekin. Ez da hegaldatzen, ordea, **Joañoixioren** gailurrera. Geroago (1950) Irazustak berak **Bizia garratza** da idatzi zuen. Ez dugu hemen elaberri honetaz hitz egiteko betarik. **Joañoixio** baino eskaxago da, bi protagonista dituelako, euskara lardatsago erabili eta melodrama gehiago sartzen duelako, besteak beste.

Bukatzeko: **Joañoixioren** hasten da elaberri errealista Euskalerrian eta 1957. arteko elaberrietan onenetako da (hobere-na ez bada). Geroko idazle askok ere ez zuten inolaz ere tolosar honek jarritako marka ondu.

Gotzon Garate

LIBURU OHARRAK

- 1) IRAZUSTA, Joan Andoni: **Joañoixio**, Editorial Vasca Ekin, Buenos Aires, 1946, 281, orr., 18 x 13,5.
- 2) MEDINA, J.T.: **Spanish Realism: The Theory and Practice of a Concept in the Nineteenth Century**, Turanzas, Maryland, 1979, 7 or. "Few words in the literary critic's vocabulary are more ambiguous, more nebulous, and indeed, more dangerous than the term "realism" "
- 3) ORTEGA Y GASSET, José: **Meditaciones del Quijote**, Obras completas, Madrid 1950, 373, orr.
- 4) Lukacs, Georg: **Probleme des Realismus**, Aufbau-Verlag, Berlin, 1955, 211, hurr.
- 5) Gai honi buruz oso jakingarria da QUINTERO MARIN, Maria C.-ren tesis doktora: **La cuentística de Julio Cortazar**, Univ. Com. Madrid, 1981. Ba da Cortazar-en **Queremos tanto a Glenda**-n mireste ko kointzidentzia. Protagonista Irazusta da, "socio... en el negocio de las minas de estaño" (Alguafara, 1981, 23 or.). Irazustaren **Bizia garratza** da-ren protagonista bat mehatzlanetan ari da.
- 6) FRITZ, Martin: **Deutsche Literatur im bürgerlichem Realismus 1848-1898**, J.B. Metzlersche Verlagsbuchhandlung, Stuttgart 1974. 16 or. "jede einzelne Dichtung und darin, wie sie dies Verhältnis zwischen dem Subjektivem und Objektivem, zwischen Ich und Wirklichkeit gestartet, zum Ausdruck einer individuellen Welterfahrung"
- 7) BOSCH, Andres-Garcia Viño, M: **El realismo y la novela actual**, Publicaciones de la Universidad de Sevilla, 1973, 42 or.
- 8) MEDINA, J.T. o.c. 30 or. "tensión between romance and reality"
- 9) LUKACS, Georg, **Der russische Realismus in der Weltliteratur**, Aufbau-Verlag, Berlin 1952, 154 or. "Tolstois litera-

- rische Tätigkeit ist also - in weltliterarischen Masstab - ein erfolgreiches Schwimmmwn gegen den Strom des Niedergangs Und der Zerstörung des grossen Realismus"
- 10) HERNANDEZ ORTIZ, Jose A. :**La génesis de la Lozana andaluza. El realismo literario de Francisco Delicado**, Ricardo Aguilera, Madrid, 1974, 42 or.
- 11) Ikus E. CURRENT eta W. PATRICK: **Realism and Romanticism in Fiction**, Chicago 1962, 96 or.
- 12) MONTESINOS, José: **Costumbrismo y novela**, Castalia, Madrid, 1960; A. Valbuena Prat: **Historia de la literatura española**, Gustavo Gili, Barcelona, 265 hurr.
- 13) "an elaborate effort to reproduce the flat quality of ordinary speech". PERRINE, Laurence: **Literature, Structure, Sound, and Sense**, Harcourt, New York, 1981, 904 orr.
- 14) GOLDMANN, Lucien: **Pour une sociologie du roman**. Paris 1964; J.I Ferreras: **Los orígenes de la novela decimonónica, 1800-1830**, Taurus, 1973. Ikus idazlan honetan LUKACS-i buruzko bibliografia.
- 15) MONTESINOS, José: **Introducción a una historia de la novela en España en el siglo XIX**, Madrid, 1955, I, ix.
- 16) PEREZ GALDOS: "Observaciones sobre la novela contemporánea en España" en **Revista de España**, 15 (1870), 167, Medinaren liburutik jaso, 52 or.
- 17) Ikus EIZAGIRRE, Joseba: **Ekaitzpean. Ipuinberri**, Edit. Vasca Ekin, S.R.L. Buenos Aires, 1948
- 18) Ikus LUKACS, G.: **Deutsche Realisten des 19. Jahrhunderts** A. Francke A.G. Verlag, Bern 1951, Hitzaurrean.
- 19) SASTRE, Alfonso: **Anatomía del realismo**, Edit. Seix Barral, S.A. Barcelona, 1965, 119 hurr.
- 20) **Joañoixio**, 10 or.
- 21) MEDINA, J.T. o.c. 30 or.

Gauzak aiaatzen dira, egiazko euskal literatura hasten da. Hala ere, jakin behar dugu mundu guzian, literatur hizkuntza bat preza literarioan funtsatzen dela. Badira bertsoak, baina hauek beti lehen-epokako gatzak dira, toki guzietan egin izan dira.

Euskal Herrian apezak ez dira egiazko kultur goi-mallako pertsonak. Euskal Literaturan gauza batzuk falta dira, ez dugu modelu estetiko bat, gauza bat idazteko mundu guzian tradizio baten bidea eratu izan da, hau ez dugu hemen, beti kanpotik hartu izan da. Bestalde, euskaldunek munduan gertatu diren gauza guztiak ignoratu egin dituzte. Aldi hontako Euskal Literatura hartzten baduzu, pentsa dezakezu Marten edo Jupiter-ren izpiratu zirela. Beste herrietan, nazionalismo bat sortzen denean, beti hizkuntza nazionala goraipatzen da, Hungrian eta Rumanian gerta ohi den bezela. Halaz ere, Euskal herrian ez da holakorik gertatu, beti erderaz mintzatu izan da. Euskal abertzaleek ez dute sekula interesik eduki euskal literaturaz.

Euskal Literatura badirudi beti izan dela, beti "tonto" bezela gera zedin gauza bat. Zorionez gauzak aldatzen joan dira, badirudi aldakuntza bat sortu dela. Baina nik ikusten dut arrisku bat ere. Beno hontaz gero mintzatuko naiz. Euskal herrian frankismoaren geroztiko kultura maila oso apala da, eta hain apaldu da, non egiazko goratzeko esfortzu handi-handiak egin behar liratekela.

Alfontso Irigoien: Nik ere zerbait adierazi nahi nuke E. Literaturaren jatorriaz. Egia esan, Krutwigek ondo esan duen bezela Ifarraldeko Literatura historian zehar XVI mendetik hasita nagusia izan da. Jakina hori bere garaian kokatu behar da, bereiziki eleizaren mendean baitago. Baina edozein modutan ere, Ifarraldean mugimendu sendoagoa dago, Hegoaldean Franco hil geroztik handiagoa izatera iritsi delarik ere. Baina jakina, kontrarreformaren garaian hegoaldeko apezpikuak esan zuten dotrina euskaraz egin behar zela, inork ez baitzuen erderaz ulertzen. Baina gauza batez ohar-tua nago: Hemengo dotrina hori beti erderaz egiten dute eta gero euskaratu, itzuli, linguistika aldetik interesgarria izan daiteke baina azken finean ere, itzulpen bat da. Honetan, beti Mogel aipatu izan da eta betiko topikoetan erori, zeren eta "Peru Abarca" literatu diglosikoa baita!, eta guk ez dugu ahaztu behar diglosian bizi izan garela eta bizi garela. Aspalditik datorkigun gauza bat da. Narrazioaren bat badago, erderaz dago, eta literatura narrazioa ez bada, zer arraiio da?. Noski "Peru Abarca"ri asko zor diogu, eta ez dugu sekulan ere ahaztu behar egoera diglosikoa zenik.

Egia esateko, garai honetan ez dago egiazko euskal literaturarik, egoera diglosikoan oinarritzen baitzen egiten zen guzia.

Arana Goirik ere sorturiko korronteak eman zituen bere fruituak. Baina mugimendu hontan beste problema bat zegoen gerla geroztik gaintu ez dena: purismoa, ezjakintasunean oinarritua, hizkuntza ideal bat bezela planteiatua.

Honekin loturik dagoen gauza bat bururatzen zait: Euskaltzaindiak Arantzazuko bilera baino askozaz lehenago agiri bat atera zuela, purismoaren aurkakoa ber- rau. Honetaz gaur egun ez da hitzegiten, baina zera azpimarratu behar dute: gaur egun "h"aren arazoaz sortu izan diren iskanbila guztiak baino askoz gogorrago izan zela, ikaragarriko amorrak sortu izan ziren orduan. Baina nola gero borroka "atxistikoa" etorri zen, arazo hau pixka bat baztertua ikusi zen, eta orduan "h"aren kontra zeuden batzuk ahaztu ziren asunto hortaz eta ahora etortzen zitzaizkien hitz guztiak erabiliaz idazten hasi ziren, honela ba, "de facto" ontzat hartu zuten Euskaltzaindiaren erabakia.

Gerla ondoren literaturari bideak nolabait irekitzea posible izan zen noski, hizkuntzaz ari naiz, eta hor zegoen adibidez Zeruko Argian idazten zutenak, nahiz eta hain "zerutarrak" izan ez.

Bestaldetik, poesian esan dezagun nahiko ongi gabiltzala, zeren eta joera guzti-koak baitaude, nahiz eta batzuk beste batzuekin hain ondo etorri ez arren, hor gus- toak egoten baitira. Gaur egun kontuan hartu behar baita nire garaiko "ismo" haiek ez daudela eta era guzietara idazten dela.

Prosari bagagozkio, errekonozitu behar da gaur egun ez dagoela ugaritasunik, eta nobela sariak orain sariak hartu barik gelditzen dira. Jakina, prosaz idazteko lana egin behar da... ondo tramatu... Hau gaintzen badugu, gure literaturarekiko norma- lizatorantzako bidea bilatuko dugu, baina jakina, nobelan hitzegin behar duten pertsonai guztiak euskaraz hitzegin beharko dute, nahiz eta errealtatean horrela ez gertatu.

Badugu, ba, nolabaiteko literatura, baina oraindik gaintu beharra dagukagu. Bereiziki orain, zeren eta euskara salbatuko bada, euskal literatura bat behar da! Hau da: literaturarik gabe, ez dago inongo euskararik salbatzerik!.

Moderatzailea: Bernardo: zuri dagokizu

Bernardo Atxaga: Barkatuko didazue nerea irakurtzen badut, zeren aspaldi hontan ideiak nahiko suelto baitarabilzkit buru alde hortan. Orduan hemengo lotzea denez, lotzeko sistimarik egokiena idaztea da.

Zuek denok ondo dakizuenez, hitzegiterakoan nahiz eskribitzerakoan ere, askotan hasiera ematea izaten da zailena. Isiltasuna egoera goxoa zaigu nolabait. Esango nuke sabel edo altxo baten modukoa. Eta beraz, ene eritzirako, bortxa bat da, eta bortxa baten medioz sortzen da hitza. Bortxa baten bitartez mundiratzten.

Horratik, hizketaritzeak bere minak dituelakoz, nereak ez diren esan batzukin hasiko dut ene jardunaldia. Eta hori baino lehen hona hemen ene gaurko jardun honen itzulia. Izango litzateke: "GAURKO EUSKAL ESKRITOREAK EDO LENGOIAI LITERARIOA". Bai, gaur ideia batzuk azaldu nahi dizkizuet euskal eskritoreak, azkenaldi hontako euskal eskritoreak darabilzkiten lengoai literarioari buruz.

Ume txiki batek bezela, kantu zahar batetan pairatu izan ditut ene begiak. Zehatzago mintzatzearren, Azkuek Markina aldean bildutako ipuin bat hartu dut aintzakotzat; arestian aipatzen diren "nola hasi", "nondik hasi" prolema hoiak sor ez daitezten seguru asko. Formulak, ipuin tradizional hoi azpiko formulak, ugariak dira. Euskarazko ipuin asko, esatebaterako, honela hasten da: "Aspaldi batean...", "bazen behin...", "Munduan beste asko bezela...". Edo bestela "Behin batean, Jesukristo gure jauna lurretik zebilela..." Gaztelaraz: "erese una vez...", "había una vez...".

Jasotako "Errege tajua" deitzen den ipuinak dauka formula ederrena, ikusi izan dudana formularik ederrenetakoa. Eta dio: "Oso aspaldi, desiatzeak artean edozer-tarako baliatzen zuen denbora hartan...". Eta jarraitzen du, baina beno, esanahia azken baten zera da: gaur egun ere desiatzea alferrikakoa dela, joanak zaizkigula urte eta zilarrezko egunak. Litzakeena da, ba, euskal literaturari buruz hitzegite-rakoan holako formula askok, paradisu galduaren aztarnak ekartzen dizkigute. Baina nik, gure eskritoreen lengoai literarioaz hitzegiten hasteko aukeratu izan dudana formulak, baita ere, paradisu galdu bateaz mintzaten da. Eta zer xhetasun: zituen aspaldiko formula harek paradisu izateko?. Hain zuzen hau dio: "Aintzina, belar, txori, abere eta piztiak heuren berbetea ahaztu baino lehenxeago, errege bat bizi zan." Urre eta zilarrezko denbora haietan beraz, guk geu ez ezezik, den denok, lengoiai bat genuen. Eta jakina, elkar ulertzen genuen denok. Esan dena da, gizona natura-lezarekin bat eginda bizi zela. Formula hori irakurri bezain azkar, ideia horren zabal-tasunaz ohartu nintzen. Hori ez da bakarrik Markinakoa, nik entzuna bainuen nere amaren ahotik formula horrekin lotuta dagoen historia bat: "Ba doiaz bi erro-mes Santiagoko bidean, eta derrepente bi bidekin aurkitzen dira, eta orduan ezta kite zein bide hartu, eta erromes batek galdetzen dio beleari: Zein da Santiagorako bidea?, eta beleari erantzuten: "Ua! Ua! Ua!. Gero beste erromesak esaten dio: Zer esan dik?; eta besteak erantzun: "Ba, hau ez dela, beste hura dela". Eta besteak orduan: "Eskerrak hik belearen erdera ezagutzen huala, bestela ez ginuaz enailegatu-ko!"

Orduan, kontuan hartu bi erromez hoietariko batek ez zuela belearen erdara ulertzen. Eta hara hor non ateratzen den liburu bat; nere ustez zoragarria: Joxe Arra-tibelet, Ataungo aitton bati jasotako ipuin bilduma bat. Liburu horrek bere 159gn. orrialdean hau dio: "Gauz guziak zekiten hizketan, belarrak, zuhaitzak... Animaliak ere bai. Bakar bakarrik borondiak ez omen zekien. Orduan beste gauza guziak bildu ziren borondiari hizketan erakutsi gelditu ziren. Horregatik, geroztik, gauza hauek denak ez dute hizketan egiten.

Kontua da, nik, gure egoeraren metafora bat ikusten dudala ipuin horretan. Madarikazio baten bitartez heuren berbetia ahaztu egiten duten txori, belar eta abere hoietan. Madarikazio hori ez ote da gugana iritsi?. Ez ote gaude gu ere fatalitate horren azpian?. Olatuak ez ote gaitu harrapatuko?. Belar, abere, eta pizteak pairatutako madarikazio berbera ez ote dugu?.

Gure gizartean ezer bada konstantea hizkuntza galtzearen beldur hori da. Fatalitate horren presentzia. Esaera batek erabakitzen du arazo hori dena. Bertsolariek, (eta Arestik berak) nonnahi erabiltzen duten errekurso bat: "euskara ez da galduko ni bizi naizen artean". Inork ez dit ukatuko hitz hoiak izkututzen duten desesperan-tza. Moby Dick-en aurka doan kapitainak bale harekin duen borrokan zerbait antze-rako aipatzen du. Baina hori ez da huskeria!. Bizitza hain da denbora gutxi!, zein patetikoa den hain tamaina handiko bale bati arma txiki baten fatalitatea kontra-jartzea!.

"Euskarak, poker partida honetan, diru guzia galduta, erlojua galduta..."

Egoera honek, (eta jakina, hizkuntza galtzearen datu objetibuak ez ezik ere siko-logikoak sartzen dira) errealtatea eta beldurraren eragina azalduz du. Egoera horrek gaurko eskritoreen lengoai literarioa ziharo kutsatzen du. Jakina, lengoai literarioa hizkuntza da neurri handi batetan Mallarme poetak lehengo mendearen bukaeran esan zuen: "poesia ez da idearekin egiten, hitzekin egiten da poesia". Oraindik ere badira Euskal Herrian poesia ideia baten arabera egin behar dela pentsa-tzen dutenak. Dena dela ere, nik uste dut, eta esperientzia pixkabat duenak ere bada-ki, ideiak ez dutela ematen ezta folio erdi bat baino gehiago betetzeko ere. Hitzekin egiten da.

Baina dena dela ere esan behar bada ere lengoai literarioak hizkuntzari zor diola bere izatea, ez da bakarrik hizkuntza ere. Skeiner-ek dioenez, Literatura lengoai-a litzateke baina erabilkera berezi baten ondorioz. Iortzen den lengoia.



Orduan kontua zera da: hizkuntza galtzearen beldur horretan gure egoeraren metafora bat ikusten dudala. Literatura ez dira ideiak, lengoia da, ideiekin ezer ez dela izkribitzen. Eta proba ba... Azken 10 urte hauetan atera den poemagintza ahula da, zeren eta poema bat ez baita ideia bat hartu eta gero hau desarroilatu bertso librean hala dena delakoan.

Lengoia, literarioa izan dadin badaude beste konotazio batzuk: informtaiboak lengoiaren bitartez informatu egiten du baina literarioak ez du erresponsabilitate hori, eta badu ere, bigarren maila baten gelditzen da. Bereizkuntza hontatik nik ateratzen dudana zera da: ESTILOA, literarioak estiloa du eta besteak ez. Beraz ba, lotu bi puntuak: hizkuntzaren egoera eta literaturaren lengoia. Orduan galdera litzateke: ba ote daude besteak baino egokiagoak diren hizkuntzak?. Ez da tontokeri bat, zeren eta askok eta askok galdetzen diote bere buruari ea hebraieraren gramatika ba ote zen potentzian poetika bat eta horregatik ez Biblia bezelako liburu bat hebraieratik atera zitekeen? Orduan euskarak ba ote dauka bere barnean literatura galerazteko?.

Nik garbi ikusten dut puntu bat, oso tamalgarria dena literaturarentzako. Gehienbat prosarako dena: uste dut aditzaren iraganean oztopo handi bat dagoela prosarako euskaraz. "Había llegado al puerto" euskaratzea neretzat ez dago hain garbia. Gaur egungo euskarak horren ordeztako aditzik ba ote du?. Euskal nobeletan ikusten dena hau da: oraina izugarri sartzen dutela eta hau adibidez, Saizarbitoriarengan sumatzen dugu, ez du iraganaren joko hori azalduz.

Uste dut horregatik onartu izan direla hain azkar Frantziako teori literarioak, berauek oraina erabiltzen baitute.

Bigarrena: dirudienez, hizkuntzaren egoerak Batua era berezi batean erabili izan duela. Hizkuntzaren batasuna hain epeziala da!. Zeren eta beste herrietako literaturan aurretik joan baita obra literarioa berorren batasuna baino. Dantek bere garaian egin zuen bezela, lehenengo bere obra azalduz eta gero, bigarren pauso bezela, obra horrek hizkuntza bideratzen du. Hemen Batua askoz ere aurre egin izan da beldur horrek eragin da, eta zer norainoko ondorioak eduki dituen ikusiko nuke, baina bat hau da: erizpide hestuak erabili izan direla hori egiterakoan. Batua makina baten antzerako gauza estatiko bat bezela. Erregela fijoak dituen hizkuntza bat bezela. "Eta honela batuaren arauak hain hertsia izatean ondorio batzuk ditu gaurko eskritoreengan.

Azken hamar urtetako obrak hartzen badituzte egoera harrigarria da: lexikoa, adjetibazioa eta sintaxia berdina da; denok forma berdinak erabiltzen ditugu, adjetibo berdinak, hau topikorik handiena eta gauzarik merkeena baita. Nik uste dut egoera hau zeretik datorrela: batasuna berandu etorri delako, eta gainera batasan hori oso baldintza berezietan azaldu delako.

Euskal lengoi literarioak kutsatzen duen beste elementu bat erderarekiko amnesia da, (Federiko ez da nerekin konforme egongo baina...) hau gauzarik xelebrena da: Euskal idazleek lana egiten dute gaztelarrik ez balego bezela. Gorago aipatu dudan beldur horrek, orain esan dudanarekin lotuaz, izugarritzko ondorioak ekarri ditu. Honela zer gertatzen da? Azkenengo euskal eskritoreen lengoia aberrazioz beteta daukagula. Nere ustez idazterakoan, idazle batek jakin beharko luke zein dagoen gonbidatuta bere mahaira, hauexek baitaude: zu (idazlea), zure paradisu eta zure gorabera guziak, euskara (dudarik gabe), eta noski gaztelania. Hau ez bada kontutan hartzen, erreflexio hau ez badugu egiten euskal lengoi literarioa zer izan behar litzatekeen berririk ez dugu."

"Bestalde gramatika guziak dute beraien poetika, eta nere ustetan euskarak poetika handia du, baina poetika hori ez da inoiz azalduko erderarekiko amnesia horrek dirauen bitartean."

Federico Krutwig: Zerbait esaten nahiko nuke. Literatura hizkuntza guzietan beti dago "Niveau du langue", hizkuntzako nibela, eta euskarak ez du holakorik, badakigu "niveau" hori ez dugun bitartean ez zaigula posible literatur hizkuntza bat egitea. Hizkuntza beti baita herri baten ispilua, eta dudarik gabe, herri honetako burua erdelduna da, noski, baina bestalde, munduan zehar kultur hizkuntzak eta gizon jennialak, kultur hizkuntzetan oinarritu izan dira. Eta egiazko kultur hizkuntzak lau ditugu: grekoa, semitikoa, txinoa, eta gerora frantzesak, eta beste hizkuntza guziak beharko dute hoietatik jaso. Horregatik, Euskal Herrian beste hizkuntzei begiratu beharra daukagu, baina kontuz! ez espainolari! beste kultur hizkuntza hoiei baiziki. Zeren eta guk nobela bat idazterakoan erderaren modeloa badugu, euskara erderaren edo espainolaren laguntzaile ez beste bilakatu zaigu. Kontuan har euskaldun askok eta askok zera usten dutela: erdera dela literatura osoa, eta ahantzi gabe utzi behar duguna da erdera beraz ere hizkuntza marjinal bat beste ez dela. Goethe, Racine, Corneille eta hainbat idazle ospetsu hartzen baditugu ikusten dugu nola hizkuntza klasikoaren ezaguera izan dutela, gero beraien kultur hizkuntza hobetzeko eta goratzeko.

Orain batueraz askotan estilo aldetik ikusten diren gauzak tristeak dira. Horregatik nik askotan erran dut gure literatur hizkuntza labortera klasikoa litzatekeela. Atxagak lehen "había llegado" hortaz aipatu duena bideratzeko lapurtera klasikoan badaude bi forma: "etorri zen" eta "etor zedin" eta azkenengo hau eskuratzea dago kigu.

Alfontso Irigoien: Bernardok alde batetik lengoai literarioa ukitu izan du, baina gero planteiatu duena izan da euskara gai ote den lengoai literario bat edukitzeko. Hori dagokionez nire ustea hau da: euskaldunek lengoai hori ez badute, beraiek dutela errua eta ez euskarak!

Bestalde, Krutwigek lehen, tradizioa aipatu izan du, eta nire ustez ba hemen bertan hor dugu Leizarraga bat, honen hizkuntzak balio digu, behar bada gaur egun "etor zedin" esatea arkaismo bat litzateke baina badaude beste era batzuk, "etorria zen" bera edo horrelako zerbait.

Bernardo Atxaga: Beno, jarraituaz. Demagun oraintxe bertan, XVI. mendean ispiraturiko nobela bat eskribitzekotan nagoela. Jo dezaket Axular edo Leizarragarengana. Baina zer gertatzen da nere nobela hau gaurko egoera batean znetratuta, kale giro batean funtsatua badago?. Ba Axularrek eta Leizarragak ez didatela ezertarako balio. Ahaztu gabe utzi behar duguna da, kultur hizkuntza eta lengoai literarioa ez direla gauza berdinak, eta ados nago esaten denean hizkuntza klasikoetan pairatu behar ditugula gure begiak, baina nobela bat egiten gaudenean ezin dugu "etor zedin" sartu "habia llegado al puerto" bezelako kontextu batean. Hau da, literatur hizkuntzan ezin zara pairatu XVI. mendeko Axular edo Leizarraga batetan. Ez digute balio. Euskarak gaur egun literatura bat nola egingo du, ba, duen literatura historia traketarekin?. Guri ez zaigu tradizioa falta, guri antezendeteak falta zaizkigu!. Oraintxe bertan irrati nobela bat egitea nahi badut, ez dut non pausatu nere ideiak, ezer ez baita sekula egin, erreferentziak falta zaizkit. Nik metaliteratura egitea nahi dudanean, eta metaliteratura da J. Sarrionandiak bere poesian egin duena, zeren eta erreferentzi bezala Elliot hartuaz egin bait du bere liburua, prolema operatiboarekin aurkitzen naiz.

Literatura zerbait marjinala da. Literaturaren prolema egitekoa da. Literatura ez da "kultur" horretako pertsonalizazio inportante bat. Beste alde eta esan denari erantzunaz, ez dut uste espainolaren literatura hain marjinala denik zeren eta hor dugu Cortazar bat adibidez.

Nik euskararen erreferentzi bezala erdera edo gaztelania hartzen badut ez da kapritxo literario bategatik eta arazo hori aintzakotzat ez hartzeak neretzat ez du zentzurik, zeren eta ene bizitza erderaren eta euskararen artean murgiltzen baita. Euskarak ez du erreferentziarik, eta horregatik jo behar dut erderara.

Maripi Solbes: *Idea batzuk apuntatu ditut hemen, eta hoiek azalduko ditut.*

Euskal Literaturan neri zer interesatzen zaidan galderari erantzuteko, ba, zera esango nuke: azken finean ez zaizkidala gauza asko interesatzen, ez baitago ia deusik ere eta ez dagoela holako gauza bat bat ikusi eta gustora gelditzekoa. Agian, gauza zaharrak irakurtzen ditudanean, beno, gustora irakurtzen ditut nahiz eta betiko roiloak izan, baina badut holako ari bat eta idazteko moduan badago zerbait ikasteko, gaur egun idazten diren gauzetaz kanpo. Adibidez, Yon Etxaide batek idazten duena ez dit ezertarako balio baina bai nola esaten duen.

Literatura neretzat normaltasunetik atera behar den zerbait izan behar da. Nork egin du Literatura Euskal Herrian?, ba, apaizek eta hoiek sekula ez dute ezer askatu, ez dago ezer interesanterik hoiek idatzi dutenaren artean, orduan, ba, hizkuntzaren gustoa beste ez duzu jasotzen, roiloak baitira.

Zerbait idazten baduzu, uste dut ezin duzula gramatikazko araudi batzuen birtartez idatzi, araudi hoiek nere espresibitatea mozten baitute, eta Literaturan sorketa bat dago. Askotan Gramatika eta beste gauza asko aztertzen hasten zara eta kodigoak bakarrik aurkitzen dituzu, eta neretzat Literatura kodigoaz aparte beste gauza bat ere bada.

Prolemarik handiena libertate faltan dagoela usten dut, espresatzeko moduan, sortzeko moduan...

Orduan, nik zergatik idazten dut?. Ba, errealtatetik kanpora eskapatzeagatik. Gaur egun adibidez, neri gustatzen zaidana "rock and roll" mugimenduaren inguruan dagoena izan daiteke, hau da, linea batetik baztertuta gelditzen diren gauzak, postura hau dagoeneko, gazte jendeak barnean daramaguna baita. Uste dut, horrelako posturak edo jarrerak zer ikusi handia dutela literaturarekin. Esate baterako, "Xaguzarra" eta azken aldiko gauza hauek oso interesanteak direla pentsatzen dut, gehienbat ere hoiek nahi dutena, lagun bati gauza batzuk esatea eta lagun horrek ondo pasa dezala delako. Pixkabat betiko militantismotik "passo" egiten dutenak direlako.

Beste puntu bat ere aipatuko nuke: nesken literatura. Honelako literaturarik gaur egun ez dago. Zeren eta zaila bada zerbait idaztea eta idazten duzunean zerbait kontatzea, sistema sartzeta edo ez sartzeta duzu. Betiko roiloa. Sartzen bazara posibilitate guziak ukatzen zaizkizu eta etxeko andre izatera helduko zara, eta beste postura bat hartzen duzu eta horren aurka jotea. Neretzat nesken literaturarik ez dago neskek idazten ez dutelako.

Zertarako idatzi? Euskal Herriaren eta euskararen geroari begiratuaz, benetan, honela idazteak ez du inolako alizienterik, ez dago motibaziorik. Askotan pentsatu izan dut asmo hoiek bideratzeko, hobeto egingo genukeela beste gauza batzuk egitera zuzenduko bagina. Ba ez dakit pelikulak edo batek daki zertan.

Azkenik ba betiko gauzak esango nituzke: literatura eta hizkuntza elkar loturik daudela, eta ez dakit zer... Baina bakoitzaren buruan ez dugula libertate bat literatura egiteko.



LANGABEZIAREN IZAERA

Ekonomilari burjesek langabezia azaltzen digutenean, hura sistemaren gaitortasun iragankor bat dela kontentzitzeko besterik ez da. Honela azaldurik langabezia gripearen antzeko zerbait izango litzateke, behar diren sendagaiak jarriz gero erraz sendatzen dena.

Gezur hutsa, langabezia sistemak bizitzeko beharrezko duen atal bat da, ekonomia kapitalistaren bizitzarako premiazkoa baita. Baina langabezia bere benetako kontextuan ulertu behar da, eta hau nahitanahiezkoa da langileek langabeziaren kontrako burruka jarrai dezaaten, burjesiaren azalpenen tranpan erori gabe. Sistema kapitalista hautsi artean, langabeziaren kantzerrean erortzeko arrisku gorrian biziko gara.

Terminologia marxistak langabeen multzoari "Erreserbako Armada Industrial" deritzo. Langabeen benetako "bataloi"ak kapitalari gauza batzuek seguratuak dizkio:

- 1.- Langileak bildurrez bizi direnez, salarioen urriketa. Langileek berehala makurtuko lituzkete beren buruak lanpostua ez galtzarren. Eta langabezia bizi direnek gustora hartuko lukete eskas ordaindutako lana.
- 2.- Langabeziaren bildurrak langileak kapitalaren eskakizunak (lan eritmoaren gorakada, lan baldintzen gaizkoatzea) onartzera bultzatuko lituzke.
- 3.- Bultzatuko lituzke baita ere lan txarrak, arriskugarriak eta degradanteak onartzera, zeinak langabeziaren bildurra ez balitz onartuko ez lituzketenak, eta onartzekotan oso ondo ordainduak.
- 4.- Langabeziak langileen arteko elkartasun eta bata-

"Errua, Bruto maitea, ez da haiena, gurea baizik". *Shakespeare.*



sun falta zabaltzen du, eta langileen indarra gehien behar den une honetan galdu edo urritu egiten da.

Enpresarioen klase-instintuak langabeziarik gabeko egoera arriskugarriztat ikusiko luke. Zeren langabezia barik: a) despidoak ez luke gaur betetzen duen zigor papera beteko. b) langileek, beren lanpostuak edo lana arriskugarrian ikusiko ez lituzketenez, greba eta halakoetarako joera peligroroso izango lukete, salario de-xenteagoak eta lanean hobekuntzak eskatzeko, jakina.

Gehiago esanez, guztiontzako lana dagoenean langileen burrukarako gaitasuna indartsua da eta honek inestabilitate soziala (eta politikoa) ekartzen du. Bestaldek ez dute lan txarrak onartzen eta laneko indiziplina gogorra da. Guzti honen kostuen goratzea dakar eta enpresarioak beste teknika batzuek erabiltzera bultzatzen ditu, lana kapitalaz trukatu eta honela Erreserbako Armada Industrial handitzea.

Ekonomilari burjesek ez dute inoiz guztiontzako lana proposatuko... hauteskunde garaian izan ezik. Honela Ekonomi ministro-ohiak, Fuentes Quintanak, Espainiako ekonomiarako o/0 4eko langabezia tasa jartzen zuen helburutzat.

Langabezia ez da katarro bat. Kantzerra dela esango nuke, sistema kapitalista hautsiaz sendatzen dena eta hau egun batetik bestera lortzen ez denez, eta are gutxiago burjesiarekin paktatuz, langabeziaren kontrako burruka guztiek helburu bera behar dute: sistema apurtzea, sistema zulatzea, biharamunean eror dadin.

M. Corta

GEURE ARBAGO GALDUA

SIBERIAN,
HALAKO
9012 BATEAN



GELDI!!
GELDI!!



UF, EZIN
IZAN DUT
GEHIAGO



ZIENTZIA
GIZONOK
ERE GEURE
BEHARRIZAN-
TXOAK DITUQU
ETA...




AIBA
DIOS!!



ZATOZTE,
ZATOZTE HONA



ZER DUK
HAU ?



LURRALDE HAU NOIZKOA
DEN KOMTUTAN IZANIK...

EL JUEVES-etik hartua

ANIMALIA HAU TXIMINDA ETA GIZONAREN ARTEKO GURE ARBASO GALTUAK IZAN DAITEKE



BERAZ, ORAINTXE ARGITUKO DA EBOLUZIOAREN MISTERIOA

AGERIAN UTZI BEHAR DUGU. EA, DENDK LANEAN



ORDU BI GARRENEAN

NIRI, AMAITU ZAIT DEPOSITOA

BA, NI, MOZKORTU NAIZ



EZ! EEZZZ!!

GOAZEN HEMENDIK ETA INORK EZ DU IKUSI EZER BALE?



BAI
oui
YES
SI



VENTURA & NIETO - 82

KRONIKA

I

Hilbeltz honetan euri artean mendietan zenbait otso Anaitasunak bertso aukera eskainia digu atzo bapatean larri nabilen arren lan hau gogoko dut oso baina, gai ote natzaizue ni idazteko mantso-mantso; bihoaz, hor ba, honen atzetik holako beste sei bertso.

II

Neretzat ez da garrantziduna galdu edo irabazi euskaldunok ez baikara beti ogia ahoan bizi funtsezkoa da aldizkarion gauza askotaz idatzi, Euskal Prentsaren langile finok ez, ez dezazuen etsi guztiz aurrera eta piz dadin egun, bihar edo etzi.

III

Eguna joan eta berriz etorri hauxe da berri ezta aisi tarreak igarotzeko ez da modu garestia bertso edo koplaz izanik ere konta daiteke guztia Eta gainera, dudarik gabe, denok daukagu astia ardo goxoa bihur dezagun euskararen mahastia.

IV

Gai konkreturik ez dut gaurkoan pare bat hitz denetarik urrutiraino ailegatzeko izango ote dut betarik? Aupa Joseba, helduko ote zaik hau bezalako kartarik? gük beste gustoz jango ote duk jaki eta oilo iztarrik?... hiretzat beti izango diagu sagardo eta gaztarik.

V

Lanik gabeok alai zaitezte helduko naiz zuengana langileok inoiz izango dugu geurea lansari dena, tarte horretan ba dago lasai

denontzako nahiko jana, orduan baietz beteko dela Marxek aspaldi esana Asmo hauen kontra ba al da inor langile sentitzen dana?

VI

Arazoa non nere hitza han Kantauri itsas baratza problema latzak konpondu nahirik geldirik dago arrantza, beste askotan, berriz, gakoa elkartasun ezan datza. Ez du usainik gure larrosak zorrotzak baizik arantzak, noizbait, dena den, kezka utzi eta gogotik dagigun dantza.

VII

Horra munduko zenbait notizi asko falta da halere, garbi dizueta lerroetan ez dagoela bare-bare, zuen epaia lasaiki eman ez naiz izango haserre, esan beharrik ez dagoen arren zuek, onena ez erre, animoz banaiz idatziko dut hurrengo batean ere.

Herriagatik hilak

Iparragirrenen doinuaz.

I

Bertso batzuek nai nukez hemen orain irakatsi ta kanta, zerbait egiten hasi naiten garaia ere bazan ta; egoera tristea, ezta errez sinistea baiño gagoz antz emanta; burruka gabe ezer eztula lortuko sekula santa.

II

Aurrera jarrai beharra daukat heldu deusaten gaiari, Euskal Herria len bezelaxe badu etsaia ugari; otsoak dagoz artzai, artaldearen etsai, obispo ta agintari. Ai zelakoxe kristauak diran, laguntzeko herriaril

III

Argi erantzun beharra degu gertatzen diraden gauzai, disimuluan dabilta baiña nork ez dio hartzen usai, Euskera mingainian ta ederra soinian, kaikua jantzita lasai, abertzalea naiz esanta Euskal Herriaren etsai.

IV

Gaur abertzale faltso ugari degu hemen zoritxarrez, zenbat euskaldun dauden kartxelan injutizien indarrez; ta euskaldun batzuk hor, egiten dabe entzun gor, bere intentzio txarrez abertzaleak dirala honek sinistea ezta errez.

V

Maltzurra eta zikiña degu politikuen jokua, Herriarentzat hitzak ederrak ta eurak bete sakua, Harturik ikurriña, dana dute egiña, txapela eta kaikua baiña abertzale ona izateko horregaz ezta nahikua.

VI

Euskal Herrian bildu ezkerro etzaigu palta indarririk, hau danok ondo dakiguna da, eztago esan beharrik; ez det esango izenik, danak dakizutenik, badago paltso edarririk, Euskal Herrien arerio eztaz Madrilen bakarriz.


VII

Lengo abertzale zarren artean horrelakorik ote zen, Euskal Herrien alde burrukan denak zintzo eta zuzen, dudarik ez horretan hor mendi tontorretan, zenbat kurutze dagozen, ta len bezala gaur hiltan dira denok ohartu gaitezen.

VIII

Ta bukaera eman beharra daukat hartu dedan gaiari, Euskal Herria askatzearen hil dira milaka anai Gudari leial umilak, Herriagatik hilak, Agur ta ohore danai, Zaibiko puntan eta Bizkargin hil ziradenai ere bai.

Gaztelu



Gure erriaren bizia aurrera
Ez da iñoiz gelditzen.
Danon eginkisunak, urduritasunak osotzen
dabolako, ta zuek umeok bere,
garrantzitsuak zarelako, geroa danona da,
Bizkaia olan landu da beti.
Indarrez, zurtasunez.
Gure erriaren sintzotasuna gogortuz,
eguneroko okerrak zuzenduz.
Gauza obeagoak sortuz.
Da olan jarraitu bear dau.
Ilusioz, gaur eta biar.
Bere sortzegunetik Bizkaiak eta bere jendeak
geituz laguntza eskeiñiz,
Bizkaiko Aurrezki Kutxa lez.
Danena dalako.
Bizkaia ori dalako.



*Nuestra gente.
Nuestra ilusión.*

*Gure herria.
Gure asmo bakarra.*

CAJA DE AHORROS
VIZCAINA



BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA

CREADA Y PROMOVIDA POR LA DIPUTACION FORAL DEL SEÑORIO DE VIZCAYA

SINGLEN ERABILERA

Idazteko alferkeriaren antzeko zer-bait dela edo ekonomia linguistikoa dela edo dena dela, izen konposatu batzu beren hasierako letren bidez adierazteko ohitura indartzen eta garatzen ari da gero eta gehiago. Komunikabide eta informabideetan normaltzat hartzen da jokabide hau, sigla horik, askotan baina ez beti, erakunde politikoen izena adierazteko erabiltzen direlarik. Adibideak ematea ez da batere zaila: UEU, PNV, EEE,....

Bide hau praktikoa gertatzen da, dirudenez, horrelako siglen erabileraren gorakada uka ezinezkoa baita. Lexikologiaren arloan, hitzak sortzeko bide berezia dela esan daiteke, aparteko azterketa merezi duena bestalde. Edozertara, gehiegi sakondu gabe, artikulu honetan horrelako siglen erabilerari buruzko ohar batzu egingo ditugu, praktikan erabiltzeko eta honetan batasun minimo batez abiatzeko baliagarri izango direlakoan.

Hitzak sortzeko bidea

Ez da dudarik, hitzak sortzeko bide baten aurrean aurkitzen garela. Artifiziala dela? Noski! Baina gure denboretako fruitu bat bide da. Hainbat eta hainbat hitz berri sortzen ari dira egunero bide honetatik, arlo batzutan behintzat; gainera hitz emankorrak dira, hitz erakarriak sortzeko gai baitira, ondoko adibideetan ikusten den legez: **jelkidea**, **peneubetarra**, **etarra**, **etazalea**, **uzeitarra**, ... Bestalde, sigla erabiltzean, deklinabide-atzizkiak lasai asko lotzen dira, hurrengo adibideetan ikus daitezkeenez: "Hori **HABE**koa da", "ETAk **atentatu bat egin du**",... Hau da, atzizkiak jartzen bazaizkie, hitz gisa hartzen direlako da.

Siglen idazkerarako erizpideak

Multzo desberdinetan bilduko ditut oharra:

1.- Hitz arrunt-tzat har daitozkeen siglak edo siglen hitz erakarriak kontsideratuko ditugu lehenik. Kasu honetan daudenek, besterik gabe hartzen dituzte deklinabide-atzizkiak eta letra minuskuluz idazten dira hitz arruntak egiten diren legez. Adibidez: "Arazo hau eztabai-datua izan da **jelkideen artean**".

Zientzia eta Teknikaren arloan si-

glen bidez asmatuak izan diren hitz asko erabiltzen dira. Adibide modura, **laser** delakoa aipa daiteke: **Light Amplification by Stimulated Emission of Radiation**.

2.- Erakundeen izena adierazten duten siglak, izen nagusi gisa deklinatzen dira, izan ere izen propioak baitira. Baina, deklinabide-atzizkiak jartzerakoan, idazle guztiek ez dute modu berean jokutzen. Bi jokamolde nagusi daude; Batzuk gidoi batez lotzen dituzte atzizkiak (UEU-k, PNV-k, HB-koak,...) eta beste batzuk, gidoirik gabe (UEUK, PNVk, HBkoak).



Sigla horik letra majuskuluz idazten direnez, ene ustez, gidoiak ez du funtzio berezirik betetzen, ez baitago nahasketa posiblerik; horregatik, egokiago ikusten dut atzizkiak ezer gabe lotzea, sigla eta atzizkien artean inolako tarterik utzi gabe. Arazo txikiren bat sor daiteke, zenbait kasutan, atzizkia zein den definitzeko; baina, tira, hori gidoia ipini zein ipini ez gertatzen da.

3.- Zer egin pluralak adierazten dituzten siglekin? Gaztelaniaz ohitura dago, bi letra direnean, letra horik bikoizteko. Adibidez, **CCOO** (Comisiones Obreras),

EEUU (Estado Unidos), **EEUU** (Escuelas Universitarias.) Ohitura horri jarraikiz, batzuk euskaraz ere berdin egiten dute eta horrela, **Estatu Batuak** (USA) idazteko, **EEBB** idazten dute. Euskaltzaindiaren testu batzutan ere antzera jokatu dute. Kasurako, **H** letraren ortografi arauak ematean, honelako gauzak idatzi dituzte "Leku eta pertsona izen propiotako **HH**-ak ez dira zerrendan sartu". "Hitz hasierako **HH**-ei dagokienez,..." (Euskera XXIV, 1979. "H" letraren ortografi arauak). Testu horretan horrelako adibide asko aurki daitezke.

Ez dakit zergatik erabili den bide hori, baina nik ez dut beharrezko ikusten edo bestela eta zehatzago esateko, desegoki ikusten dut, ez baitut uste ezer laguntzen duenik.

4.- Itzuli egin behar ote dira siglak? Horra hor erabateko erantzunik ez duen galdera bat. Ohituraren araua alde batetik eta zentzua erabiliz bestetik. Oro har, erizpide bikoitza erabili behar da:

— Edo izena erabat itzuli, zenbait kasutan egiten den bezela

URSS ----**SESB** (Sobietar Errepublikan Sozialisten Batasuna)

— Edo itzaltzen ez denean, jatorrizko siglak erabiltzea.

* **OPEC**: Organization of Petroleum Exporting Countries eta ez **OPEP**, hori gaztelaniazko itzulpena baita.

* **NATO**: North Atlantik Treaty Organization eta ez **OTAN**, arrazoi berberetatik.

Labur esanda

Beraz, itzulpenen kontua alde batera utzita, arauak finkatzerako orduan, proposamen hauk egingo nituzke:

a) Siglak letra majuskuluz idaztean, deklinabide-atzizkiak jartzean gidoirik ez erabiltzea eta horik siglen ondoren letra minuskuluz inolako tarterik utzi gabe eta besterik gabe idaztea.

UEUra, **UZEItik**, **EBetan**

b) Berez plurala adierazten duten siglen kasuan, letrak ez bikoiztea

Estatu Batuak: **EB**

Dena den, gauza guztiak bezala, praktikan ikusiko da, proposamenok egoki direnentz.

J.R. Etxebarria

TELEFONOZ

- Zer?
- **ANAITASUNA** aldizkaritik dei egiten dizut
- Kaixo! Bizi zarie ala?
- **Dena Beharrean!**
- Zer behar dozu, ba?
- **Ba begira, aldizkari honi beste irtenbide bat eman gura genezaiokeen eta...**
- Ta zer?
- **Zertxobait idatziko bazenu...**
- Idatzi?... Zetaz?... Norrentzat?... Inork irakurtzen dau ala?
- **Idatzi ezik ez du inork irakurriko eta... Zu, Eguzki, Euskeraren egoeraz arduraturik zaudela...**
- Gehien ere, ardurarik ezak arduratzen nau.
- **Nola ikusten duzu etorkizuna?**
- Politikoa banintz inoiz baino hobeto ikusten dodala esango neuskizu: "pues mire usted, hemos realizado una inversión de X millones en... señales bilingües... creación de un canal... emisoras con programación... dentro de siete años... "Honelango berbaorik, entzuteko erel Honela jarraitzen badogu, lasterrera euskerea exportatu egin beharko dogu! Beno, baina zuk ba dakizu, politika eratar datorrenean dala ona, osterantzean... eta neure kezka ditut.
- **Bizkaiko euskeraren egoera ez dela aintzakotzat hartzen esan nahi duzu?**
- Agirian behintzat ez! Eta ezkutukoetan ez naz sartzen. Begira, azken bolada honetan mila trakamila asmatu dogu euskerea dagoen atakatik atara eta toki urtenago baten jartzeko. Jakintsu ta ez hain jakintsukusorik erdiak hutsen emon baditugu ere "ahaleginaren faltan ez daukagu kontzientzian zorririkan", euskerearen aldeko ekinean; baina ondorenei ere begiratu behar jake: alde batetik euskaldunetan, sartzen dan baino gehiago desagertzen dala; eta bestetik euskerearen erabilera mehetu ta mo-



teldu egin dala. Orduan zerk edo zerk huts egiten dau hemen.

Ni ziur nago, batasunean, indar gehiago egiteko aukera daukaguna, baina ez naz jokabideak goitik behera erartzearen aldeko eta gainera arazoak mailakatu egin behar dira: kur-

tzulu argitan egia danak ez dau, derrigorrez, eguzki argitan egiak izan behar.

Egoerak aztertu egin behar dira. Nik, tamalez, zihurtasun bat daukat: Ondarroan bertako euskerea galtzen dan neurrian erderaz egingo dala; ez da ez bizkaierarik ez baturik ez enparaurik egingo. Hain esku daukagu erderal

Aho berokadak botatzea erreza da. baina hemen eskuetan daukagunaz baliatu beharra daukagu; ta azken baten erreferentziarik zihurrena egiten dana dogu, bizirik dagoena. Eta euskaldunok, gure urritasunean, danok dogu danon beharriana. Ni gertu nengoke hartzeko, baina hartzen dodan neurrian emotekotan.

Bizkaian, egunen baten, euskerea galduko balitz, (eta o/o40-ren batek egiten dogu bizkaieraz), ez dakit ze jokabide hartuko leuen euskereak, baina oso murriztuta geldituko litzateke.

Bizirik dagoena indartzea ta sendotzea dala uste dot, jokabiderik zihurrena. Bestela geure buruari harrika gabiltza. Eta bizitasunaren adierazgarrikerik sendoena ahoz-ahozko euskerea dala esango neuke, idatzizkoa honen errepresentazio urri bat delarik. Nik ez dakit zerk joko gaituen euskaldunok, baina sarritan, Atletik eta Realeko partidu bat bailitzan darabilgu bizkaieraren eta euskera batuauren auzia, alkarren aurkakotzat harturik, eta ez alkarren osagarritzat. Batzutan, batasuna bizitasunean ere badago, eta txakurrari amorrua kentzeko ez dago hil beharrik batzuk horrela uste izan arren.

- **Aizu, aizu... ez dut ongi entzuten!**

- Beno, parkatu, gaur dana batera ta nahasten erabili dogu, urrengoan argiago eta patxadatsuago.

ERLIJIO

KONTRABANDOZ ...

Ez dut uste inor harrutuko denik gure zibilizazio honen ezaugarri nabarmenetako bat zientzia dela esaten badut eta, era berean, gure bizitza moldeak aspaldidanik teknifikazio zabal baten bideetatik abiatuak doazela esaten badut. American way of life batetaz hitzegin ohi digute kazetariak, soziologoak, e.a...

Eta, egia esan, aitortu beharra dago oso alor emankorrak gertatu direla gizonarentzat aipatu ditugun bi gaurko ezaugarri horiek azken mendeetan gure gizarte honek egin duen aurrerakadari begiratzen badiogu. Izan ere zientzia modernoa eta teknika honek darabilten hizkuntza matematikoa ia ia razionaltasunaren beraren paradigmaz eta zerbaiten egiazkotasuna neurtzeko kriterio bakartzat hartu izan da.

Baina matematikaren nahiz edozein zientzia modernoren nahiz gaurko teknologiaren egia ezertxo ere kendu barik, hementxe gertatzen zaio gaurko gizonari gauza benetan bitxia.

Gauza guztiez jardun ondoren eta izadiko nahiz gizarteko zergatiak eta oinarrizko legeak agertu ondoren, susmoa ere sortu zaio gizon honi zergatik ezin ote daitekeen galdera orori arrazoi bidez erantzuna eta irtenbidea eman. Izan ere, gaurko gure gizarte honetan gauza normalena gertatzen da edozer gauzaren zergatia zorrotz baino zorrotzago eskatzea eta horiek argitzen joateko, bide batetik ez bada, bestetik jotzea. Eta hau, edozein alorretan: direla izadian gertatzen diren fenomenoak edo gizonaren ingurumarian sortzen direnak, politika eta ekonomiatik hasi eta ufologiak eta parapsikologiak diharduten alor zaibaletaraino. Arrotzeko edo festaren erregina bera dela uste izateko arrazoirik badu zientzia honek, hementxe ematen du, ene ustez, irristada haundi bat ere.

Zeren horren razionala eta zientifikoa agertzen zaigun gizarte honen erdian hor non azaldu ez da irrazionaltasunaren sekulako eztabaida: hinduista zaletasunak alde batetik, edo drogak, kirolak... zenbait adierazgarri esatearren, bestela luzatzerainoko gaia bai bait dago.

Eta zer esan guzti hauen nahiz beste hainbesteren inguruan sortzen diren "erlijioez"? Hara non, ondo janaren eta edanaren erlijioa edo deportearen erlijioa esate baterako. Eta ez pentsa irudi gisa edo aho berok ari naizenik: beste edozein erlijio bezala hor dituzte beren liturgiak eta erritoak e.a...

Dagoeneko ezer esan ez badut ere, berdin gertatzen ari da Europa alde osoan Nostradamus-en "profezien" inguruan. Frantziarrak txunditurik geratu dira irakurtzean, telebistak nahiz irratiak ere orduak eta orduak eman dizkioite, eta idazten ari den honen harridura oraindik haundituzteko, Frantziako lehendakariak berak ere bere ministroekin jardun omen du gai honetaz, eta, noski, zer esanik ere ez dago: "profezia" hauek azaldu dituen liburua best seller izan da Frantzia azken urte honetan. Eta guzti hau borobiltzeko, Europako beste herrialdeetako oihartzunaz batera, guregan iritsi da liburu hau eta libururaganako eta Nostradamusenganako kuriositatea.

Zer esplikatzen du boom honek? Zeren benetan harrigarria gertatzen da zientzia historikoen eta baita matematikaren analisi apur bati eusten ez dioten poematxo ilun hauek halako liluramen irrazionala sortzea neurri berean heuren buruak oso zientifikotzat dituzten hainbat eta hainbat europarren artean.

Dena den, aitortu beharra dago oso azkarra izan dela Nostradamus "igerlea"

aurkeztu digun J.C. De Fontbrune idazlea, poema hauen "ulerpenerako" orde-nadore baten laguntzaz baliatu denean. Agian horren zientifikoa kutsua duen datu honengatik ez ote dira agertu hain sineskor europar seriotsuak, bestetan erabil ohi dituzte zehaztasunak piska bat zokoratuaz?.

Ba legoke gaurko pentsabide hauei eta beste hainbati buruz ikerketa soziologiko batentzat baino gehiagorentzat lana. Gaur ez bada, bihar historiak egin ahal izango du. Hori horrela delarik - gero gerokoak - eta inori terrenoa jateko asmorik gabe, nire kazetaritzako presakako ikuspuntutik zerau aurreratu nahi nuke fenomeno honetan argi izpitxo bat egin nahirik.

Mundu honetan murgildurik agertzen den giza abere honek ba du beste abereek inondikan ere agertzen ez duten alderdi oso berezi bat, giza imaginazioaren eraginez sortzen dena: misterioarena, alegia. Hemen sartu genituzke giza alderdi benetan gizakoenak, esate baterako maitasuna, edo artea, edo beldurrak, giza proiektuak, erlijioa bera ere...

Eta... harrigarria dirudi, baina konparatu eginkizuna dutenak aipaturiko denak, sistematikoki bigarren mailara jaitiak izan ohi direnak edo zokoratuak, haztuak, irrazionaltzat edo, zenbaitetan, prezientifikotzat jotzen ez direnean.

Era honetara, orain ikusten ari gara gorago esaten genuen irrazionaltasunaren ezin geldizko igokada; edo, hobeki esanda, hor non azaltzen zaigun kontrabandoz sarturik - eta imitazio okerragotan, azalean zientziatzeko barniz apainak eramanarren - gure erditik uxatu genuen erlijio atala. Edo hara nola gizarte hau beldurrez jota dugun (gaurkoa bai beldur razionala; asmo txarrik gabe diot, gainera): lanik ezaren beldurrez, kutsaduraren beldurrez, petroleoaren krisialdiarekin batera sortu den ezualdiaren beldurrez, indar nuklearrak ikaragarri egin duen gerraren edo ezbehar baten beldurrez.

Ez da nire asmoa izan honekin ezertxo ere frogatzea edo panegeriko merke bat egitea. Kulturaz eta fedez eta heuren elkarrekiko eraginez ari garenez, pista labur eta periodistiko batzuek eskaintzea baizik bakoitzaren pentsabiderako. Hobekiago - eta sakonago - egin beharko digute ikerketan ari direnek.

Dena den, irakurle, gaurko gizonak dirudienek ahaztu nahi duen dimensio batetaz ohar arazo nahi nizun. Alderdi horri aurre ematen eta ez kontrabandoz ematen ba du nahiko zeregin. Asmatzea zailago bada ere, asmatuko al du.

Esteban Agirre

ZINEMA



Ni oso zinemazalea naizela esateak ba dauka harritzekorik? Eta zinemazale porrokatua naizela baldin badiot? Areago zinemazale porrokatua naizela eta zinemarik gabe ezin bizi naitekeela baldin badiotsut?

Nori eta neuri gertatu behar zitzaidana gertatu zitzaidan: igande arratsalde asperturik eta zer egitekorik ez norarik ez duen jende gehiena bezala, zinematokira abiatu nintzen, lehenbizi pentsaturiko pelikula ikustekotan. Hara nindoan ni, hara harro, hara ero, hara eratsu, poltriketan sosak txin-txinka eta oroimenean aurrez aurretik eserlaku erreserbatu nuelako prekauzioak ematen zidan poztasunaren haudia.

Euria goitik behera, niri berdin behetik gora balitz ere, bostxo ere ez axola. Ze axola eta axolaondo, segi aurrera, aurrera, oldarkorra haiz, inortxok ez hau geldieraziko, zinematokira heldu haiz eta filmea ikusiko duk... Zinemako aterira ailegatu nintzen jendetaldeak iladatan zeuden sarrerak hartzeko asmo urrun, masoka eta helezinaz. Pozak lehertu behar ninduela uste izan nuen. Leihatilatxo atzea zegoen andreari hurbildu nintzaion eta ahoa erdirekitzearek neukanean haren astahotsatik zetorren erretoliku aditu nuen: "zine senti dut jauna, zinez, baina sarrera erreserbatu suzuzenez itxaron behar duzu piskatto batetan". Han egoteak gero eta dardarriagotzen ninduen, gero eta larriagotzen, gero eta urduritzenagotzen. Ni itxaron beharrean, ni! Azkenez astagizon eta akerrandre haiek guztiak

beren sarrera madarikatua zutelarik barruratu ziren. Txanda suertatu zitzaidanean, leihatila osteko emakume lodikote, sudurluze, hiper-apainduari erreserbatutako txartela eskatu nionean ez ote zidan erantzun, niri bai niri!, ez ote zidan erantzun alu ziztrin hark denak agortuta zeudela!; "Benetan senti dut, benetan, ostera, jendetza izugarria zegoenez gerotan denak saldu ditugu".

Lepotik oratu nion. Eskerrak inguruko gizon zakil batzu beraren alde aterra zirela, bestela hartakoz berea eginda zukeen. Nire arrazoiak entzun ondoren zinemako arduradunak barkamena eskatu zidan eta baita nire sarrera antsiatua eman ere. Uf!, ba zen ordua izan!

Akomodadoreak nire esertokiaren bila dabil, aurkitzen du. "Hori duk hirea, bi horien bitartean dagoena". Esertzera noa. Mekaguen! hau zoritxarra hau! non eta bi jirafa eta besterantz ikusi nahiez mugitzen, ezina baina, aurrereko lapoluzeak geldo-geldo zeuden erosokiro.

Pelikulako hilketazko odol gorriak horretaraturik, soldadutzan erositako Albaceteko labaina hartu nuen, dzist arinez lapo-zatik guztia zapoetsuak egin nituelarik. Hurrean zegoen jendea ikaratuxe zen, aldiz filmeko beste sekuentzia sentsazionalista bat zegoelakoan eta ex-jirafeo oihei kasurik egin gabe berenean jarraitu zuten.

Orduantxe bai zorionsu! Arnasa hartu nuen sakon, harro-harro pelikula ikusten hasi nintzen.

Karlos Santisteban

ANAITASUNAK
HARPIDEDUNEI

anaitasuna
1982ko MARTXOA 418. alda. 100 PEZETA

EUSKAL LITERATURA
• Koldo Alkorta
• Xabier Ariz
• Bernardo Atxaga
• Alberto Arbasolo
• Jon Kortazar
• Gortzi Garate
• Joxe Azuaga

HILEKO DOSSIERRA

XAVIER VIÑADER:
Katalana eta katalanaren hizkuntzaren
aurrekariak

Elkarrikuska:
BALENDIN ENBEITAREKIN.

Azken alean aipatzen genizuen behar beharrezkoa dugu zuen helbide aldaketan informazio zehatza eskuratzea, eta horregatik berriz ezkatu behar dizuegu, helbideaz aldatzen baduzue, bidaltzeko, mesedez, helbide berria lehen bait lehen eta honekin batera azken erribistan izan duzen harpide-zenbakia, IB-Man egin behar ditugun aldaketak erreza-goak izan daitezzen.

Egia esan, batzuk izaten dira bueltatzen diren aldikariak, zuen etxeetara heldurik gabe eta postariaren holako eskuizkribuz: "desconocido".

Eskabidea haxe da: zure etxebizitza beste nonbait jartzen baldin baduzu bidali zuzenbide berria azken etiketarekin eta zure etxebizitza toki berean baldin badago, baina kalearen izena aldatu edo eta euskaratu egin baldin badute egin ezazu berdin.

Helbideei buruz zera adierazi nahi dizuegu:

- Ez jar, otoi, zuri gustatuko litzaizukeen izena, ofizialki onarturik ez badago.**
- Ez euskaratu zure kontura erdaraz soilik agertzen den kalearen izena. vg: "Calle Correo" "Posta Kalea".**
- Euskaraz ipin daitezkeen izen bakarrak ofizialki onartuta daudenak dira. Eta hemen, jakina, EUSKARAZ bakarrik jar itzazu.**



ZARAMAren lehen disko txikia EZKERRALDEKO GIROA ERREIBINDIKATU NAHIRIK

EZKERRALDEA

Loreak eskutatzen dira
arratoiaren herrialdean
eguzkiak ez du produzitzen
keinu tristeko langileak
tren zikinetan problemak erretzen
gaur atzo gaiztoagoa da
eta nork daki bihar
zer izango den.
Eta kaletik haiek patrulatzen
eta gauzez makarrak
meneratzen ez dago
Bizkaiko zubiaren gainean
berrogeitalau urkatuak
Barakaldoren estoldetan
oihu asko entzun dira
eta keinu marratzeko txikleak maska-
odeimurru marroiak ere /tzen
batzokien ikurrinak zikintzen



(Letrak eraban egokitu egin ditugu, hau da, diskoaren orrialdean agertzen den hainbat hutsune zuzendu. Besterik ez.)

Ezkerraldeko giroa erreibindikatu nahirik datozkigu ZARAMAkoak. Santurtzi, Portugalete, Sestao eta inguruko herriak ezagutzen dituenak erraz ulertuko du kantuen giroa. Herri txikietan bizi direnek agian gustorago entzungo dituzte Benitoren kantu goxoak (Eta hemen ez dago parekatzerik).

Baina kantariak beren giroan kokatu behar dira, lekuan lekuko giroa kantatu edo musikatu eta Santurtzi eta Iruri ez dira bat ere berdinak, ezta ere giroa. Irurikoak (Etxahunek) bere inguruko giroa azaltzen saiatu zen, ZARAMAkoek ezkerraldekoa erreibindikatu nahi. Beste gauza da lortu dutenentz.

Euskal Musika 80 Mandiope diskoaren bidez ezagutu genuen ZARAMA. "1977 urtean sortu zen taldea. Santurtziko 4 gaztek, elkartu eta gehien gusatzatzen zitzairen musika (rock and roll-a) egitea erabaki zutenean. Hasieran entsaioak gitarra espainolez eta kartoizko kaxaz moldatutako bateria batez egiten zituzten. Humore oneko eta amets haundiko garaiak ziren"

Denboraz talde finkatuz joan zen-neska batek, esaterako, taldea uzten du-azken hauek jarraitu zutelarik: Ernesto Alavak, bateria, Roberto Mosok, kantaria, Xabier Alvarezek, baxoa eta Jesus Manuel "Txuzos" Alonsok, kitarra. Talde honek grabatu zuen orduko Bildur naiz abestia. Talde berak grabatu du disko txiki hau (Nahiko abestira-

ko José Mari Santamaria kitarra-jolearen laguntza izan dute).

Single hau atera baino lehen zinta bat pasatu zitzairen Euskal Herriko zenbait irratigizoneri, hiru gaik osaturiko zinta, Ezkerraldea, Nahiko eta orain gogoratzen ez dudana beste gai bat ziren. Hemendik aurreko biak hartu eta single hau atera dute. Baina diskoa kaleratzea zaila izan da, RCA diskoetxearekiko prolemak, gero CBSra jo behar...

Diskoarekin batera beste nobedade bat, diskoetxearena. Diskoa Galdakaoko estudioetan grabatu zuten, gero CBSen industri lana eta zabalkundea DISCOS SUICIDAS delakoaren esku geratu da. Izen berri hau talde eta kantariaren promoziora dedikatzen den HILARGI-rekin dago erlazionaturik.

Ezkerraldeko giroa erreibindikatu nahirik datozkigu ZARAMAkoak, beste gauza da lortu dutenentz. Letrei begiratu behintzat ez da erreza lehen irakurketan ulertzea. "Hemengo euskara ez da euskara" esango luke batek eta ez lioke arrazoirik faltako. Gainera diskoaren orrialdean agertzen diren moduan irakurtzen baditugu ezin ulertu. Dena dela taldekoek euskaraz kantatzen jarraituko dute" gure hizkuntzaren normalizazioaren alde gaude eta exenplua ematen adierazi nahi dugu gure eritzia". Eta hau derrigorrezkoa da euskal kantari zenbaiten letrak errealitatefik hain hurbil dauden une honetan. Bestela euskal gazteriak erdal musikara joko luke eguneroko giroaren azalpen bat bilatu nahian edo. Eta asko gara NAHI-KO oihukatzen dugunok.

IZ diskoetxearen lan berriak

IZ diskoetxea jo ta ke ari da diskoak prestatzen eta azken berriak hauek dituzte:

Lasarte bertsolariaren kaxeta. Bertsolari honek jadanik beste bi dauzka, biok XOXOA diskoetxearekin kaleratuak, baina oraingo hirugarren hau etxeko aldatu eta etxe honek aterako du.

Hemendik hilabetera edo, MIROTZ euskal taldearen lehen diskoa aterako dute. Taldea ezaguna dugu musikariaren artean eta estiloaz hitzegiterakoan, "I-toiz" taldearen lineari jarraitzen diola esan genezake, folk eta rock estiloen arteko mugan nolabait esateko. Baina hau etiketa-prolema besterik ez da eta diskoa eskuartearen izango dugunean orduantxe esan behar.

Hirugarren diskoa Amuriza bertsolariarena izango da, bere taldearen laguntzarekin grabatua. Grabaketa hasia dago, sartu dira ahotsak eta hasi dira baita ere instrumentuak sartzen. Bertsozaleek igarriko dutenez Amurizaren lan hau hainbat herritan egindako saioen bidetik joango da. Ba dute, ba, gure bertsozaleek egarria non ase.



Kaleratu da Jean-Luc Barbier Quarter edo laukotearen diskoa. Talde helbeziarra jazz tankeraren barruan nolabaiteko pisua duena. Beraien bateria-jolea iazko Donostiako Jazz Jaialdian instrumentista hobereana izendatu zuten epai-mahikoek. Diskoaren azala ere azpimarratzekoa da, nik, egia esan, aspaldian ez dut horrelakorik ikusi. Zorionak.

ERRAMUN MARTIKORENAREN bigarren diskoa kalean



Aldizkari hau irakurtzen duzunera-ko kalean izango duzu **Martikorena** artzainaren bigarren diskoa eta **ELKAR** etxeari eskeinitako **elkarrizketa** horretan aipatu badugu hona hemen informazio gehiago.

Erramun Martikorena oso ezaguna da ipar aldean, Baigorriko Otsobi baserrian bizi delarik eta disko berri honetan **Haroztegi, Manex Etxamendi, M. Itzaina, Uharriet, Oxobi, Alkhat, Xalbador** eta beste batzuren letra eta kantuez baliatzen da. **Oxobirena** gainera oso ongi datorkio kantari honi **Jules Moulrier-ek, Oxobi** zenak, haren etxetik hartu baizuen izenordea.

Kantuek hauek dira: **Kalla kantuz, Orhiko xoria, Laborarien etxea, Beharra, Amets bat egin dut, Gure herriko ihiztariak, Dolu egingarri, Baigorri eta Berma ta bizi**, azken hau diskoaren izena delarik. Laguntzaileen aldetik **J. Garin** eta **Mario Gachis**.

ZEN taldearen diskoaren harrera

ZEN taldearen diskoaren aurkezpena izan genuen Bilboko dantzaleku batetan eta egia esan ez zen jende larregirik hurreratu taldearen aktuazioa ikustera. Diskoa, guk uste, pausu garrantzitsua da euskal musikagintzarako, grabazio aldetik akats batzu izan ba ditu ere.

Talde hau **ZARAMA**ren antzera **Mandiopeko** lehiaketan hartu zuen parte, baita ere gero ateratako diskoan eta handik hona gero eta entzulego zabalagoa lortu du disko hau grabatu arte. Baina musikazaleen erantzuna ez da guztuz egokia izan eta taldea merezi duelakoan gaude. Taldea osatzen dutenak hauek dituzue: **Iñaki Aristegi, Jokin Urkiaga, Manu Diego, eta Jose Vicente Garcia**.

Aspaldian esandakoa gogoratzea merezi du "ZEN taldearen helburua, Euskadiko panorama musikari aukera ezberdinak ekartzen da, hau da, gaur egun euskal musikariek egiten dituzten lanekiko ezberdina izango den zerbait eskaintzea."

elkar s.a.

EUSKAL LIBURU ETA KANTUEN ARGILDARIA, S. A.

Aurreko aleetan komentatu dizuegunez, badirudi **ELKAR** etxea indar berriaz sartu dela diskogintzan. Hain estu eta larri genuen eremu hau, ba doa pixkanaka pixkanaka leihoak zabaltzen.

ELKAR-en etapa berria ote?

ARTEZI desagertu zenean, etxe honek hartu zuen haren materiala eta disko agortuak berrargitaratu eta kalean jarri dituzte **ELKAR**rekoek. Honela Benitoren disko zaharrak "Zuberoa eta Askatasunaren semeei", "...eta maita herria, uken dezadan plazera" eta aurrekoak; **Xabier Leterenak, G. Knörrenak...** Beraz esan dezakegu **ARTEZI**ren produkzioa ez dela hauts artean geratu. "Ez dira asko saltzen, baina, kontutan izan behar ere, disko zaharrak direla. Bakar bakarrik saltzen direnak, Benito eta Xabierrenak dira; Xabierrenak askoz gutxiago" diosku **ELKAR**reko batek, diskoen salmentaz.

Zergatik bultzada berri hau galdetu diogu eta honek erantzun "Ez nuke esango hain berri denik. Egia esan, **ELKAR**rek betidanik izan du jokabide bat, diskoak kaleratzea inolako "bet seller" pretentziorik gabe. Aldi berean euskal kantagintzak sekulako "boom" a ezagutu zuen eta guk geureari ekin genion, ixil ixilik baina aurrera, ipar aldeko kantariei ere lekutxo bat eskeiniz. Geroxeago "boom" hori joan egin zen eta gauzak baretu."

Bultzada berriaren hasiera, Benitoren disko bikoitza genuke "Benito guregan etorri zen lan berria egiteko asmoz eta guk pozik hartu. Benitoren diskoak jende askori zabaldu dizkio atek eta zenbait kantari hurreratu zaizkigu beren ideak azalduz. Honela, laster **ITOIZ**en diskoa aterako dugu, baita **OSKORRI**rena ere. Baina honek ez du esan nahi, guk etapa berri bat zabaltzen dugunik. Guk geure martxari jarraitzen diogu, hori bai, musikari garrantzi handiagoga emanez. Benitoren diskoak esaterako Zuberoan sartu ditugu, orain arte ez ziren hara ailegatzen edo txarto ailegatu.

Azken diskoen berri ere eman digute "Azken hileotan disko gutxi argitaratu dugu. Inportanteenak edo nolabait azpimarratzekoak **Pantxo** ta **Peio**ren azken diskoa genuke-beno ezin ahaztu Benitoren bikoitza, orain pare bat hilabete argitaratua-, **Ipar** aldekoekin jarraiturik, **Etxeberri** anaien lan bat, **Erramun Martikorena**ren diskoa, **Baigorriko artzain laborari** honen zenbait kantuk osaturik; iparraldeko ere, **GUK** taldearen disko bikoitza. Gero **ARTEZI**ren diskogintzari jarraiturik, **Lertxundi**ren disko zaharrak berrargitaratu ditugu, eta bide berean **Lete** eta **Gorkarenak**. Hauetariko batzu agortuta zeuden eta orain **ELKAR** izenez datoz. Oskarbi taldearenak..."



Eta laster argitaratzekoak:

1.- **Martikorena** kantariaren bigarren diskoa. Disko hau gainera ohizko bideetatik salduko da, orain arte ez da holakorik egin hemengo aldean. Erramun artzaina dugu bizibidez eta abots bereziduna. Gogoratuko duzue, **Ipar**ragirren omenez egindako diskoan hartu zuen parte.


2.- **OSKORRI**ren diskoa. Grabaketa eta nahasketak eginik daude eta industri lana hasi da. Martxoaren azkeneko litzateke kalean.

3.- **ITOIZ** taldearen hurrengo diskoa. Grabatuta dago eta nahasketak egiten hasi dira. Ea apirilerako dugun kalen!

Bukatu baino lehen ohar bat jarri nahi nioke elkarrizketa honi: promozio faltarena. Eta ohar hau etxe guttiarako litzateke, baina **ELKAR**ri bereziki egitekoa, zeren honek ez baitu hain ondo zaintzen. Benitoren azken diskoa izan ezik, beste guztiek ez dute promoziorik ezagutu eta hori garrantzitsua da, disko batek argitaratu ondoren promozioa behar du eta zabal-kunde egokia. Ea aurrerantzean arlo hau hobeto zaintzen duten!

Joxe Ugarriza

POTROIEN ENERGIAREN KONTRA POTROEN INDARRA (III)



Orain hilabete bat irakurri ahal izan genuenez, Iruñean Estatuko lehenengo autobus elektrikoa kaleratu dute. "Arco Iris" izeneko hori prestu dago lanean hasteko, orain arteko probak gaituzten. Orduko 60 kilometrotako abiadura hartzen omen du, eta 85-etakoa aldapaz behera, panfletoak dioskun legez. Ez dioskuna da, frenorik dagoenentz 25 lagunentzako tokia eskeintzen du eta karrozeria aluminioz eginda. Pentsa ezazu urtean zehar ustegaben zaramara botatzen dugun eskuraezinezko aluminioarekin (Coca Cola latak, kontserba-potoak, eta abar luze bat) zenbat autobusetarako karrozeriak egin litezken!

Hiri handietan zein txikietan ez luke inork beraren kotxea erabili behar, oinez egiteko modukoak ez diren bideak autobusez egingo baikenituzke, eta lasaiki gainera. Horretaz gain, eta infra-estruktura osorako, lanpostu franko (parka!) sartzeko beharrea geundek, eta langabeok ez lukete zertan lapurtu behar (José Luis Vázquez Mosteiro, General Eléctrica Españolako atean erahilda). Lapurrik ez balego, ez litzateke aluminioz behar sarraila-giltza demaximaseguritatekoak egiteko eta ondorioz aluminio gehiago autobus elektriko gehiago egiteko. Beste aldetik, honelako autobusek ez dute ingura kutsatzen eta zarata apur bat egon arren gustura entzutekoa izan daiteke.

* * *

Igandea da. Goiz goizean. Sargori itzela. Hego-haizea, antza. Txema etxetik irten eta garajera abiatzen da, motorra hartu, giltza sartu, berotu... brm

mmbrmmmm kaskoa moldatu eta martxan!. Bilboko kale bakartietan barrena doa abiadura itzelean. Deustorantz hango San Pedro plazan Maider dago. Presentatuko dizuet: Maider bere senargaiaren emaztegia da. Bale?. Jarraituko dut. Maiderrek Txema hartu, besarkatu, musukatu, musukatu, musukatu, hain gogor non gizajoari gosaldutako kafesnea bera ere xurgatzeko baitio. Arazoa baretuta, Maider motorean jezari eta martxan. Eguzkia hasi da zementua kiskaltzen eta gure bikoteak Durangorako bidea hartzen du. Durangon motorra utzita Mugarra aldera doaz txirukak jantzita eta motxilatxo bat lepoari erantsita. Ordu bat geroago Mugarrikolandara heldu dira. Beroa. Kriston beroa. Oso berotuta daude. Keinuka hasi dira begiak elkarraldatzen. Eskua elkarrizkatzeko eta pagoen artean izkututzen dira. Efemeride moduan zera esan behar: gaur dela urtebete zehar eguna izan zen, eta gaur ere zehar eguna da: "EUSKALDUN GUTIEK ZUHAITZ BAT LANDATU BEHAR DUTE, GUTXIENEZ". Mugarrikolanda benetan polita azaltzen zaigula lainorik gabeko honetan: bakar-dadea, naturaltasuna, ixiltasuna...

CAGUEN RIAUU!! JODE!!
OTIA!!

Zer izan da hori?. Handik, pagoen tartetik desizkututzen dira Txema eta Maider, prakak erdi jaitsita, saltoka eta purrustadaka, eskuan Coca-Cola aluminiozko lata zorrotz bat daukatela. Zer uste duzue orain?. Ez al da hobe aluminioa batu, birziklatu eta autobusak

edo traktoreak egin, edonon bota baino?. Autobusak behintzat ez dira mendetik ibiltzen.

* * *

Idea polita honelako garraibide garbiena. Baina, badakizue putada zein den? Aurretik agertu eta atzetik zertu. Utziko al dute garraibide alternatiboa izaten? Azken batez, alternatiba ez dago bakar-bakarrik garraibideetan, kontrolbideetan baizik. Baina tira, ez gaituzten ezkorrak izan, Nafarroan dena posiblea baita, hantxe Of Bourg & Cia S.L.-k agintzen duen bitartean.

Eta Araban? Eta Gipuzkoan? Eta Bizkaian? Eta Lapurdin? Eta Zuberoan?. Kapaz egingo zituzten, seguru, edo erref. Beste aldetik, kuwaitarrak datozela eta... Eta mundialak direla medio, ez al duzue irakurri taxistak eta municipalak ingelesa ikasten hasiak direla?. Benetan barregarria, edo tristegarria, segun nondik ikusten den edo nondik ez den ikusten. Eta AEK-HABE horiek ez al dute hortaz ezer esan?. HABE Zesar morituri te salutam!. Euskara ikasteko astirik eta mediorik ez dagozela, eta ingelesez hi!. Hau duk, hau!

Seguru nago, egon, Mundialak Kuwait-en balira, eta hara Euskal Herriko ekipoa joango balitz, hango gameludriver guztientzako euskaltegi bat jarriko luketela. Ezetz? Baietz!. Hemen ere arazo energetikoa, bai horixe, energia behar delako erabakiak hartzeko.

Adio, ni egarri naiz eta txosnara noa. Zer gura dudala? Ron-kuwait bat. Zazpirehun eta lau esker.

Prontxio

HABE

euskara ikasten ari garenon aldizkaria

1982eko OTSAILA

3. Zka.



EUSKO JAURLARITZA

kultura saila lakua·gasteiz



**EUSKARA ERREZEAN IDATZIA HILABETEKARIA!
HARPIDETZA BIDEZ BAKARRIK BANATZEN DA**

HIRUGARREN ALEA KALEAN!

- Norberak bilatu behar du giro euskalduna
- Euskarak erabakiak behar ditu
- Alfabetatzeko premia
- Endrike Knorr, Euskal Herriko Unibertsitateko zuzendariordeari elkarrizketa
- Hizkuntz borroka Kanadan
- Dendetako ordutegiari buruzko inkesta: larunbatetan lan egitea oso tristea da.
- Miel Otxin hilko dute.
- Lehen egunkari euskalduna: EGUNA
- Apustueta ez dago krisiarik
- Euskal Herriko Ihauteriak
- Eta ... komikia, horoskopoa, jolasak, argazki-sariketa ...

HARPIDETZA-TXARTELA

Izena:

Kelea:

Zenbakia:

Herria: Bizitza

Probintzia:

HABE aldizkaria jaso nahi dut etxean. (Urtebetean hamaika ale: 1.000 pezeta).
Horrela ordainduko dut: Kontu korrante batez.

Bankua edo Aurrezki-Kutxa

Sukurtsala

Zenbakia

HELBIDEA: **EUSKO JAURLARITZA** kultura saila lakua·gasteiz

ORGANIZAZIOA

Gaur egun Euskadin, eta ez hemen bakarrik, organizatu nahi eza nabarmena da. Joera hau, gaurko egoera ilunaren ondorena da. Baina ez hori bakarrik gure etsaiek, gu ez organizatzeko, elkarrekiko indar handiaren jabe ez izateko egiten dituzten ahaleginen fruitua ere bada. Ez da, beraz, norberaren joera kosziente bat; gehienetan alienazio bat, gure etsaiek nahi dutena txintxoki egiten ari garela baizik, nahiz "izquierdoso" batzuk hau eginaz nehor baino ezkerzaleagoak direla sinets arazi nahi...

Organizatu gabe, ez dago iraultza egiterik; organizatu gabe ez dago sozialismoa eraikitzerik; organizatu gabe ez dago Euskadi askatzerik.

"Y quien dice acción coordinada dice organización. Ahora bien, ¿Cabe organización sin autoridad?"

Supongamos que una revolución social hubiera derrocado a los capitalistas, cuya autoridad dirige hoy la producción y la circulación de riqueza. Supongamos, para colocarnos por entero en el punto de vista de los antiautoritarios, que la tierra y los instrumentos de trabajo se hubieran convertido en propiedad colectiva de los obreros que los emplean. ¿Habría desaparecido la autoridad, o no habría hecho más que cambiar de forma?" (1)

Hau ordea modan dagoen mamua da. Eta hori da: mamua, haurrak beldurtzeko, isiltarazteko esaten zaiena, sartzen zaien ziria. Gaurko "progrek" ordea ez dira ohartzen haurrak bezala konportatan direla, mamuaren aurrean beldurtzen eta isiltzen direla, agintean diren klaseak ziri bera sartzen dietela.

Engelsen lantxo hau behin eta berri izakurri beharko genuke, eta gero gizonki, ondorenak atera, zeren ezin esango dugu Engels ere "estalinista" denik. Kaka tapatzeko, beti erreakzionarioak egin dutena, oinarrira ez joatearren begi aurrean jarri izan dutena,

etiketa, txorimalua izan bait da. Hau ez da berria... "Estalinista" hitz hori ere horretarako erabiltzen da, eta ikusi besterik ez dago, hori hitzetikhortzera dakartenak antimarxista, antisozialistak, izaten direla, eta ez kasualidadez.

Eta konkretuki, organizazio barruko eraketan dago honen funtsa, nolakoa izanen den, zeintzu helburu beteko dituen, zertarako egina den, zein jokatibide aurrera eramango duen, partaideak nola hautatuko diren, zeri garrantzi emanen diogun, zein klase defendatuko duen, e.a.

Puntu horri buruz "Lettre à un camarade sur nos taches d'Organisation" delakotik lerrokada hauek hartu ditugu:

"Ondoren, bigarren puntuan, komiteak "tokiko organizazioa zuzendu" behar duela diozu (beharbada "tokiko lan guztia, eta partiduaren tokiko organizazio guztiak" esatea hobe litzateke, baina esateko eraren zehaztasunetan ez nahiz geldituko), eta bidebatez langile eta intelektualez osotua egon behar duela, bi komiteetan sakabanatzea kaltegarria bait da. Hau benetan ukazena, zuzena da. Errusiako langileen partidu sozial-demokrataren komite bat bakarria izan behar du, arras koszienteak diren militantez osotua, eta sozial-demokrazia ekintzei osoki emana. Batez ere, ahal den langile gehien benetako iraultzaile kosziente eta profesional bihurtzen eta komitean sartzen ahalegindu behar da. Komite bakarraren kasuan eta ez bikoitzarenean, komiteko partaideek langile andanarekiko harreman pertsonalak ukaiteak benetako garrantzia du. Langile munduan guztia zuzendu ahal izateko, leku guztietara joateko posibilitatea ukan behar da, jende anitz eza-gutu, nornahiko sarrerak irekiak ukan, e.a. Horregatik, ahal den neurrian, komite barruan langile mugimenduaren langileburu garrantzitsuenak aurkitu behar dira, eta komiteak tokiko mugimen-

du-era guztiak zuzendu behar ditu, eta erakunde guztiak, indar guztiak eta partiduaren tokiko iturri guztiak zaindu.

Komitea nola osotua egon behar duenaz ez diozu ezer, eta hortan ere dudarik gabe, ados izanen gara: hori dela eta, arau bereziak ez dira beharrezko; komitearen konposaketa bertako sozialdemokraten arazoa da. Beharbada zera esan genezake, partaide berriak komiteko gehiengoaren edo bi herenen (2/3) aukeraketa egin ondoren izanen direla; komiteak, bere loturen pasaketa, konfiantzazko, (iraultzailetasunean konfiantzazko) eta (politika aldetiko) segurtamenezko pertsonengan egin, eta aurretik ordezkioak prestatu behar dituela. Organo Zentrala eta Komite Zentrala ukaiten ditugunean, komite berriak, hauen partegintza eta akordioarekin bakarrik eratu dira. Ahal bada, komiteko partaideen kopurua ez da handia izan behar (partaideen maila gorena izan dadin, eta iraultzaile langintzetan espezializatua egon daitezen), baina ekintzaren era guztietako zuzendaritza, bilkuretan ordezkotasuna eta erabakien tinkotasuna atxikitzekeo gai izan behar du. Partaideak anitz izatea gerta baledi, eta maiz elkartzea arriskutsua, beharbada komitetik zuzendari talde berezi bat atera beharko litzateke, oso txikia beraz (eman dezagun bostekoa edo gutxiagokoa), eta hauen artean nahi-eta-nahiez idazkaria eta lan guztia benetan zuzentzeko kapazena liraketeenak egongo liraketeke. Talde honentzat, behar-beharrezko da ordetzakakoak finkatzea, polizia jakinen gainean egon baledi, lana geldi ez dadin. Zuzendari taldearen erabakiak, biltzarre orokorraren komiteak onartuko edo lituzke, konposaketa erabaki eta abar". (2)

Horra Leninek organizazioari buruz dioen zertxobati, eta nahiz eta egoera ezberdinean aurkitu une honetan, ez da toz gaizki. Baina, nork esan du ez gau-



dela egoera berdintsua? LAIA legez kanpo ezarri dute, eta hau probaketa, "globo sonda" bat besterik ez da izan. Nork daki, denbora gutxi barru beste partidu, organizazio, mugimendu, antolaketa, sindikatu, elkarte eta abar ez diren banaka-banaka legez kanpo ipiniak izanen, eta sobera fite utzitako klandestinitatera berriz pasa behar izango ez dugun? Jakin "Euskadiko-Eskerra" ez dutela legez kanpo jarriko; baina besteok, abertzale-sozialistok?

Honeraino artikulua hau irakurtzeko "ausardia" izan duzun horrek honezkeror leporaino zaude Leninek dioenez, ez esan duenagatik, beragatik datorrelako baizik: hitzen beldurra alegia. Hala ere, bere beste zati batekin jarraituko dugu:

"Gogoeta sakondu ezagutzen dugun Iskra berriaren "Praktiko" hori adibidetzat harturik, nik Partidua berealdiko lantegi bat zuzendariarekin, Komite Zentralarekin balitz bezala ikusten dudala bizkarreratzen dit. Eta "Praktiko" hori ez da ohartzen berak jaurtikikakoa hitz izugarri horiek, burges intelektuaren psikologia agertzen digula eta proletargoaren organizazioaren ez praktika ez teoriarik ez duela ezagutzen. Batzuri fabrika txorimalu bat iruditzen zaien hori hain zuzen, proletargoa batu eta disziplinatatu duen kapitalista goi kooperakuntzako era da; honek organizatzen irakatsi dio eta herri langile, eta explotatu sail guztien buru ezarri du. Marxismoak hain zuzen, kapitalismoak eskolatutako proletargoaren ideologi hori, balantzaka dabilten intelektual hoiei, lantegiko explotazio (gosez hiltze aurrean sortzen den disziplina) eta organizatzaile zeraren (elkarrekiko lanak dakarren disziplina, goi teknikaz mamitutako lana egiteko erak sortzen duen batasuna) ezberdintasuna agertu, irakatsi eta irakasten die. Burges intelektualak disziplina eta organizazioa bere baitan

hain nekez lortzen duena, fabrika den "eskola" horri esker, errazki asimilatzen du proletargoak. Eskola honi dion izuikara, duen organizatzaile balioaren ezin ulertzea dira, burges txikiak daraman bizitzaren pentsakera - fruituak. Hau da aleman sozialdemokratek Edelanarchismus deitzen duten anarkismoa, edo hobeto esanda, jaun "ohoragarriaren" anarkismoa, jauntxoan anarkismoa esango nuke nik. Jauntxoan anarkismo hau, errusiar nihilisten joera berezia da. Partiduaren organizazioa, fabrikatzaile bat bezala iruditzen zaio; erakunde zentral baten zuzendaritzapeko lan banaketak, dehiadar tragikomiko batzuei oi-huka arazten dizkio, mekanika baten "gurpil eta torloju" bilakatuko diren beldur. Partiduaren organizazioko araudiak aipatzeak ere, mespretxu eta arbuio-keinua sortzen dio, zeren hauen iritziz, estatuturik gabe bizi baitaiteke." (3)

Espontaneismoa modan dago, eta horren propaganda egiten dutenak anarkismoan babesten dira, nahiz anarkismoaren aiten liburuak sekulan irakurriak ez ukan. Eta hala ere, teoria horien alde agertzen dira, daramaten bizitza nahasia justifikatzeko. Justifikazio hori ordea oso pobrea da, gizotasun eza agertzen bait du. Egoera hontatik, intelektual burges txikitutasun hontatik dator organizazio mamuaren beldur izatea, ez organizazioari beldurra diotela, beren buruari baizik.

Eta intelektual burges txikikeria beste era batera ere agertzen da: zenbait langile, zenbat proletari dago partiduetako goi-postuetan?

"Partiduaren III-gn Batzarrean, partiduaren komiteetan bi intelektualeko zortzi langile egoteko nahia agertu nuen. Orain ordea, partiduaren organizazio berrietan, sozialdemokrata militante intelektual bateko ehundaka langile sozialdemokrata aurkitzea nahi litzake". (4)

Hau egingo bagenu gure artean, zatiketa gutxiago, dogmatismo gutxiago, elitismo gutxiago, burokrazia gutxiago ikusiko genuke, eta problemak errazago konponduko lirateke.

Eta bestalde, ihazko abenduko "Le Monde" kazetako artikulua batek Brez-nevi buruz zioen bezala: "son fils (est) premier vice-ministre du commerce exterieur; son gendre, vice-président du KGB; le beau-frère de sa femme, vice-ministre de l'interieur..."; eta honek dakarren kaltea nabarmen da: erregeen dinastiek dakarten dominazioa argi eta garbi dago historian, eta noski sozialismoarekin ez du zer ikusirik. Eta Errumanian berdintsu gertatzen da: Hemen dik ez goaz inora!

Bukatzeko, eta goikoarekin jarraiki, organizatu beharra dugula argi eta garbi dago, batez ere zampaketa handiena hartzen dugunok. Eta horretarako eta bidez oker ez gaitzen, hiru akats hauei kasu eman behar diegu:

1.- benetako prestaera eta iraultzailetasun heziketaren eza.

2.- hautaketa printzipioaren aplikatze desegokia.

3.- benetako iraultzailetasun-ekintzetan langileek parte ez hartzea. (5)

Huts hauek kontuan ukanik, antolaketa taxuzko bat sortzeko eran egongo gara, hitzei beldurra galduz, (ez gara haurrak noski) benetan lortu nahi ditugun helburuak amets hutsak bilaka ez ditezten.

Organizazioa, organizazioa,

Hitz debekatu hori,

Noiz arte eman

Behar diozu

Beldurra gizonari? (6)

Harotza

- 1) F. Engels - De la autoridad - Obras Escogidas - T.II - pág, 398
- 2) Lenine - Oeuvres Completes - T. 6 - pag, 239-240, 237
- 3) Lenin - Un paso adelante, dos pasos atrás - pag, 191
- 4) Lenin - Obras Escogidas, T.I - pag, 591
- 5) Lenine - Oeuvres Completes - T.6 pag, 239-240, 237
- 6) Lourdes Iriondoren kantua aldatuxea.

“MARIA GOIRI” MINTEGIA: EUSKAL HERRIKO AHOZKO LITERATURA TRADIZIONALA IKERTZEN ARI

Euskal literaturaz mintzatzen denean, zenbait idazle eskolaturen literatura etortzen zaigu, normalean, burura. Baina honekin batera, beste literatura bat ere bizi izan da Euskal Herrian, oraindik ere bizirik irauten duena: herri-literatura. Bertsolaritza, poesia lirikoa eta konta-poesia narratiboa (erromantzeak edo baladak) dira herri-literatura honen poesi arloa osotzen dutenak.

Bertsolaritza da arlo honetan ongien ezagutzen dena. Oso gaizki, berriz, ezagutzen da konta-poesia tradizionala. Angel Irigarai, José M.^a Satrustegi eta Juan M.^a Lekuonaren inkestak kenduz gero, oso gutxi (edo ezer) egin da Literatura Etnografikoaren arlo honetan.

Gauzak horrela izanik, «Maria Goiri» Mintegia sortu zen 1980. urtean, Euskal Unibertsitateko Filosofi-Letren Fakultateko Literatura Sailaren barruan, eta Jesús A. Cid, Madrileko «Menéndez Pidal» Institutuko taldekide eta Gasteizko Fakultate honetako irakasleohiaren ekintzaz. Euskal Herriko herri-literatura tradizionala ikertzea eta euskal literaturaren arlo honetan dagoen hutsunea nolabait betetzea dira Mintegi honen helburuak.

Lehendabiziko projektua herri-poesia tradizionala ikastea da, eta honen barruan bereziki, konta-poesia.

Konta-poesia tradizionala

Lehen esan dugu, herri-poesiak hiru zati nagusi dituela, bertsolaritza, poesia lirikoa eta konta-poesia, alegia. Azken honek badauka beste biek ez daukaten berezko ezaugarri bat: narratibotasuna; beraz, konta-poesia narratiboa da, bere izenak berak adierazten duen legez.

Konta-poesiaren definizioa egitea ez da oso erraza, baina konta-poesia tradizionala, artistikoki eratutako istorio, gertaera, edo egoera drama-

tiko bat kontaktzen duen konposaketa poetikoa dela esan dezakegu.

Konta-poesi jeneroaren ezaugarri nagusien artean, bere transmisioa ahoz aho egitea daukagu. Jenero hau, nekazarien edo arrantzaleen kultura bätetan murgilduta dagoen gizarte batek transmititzen du, aintzinatik datorkion beste tradizio bat bezalaxe.

Esan dugu, euskal konta-poesia Euskal Herriko ahozko literatura tradizionalaren barneko zati bat dela. Esan beharra dago, gainera, musikari itsatsia egoten dela, normalean kantatua izaten delako, herri-poesiaren beste bi zatiekin gertatzen den bezala. Orduan, kantatzen den poesia izatea da, konta-poesiaren beste ezaugarri bat.

Halaz ere, musikarekin zerikusia edukitzeak ez dizkio beti gauza onak ekarri konta-poesiari. Adibidez, J.M. Lekuonak seinatu ditu, poesia mota honen biltzaileen mugatsun metodologikoak eta haien bildumek dituzten akatsak. Horrela, badirudi mende honetako hasieran egindako bildumetan, ahozko folkloreazren biltzaileen perspektiba musikologikoak eta erizpide moral

eta estetikoek mugak inposatu zizkietela konta-poesiaren ikerketa zientifikoei. Kontutan eduki behar dugu, biltzaile hauek (Azkue, Aita Donostia, Riezu, etab.) elizgizonak eta musikologoak izan zirela, gehienean.

Orain badakigu, gutxi gora behera, zer den euskal konta-poesia tradizionala eta zeintzu diren haren ezaugarri garrantzizkoenak. Baina, zeintzu dira konta-poesia hauek? Ezagunen artean hauek dauzkagu: «Berreterretxeren Kanthoria», «Arrosa Xuriaren Azpian», «Neskata Ontziratua» («Brodutzen ari nintzen») Iparrean; eta «Ana Juanixe», «Aldaztorre», «Peru Gurea», «Frantziako Anderea», etab. Hegoaldean. Artikulu honetako bukaeran dagoena «Frantziako Anderea» erromantzea da.

«Maria Goiri» Mintegia

Lehen apuntatu dugunez, 1980. urtean sortu zen Gasteizko Filosofi-Letren Fakultatean, Literatura Sailaren barnean, eta Euskal Herriko ahozko tradizioa ikertzeko asmoz. Jesús A. Cid izan zen ideia hau asmatu eta burutu zuena. Oraingo Mintegian euskal filologia eta filolo-



gia erromanikoa ikasten duen ikasle talde bat ari da ahozko literatura tradizional hau ikertzen, Jon Juaristiren zuzendaritzapean.

Mintegiaren beraren barruan bi talde daude: bata, euskal tradizioa ikasten duena, eta bestea Euskal Herriko erdal tradizioa ikasten ari dena. Halaz ere, biek jarraitzen dioten metodoa, bera da. Metodo hau Madrileko «Instituto Menéndez Pidal» delakoak asmatu eta erabiltzen duena da. «Maria Goiri» Mintegiak, hain zuzen ere, harreman ugari dauka Institutu honekin.

Mintegiaren lana

Euskal Herriko ahozko tradizioaren (euskalduna zein erdalduna) ikasketa bultzatzea da gure Mintegiaren asmoa. Horrela, gure ikerketak bi plano ezberdinak dauzka:

– Lan teorikoa: Ahozko tradizioaren barruko euskal testu narratiboek aplikatu daitekeen azterketa semiotiko baten eredu egitea, Mintegiaren taldekideen tesinetara begira.

– Lan enpirikoa: esandako testu narratibo hauen bilketa, inkestak direla medio. Bilatu nahi duguna zera da: herri-ipuinak, kontakoesiak, erromantzeak, etab.

Joan zen ikasturtean hasi zen Mintegi hau lanean, eta bi maila ezberdinetan:

– **Euskal tradizioaren barruan:** Arratia, Lea-Artibai, Gernika, Busturia, Ondarru eta Mutrikualdean. Inkesta hauetan kontakoesia batzuen bertsio ugari bildu dugu: «Frantziako Anderea», «Senarraren etorrera», «Ana Juanixe», «Peru Gurea», «Hamabi Esanak», etab.

– **Erdal tradizioaren barruan:** Arabako Lautadan eta Errioxan. Hauetan lortu genituen erromantze hispanikoen bertsio interesgarriak: «Gerineldo», «La mala suegra», «Tamar», «La doncella guerrera», etab. Hauek denak, laster argitaratu atera nahi dugun «Romancerillo alavés» batetan agertuko dira.

Ikasturte honetarako proiektuak

Beste helburu bat da euskal tradizioaren «inkesta-eskuliburu» bat egitea. Eskuliburu honetan euskal balada ezberdinen bertsioen «incipit» edo hasierak, haien kokatze geografikoak, eta kantoreen izenak (gure inkestetan lortu ditugunak zein aurreneko beste bildumetan agertutakoak) azalduko dira. Gasteizko Filosofi Letren Fakultatea eta Euskaltzaindia interesatu dira eskuliburu honen argitarapenean.

Gainera, aurreneko kantategi, artikulatu eta bildumetan (Sallaberri, Bordes, Donostia, Azkue, Nehor-Duffau, Lekuona, Aphan-Etchebarne, etabarretan) bildutako kontakoesiak, eta gure inkestetan bilatu ditugun «corpus» bat egin nahi dugu. «Corpus» hau lantzen ari gara oraingoan. Honen antologia bat Madrileko «Nuestra Cultura» argitaletxeak kaleratuko du, ikasturte honetako bukaeran, «Euskal Kontakoesiaren Lorategia / Florilegio de Poesía Narrativa Vasca» izenburuarekin. BUP, COU eta Filologiako euskal literatura ikasten dutenentzako langailu bezala asmatua izan da antologia hau. Mintegiaren lankideok atsegin genuke, honelako inkestak eta lanak egitea interesatzen zaien Institutuetako irakasleak kontseilatzea eta gure laguntza eskeintzea.

Bestaldetik, eta inkesteei dagoenikenez, «Ipar Nafarroa» inkesta egin nahi dugu ahalik lasterren. Goi-Bidasoa, Aralar, Bortz Hiriak, Bertiz-Arana eta Baztanaldeko zonetako ahozko tradizio narratiboa bildu nahi dugu.

Badago beste proiektu, bat aurreneko burutzen ari dena: «Gran Bilbao» izeneko inkesta. Honetan, Mintegiaren erdal tradizioa lantzen duen taldea saiatzen ari da. Inkesta hau, Bilbo Haundiko biztanle erdal-dun etorkin edo inmigranteek ekar dezaketen bere herrialdeetako tradizioa ikertzean datza. Inkesta honen ondorioak interes handikoak izan daitezke, Penintsulako hirietan halako zerbait egitea saiatu ez delako, oraindano ere. Honelako inkestak batek, gizarte industrialetan sartuta dagoen kultura tradizionalaren soportuari buruzko ebaluapen eta datu garrantzitsuak lor litezake.

Eta bukatzeko, ikasturteon, Gasteizko Fakultatean, gai honetan interesaturik dauden ikasleentzako mintegi eta hitzaldiak ematen dira astero (astelehenero, goizeko 12:00, etan, 24 gelan) Jon Juaristi, «Maria Goiri» Mintegiaren monitorea kontura. Eta pentsatzen da, baita ere, gai honetako ikertzaile ospetsuak, mintzaldiak egin ditzatela.

KOLDO BIGURI

(«Mari Goiri» Mintegiaren taldeki-dea)

FRANTZIAKO ANDEREA

1. Etorri nintzanian
Frantzie Kortatik
ama topadu naben
etxian bakarrik.
3. Zer egiten dozu, ama,
horrelan tristerik?
Nobedade barriak
entzun dodazela nik.
5. Zer entzun dozu, ama,
bai ama neuria?
Ezkondutuen eiten zariala,
bai ene semia.
7. Nondikua dakazu
bai zeure andria?
Frantzie Kortakua,
bai ama neuria.
9. Ez dot behar nik frantsesik,
hain gitxi errenik
bidera urten eta
hil eingo neunke nik.
11. Hain da galanta eta
neure emaztia,
lastima emote'ustela
hori egitia.
13. Zeu ez bazara kapaz,
eroaixu anajea,
anajea ez bada kapaz,
bai neure semia.
15. Kaixio koinetue,
estudiantea,
hemen dakat zutzako
urre kalizia,
urre kalizia ta
sobrefelizia.
17. Juanita jetsi zaite
zaldi zurin gainetik,
sartu deitzudan puñel hau
bihotzen erditik
19. Ai horren puñel horren
zorrotzen zorrotza!
berori ikustiek
hiltzen dust bihotza.
21. Hamalau mando dodaz
urrez kargaturik,
hamabostgarrena be
erropaz beterik;
horreik emongo 'utzue ta
itzi idazue bizirik.
23. Horreik hartu bai, baia
ez itzi bizirik.
25. Hil behar banozue
ekarrixu abadia.
27. Abadia urrin dago,
eleixea urrinago,
horreik guztiok eiteko
asti gitxi dago.
29. Hiru anaje dodaz
Frantziako erraien,
ai haiek balekie
hemen zer dabilen,
zabalduko leukie
Espaine guztian.
31. Ai neure amaginerreba,
muskerrez betia,
sugeak egingo al dautzu
arratserako ohia!!

anaitasuna

hilerro informazioa euskaraz

ZABALBIDE, 68
BILBO-6

